

1. OINARRIAK

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

DROGA-MENDEKOTASUNEN AURREKO TOKIKO PLANAREN OINARRIA

Droga-mendekotasunen aurreko Tokiko Plana Udalak droga-mendekotasunen fenomenoari ematen dio erantzuna da.

Droga-mendekotasunen arloan udalak bideratzen dituen ekintza guztiak sektore artean koordinatzea eta planifikatzea du helburu Plan honek, eta sendotu egin nahi du interbentzioen eraginkortasuna, prebentzioaren eta laguntzaren eremuan emaitza positiboagoak lortzeko xedean.

Udalek oso lan garrantzitsua egin dute droga-mendekotasunen fenomenoari erantzun instituzionalak emateko orduan, eta baliabide ugari eskaintzeaz gainera, urrats garrantzitsuak egin dituzte arazoa sortu zenetik. Halaxe aitortzen du “Drogen aurreko 2000-2008 Estrategia Nazionalak” baieztatzen duenean, Drogen aurreko Plan Nazionalak aurreko 15 urteetan lortutako emaitzei, “ekarpen garrantzitsuak egin dizkietela Tokiko Administrazioek, errealitatetik hurbil egoteko duten kokaleku pribilegiatu horretatik erantzun zehatzak eta eraginkorrak eman dizkietelako droga-mendekotasunek eragindako arazoei”.

Estrategia honek berak oso egiteko zehatzak uzten ditu Toki Administrazioen esku prebentzioaren, gizarteratzearen, eskaintzak mugatzearen eta herri mailako interbentzioen koordinazio-lanen esparruetan. Bereziki prebentzio ekintzak dira aipagarri, batez ere biztanleriaren sektore ahulenei eta gazteei zuzenduak, azken hauei begira aisia osasungarrien alternatibak, drogen kontsumoarekin bateraezinak direnak, sustatzeko.

Udalek, hiritarrendandik gertuen dauden erakunde administratiboak diren aldetik, guztiz egiteko garrantzitsua dute droga-mendekotasunen aurrean jarduteko. Eskuduntza esparru honetan sortzen da Drogen aurreko Udal Planak sortzeko beharra. Plan hauek dagokion Udal Planean jasoriko jarduerarako ildo nagusietara egokituko dira. (Drogen aurreko Udal Planak egiteko eskuliburua).

Droga-mendekotasunen Tokiko Planak honako ildo nagusia du, Droga-mendekotasunen IV. Hiru urteko Planean (2000-2004) zehaztua:

- A-11. droga-mendekotasunen aurreko udal prebentzio programen garapena; honek Droga-mendekotasunen Tokiko Planen garapena eskatzen du, Udaletara Gobernuaren Hiru urteko Planaren filosofia

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

eramanez eta Udal Komunitateko Prebentzio Taldeak mantenez, azken hauei egiteko bereziak esleiturik eta beharreko baliabideak emanik.

Drogen aurreko Estrategia Nazionalaren helburu eta xedeen artean, aipagarria da prebentzioaren arloari emango zaion lehentasuna, estrategia garrantzitsuena baita arazoari aurre egiteko; aipagarria da, halaber, egun dagoen laguntza sarea egokitzeko egingo den ahalegina, fenomenoak planteatu ditzakeen behar berriei egokitzeko xedean; gainera, droga-mendekotasuna duten pertsonak gizarteratzea erraztuko duten programak sustatuko dira, eta drogen eskaintza, kapitalak zuritzeke jarduerak eta horiei loturiko beste delitu batzuk murrizteko ahaleginak egingo dira.

1. Prebentzioari halako lehentasuna emango zaio arazo honi aurre egiteko estrategia garrantzitsuena delako, areago kontuan badugu alkohola eta tabakoa bezalako kontsumoak emendatzen ari direla. Baina, funtsean, heziketan oinarritutako prebentzioa da, nagusiki haur eta gazteei zuzendua, beren emozio eta gizarte izaerako heldutasuna sustatzeko, beren gaitasun kritikoa sustatzeko, pertsona bezala autonomoak izateko eta beren balioak argitzeko eta sendotzeko xedean. Azken batean, pertsona askeak eta beren bizitza proiektuetan erabaki egokienak hartzeko eta gero eta tolerante eta solidarioagoa den gizartera biltzeko gai izango diren pertsonak moldatzeko heziketa.

Droga-mendekotasunen aurreko prebentzioak drogen kontsumoa eta gehiegizko kontsumoa saihesteko eta kontsumoari loturiko gizarte eta osasun izaerako arazoak saihesteko ahaleginak egingo ditu. Horrexegatik, behar-beharrezkoa da kontsumoari loturiko patologia organiko eta psikologikoak hautemateko eta tratatzeko jarduerak aurreikustea.

2. Drogak kontsumitzeagatik arazoak dituzten pertsonen gizartera biltzeko modua, gizarteko kide aktiboen izaera batez biltzeko modua, erraztuko duten programak bultzatzea.

Ildo honetatik, drogen abinentzia laguntza prozesuaren helburuetako bat baizik ez den arren, bada bila ari garen helburua, eta beraz, sendo sustatu beharrekoa.

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

Drogen aurreko 2000-2008 Estrategia Nazionalak ikuspuntu global eta integratu batetik aztertzen du drogen fenomenoa, eta horrenbestez, interbentziarako hainbat arlo aurreikusten ditu; bertan adierazten dira halako lehentasuna duten alderdiak. Arlo hauek oinarrizko hiru maila estrategikotan bildu dira: eskaeraren murriztean¹, eskaintzaren murriztean eta nazioarteko elkarlanean. Beti ere kontuan izanik fenomenoaren errealitatea desitxuratzen duten liskar-egoerak saihesteko xedean, interbentziarako hiru mailetako neurrien eta egituren artean koordinatzeko mekanismo iraunkorrak ezarri beharko direla.

1. Drogen kontsumoaren prebentzioa

Drogen aurreko Plan Nazionala nagusiki kontsumoen eta horien ondorioen prebentzian oinarritzen da, bereziki alkohol, tabako eta ondo pasatzeko beste produktuen kontsumoak zainduz. Izan ere, prebentzioa da Drogen aurreko Estrategia Nazionalaren ardatz nagusia. Halatan, sentsibilizazioaren eta kontzientziazioaren bidez gizarte zibilaren inplikazio handiagoa lortzeko eta interbentzioen eraginkortasuna hobetzeko modua eskain dezaketen kontsumoen aurreko gizarte estereotipoen aldaketa lortzeko neurriek eta helburuek osatuko dute interbentziarako elementu nagusietako bat.

Prebentzioa honako printzipio, lehentasun eta jarduerarako helburu hauen inguruan egituratu beharko da:

1.1. Jarduerarako printzipioak

1. Polizia, osasun, heziketa, lan, gizarte eta beste esparruetan jardueren sinergia erraztuko duten moduan itxuratu behar dira prebentzio programak. Sektoreen arteko osagai honek bere baitara biltzen ditu Administrazio eta gizarte mugimenduen jarduerak ere.

2. Gizartearen emana eta hiritarren parte hartze aktiboa oinarrizko printzipioak dira arlo honetan bideratu beharreko interbentzio ororen aurrean. Norberaren eta kolektibitatearen erantzukizunean oinarrituta baizik ezin da arrakastaz bete norberaren eta gizartearen jokaera eta portaera aldatzea eskatuko duen lana, sustantzien mendekotasunetik aske biziko den gizartea lortu nahi bada. Ildo honetatik, funtsezkotzat jotzen da hedabideek egin dezaketen lana.

3. Edozein prebentzio strategiaren beste oinarri bat heziketa osasungarri baten promozioa da. Halatan, hiritarren osasun heziketa eta ikastetxeetako heziketa osasungarria funtsezko estrategiak dira programak eta jarduerak diseinatzeko orduan.

¹ Eskaeraren murriztea: drogen kontsumoaren prebentzioa; kalteen murriztea; laguntza eta gizarteratzea.

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

4. Egun ezin uler daiteke drogen kontsumoari aurre hartzeko arlo bat osatzea, honek aldi berean, profilaxia eta gaitzen eta horiei loturiko gaitz kutsakorren murrizketa lortzeko neurriak aurreikusten ez baditu.

1.2. Jarduerarako esparruak

Ikastetxe, familia, lan, komunitate eta gizarte komunikazioaren esparruak dira jarduerarako esparru nagusiak.

1. Ikastetxeen esparrua

Esparru honetan bideratu beharreko jarduerak eskola komunitate osoa inplikatu behar dute, hau da, irakasleak, ikasleak eta gurasoak. Jarduerarako oinarrizko estrategia heziketa osasungarriaren bidez garatu behar da, zeharkako gai gisa eta LOGSE legearen arabera. Eta hori guztia bereziki ahulak diren taldeekin, bereziki eskola porrotak kolpatu dituzten taldeekin, bideratu beharreko interbentzio intentsiboekin osatu behar da.

Ikasleekin garatu beharreko jarduerak irakasleek zuzenduta egongo dira, eta ikastetxeko eskolako eta eskolatik kanpoko jardueretan integratuta egongo dira. Komenigarria da jarduera horiek guztiak ikastetxeko hezkuntza proiektuaren baitan jasoak egotea, denboran halako segida izatea eta ez noizbehinkakoak izatea; halatan, ikasle batek jarduera horiekin hasi eta ondoz ondo etorriko diren goragoko maileri dagozkienekin jarraitzeko modua izango du.

Garrantzitsua eta komenigarria da irakasleek droga-mendekotasunei aurre hartzeko profesionalen laguntza edukitzea; horrela izatera, programa hauek garatzeko orduan sor litezkeen arazoak eta zailtasunak gainditu ahal izango dituzte.

Beharrezkoa da irakasleen jarduna arazoari aurre hartzeko materialen hornikuntzarekin lagunduta egotea, ikasleen bilakaerari egokituak, tabako, alkohol eta medikuak agindu gabeko botiken kontsumoaren arriskuak agerian gera daitezen.

Gainera, higiena zaintzeko egitekoak, osasunaren aurreko norberaren zaintzak, auto-estimua, taldearen presioaren aurreko erresistentzia, publizitatearen eraginaren aurreko kritika gaitasunaren garapena eta drogen kontsumoaren aurrean babesgarritzat jotzen diren beste faktore batzuk hartu behar dira kontuan. Material hauek guztiak ziurrak izateaz gainera behar bezala frogatuta egongo dira.

2. Familiaren esparrua

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

Familien aurreko jarduerak drogen kontsumoak eta kontsumo horretatik etorririko arazoei aurrea hartzeko xede dute.

Familiekiko interbentzioek heziketa trebetasunak eta familiaren baitako komunikazioa sustatzea, gurasoen eskuduntzaren zentzua eta arazoak konpontzeko gaitasuna emendatzea eta osasun agente gisa duten egitekoaren garrantziaren aurrean ondo kontzientzia dute helburu.

Era berean, gurasoen inplikazioa bilatzen dute ikastetxearen edo inguruan garatzen diren gizarte ekimenen aurrean. Behar-beharrezkoa da familiak garatzen diren programetan parte hartzera bultzatuko duten bideak jorratzea. Xede horretan, soilik drogen aurreko prestakuntzara mugatu baino, gurasoen behar eta kezkei erantzun bat emateko orientatuta egon behar dute programa horiek, eta kasuan kasuko zirkunstantzietan egokitu behar zaizkie.

Gainera, lehentasuna eman behar zaie arazo anitzak dituzten familiekiko prebentzio-lanei, familia horietako seme-alabek jokabide okerrak izan ez ditzaten eta drogak kontsumitzen has ez daitezten. Beharrezkoa da, halaber, arrisku handiko seme-alaben gurasoak prebentzio programetan inplikatzeko, gizarte zerbitzuetatik koordinatutako jarduerak osatzeko eta heziketa esparrurik proposatutako helburuekin jarraitzeko.

Behar-beharrezkoa da parte hartzaileen behar eta ezaugarrietara egokitutako familientzako prebentzio programen sorta bat izatea. Programa hauek behar bezala neurtuak egongo dira, eta gizarte zerbitzuek, adin txikien arloko departamentuek, GBEek eta beste batzuek koordinatuta egongo dira.

3. Lan esparrua

Kontuan izanik azterketa epidemiologikoen arabera langileen alkohol eta tabakoaren kontsumo maila biztanle guztien batez besteko kontsumo mailaren gainetik dagoela, prebentzio izaerako interbentzioak eta programak egituratuko dira lan esparruan; interbentzio eta programa horiek nagusiki gizartean sendo sustraitutako sustantzien eta beste sustantzia mota batzuen kontsumoari aurre hartzeko interbentzioak izango dira, beti ere Plan Nazionalaren testuinguru eta metodologiaren arabera.

Prebentziorako jarduerak lehentasuna eman behar diete arrisku handiko langile taldeei eta ekoizpen sektoreei, baita hirugarrenengoentzako arriskutsuak gerta daitezkeen egitekoen arduradunei ere, esate baterako zerbitzu publikoetako ibilgailuetako gidariei, osasun arloko langileei, segurtasunaren profesionalei eta beste batzuei.

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

Behar-beharrezkoa da programa hauek nagusien, sindikatuetao ordezkarien eta prebentzio zerbitzuen parte hartzea izatea. Era berean, enpresetako segurtasun eta higie programetara jasoak egon behar dute programa hauek.

Programa hauek eduki beharreko jardueren artean, honako hauek dira aipagarri: informazioa, sentsibilizazioa eta orientazioa, drogen kontsumoak eragindako arazoak dituzten langileei tratamendua erraztea, zigortzeko perspektiba batetik ez baizik eta lan arriskuei aurre hartzeko testuinguru batetik lan eginda, eta agintari eta koadroen prestakuntza eta gaitasuna espezializatutako aholkularitzarekin.

4. Komunitatearen esparrua

Komunitatearen esparruko prebentzioak drogen kontsumoaren gehiegikerien aurkako eta osasunaren aldeko komunitatearen mezuak eta arauak sendotu behar ditu.

Komunitateko erakunde eta elkarten mobilizazioa, inplikazioa eta parte hartzea bultzatzeko dira komunitatearen esparruko interbentzio hauek beharrak zehazteko eta erantzun egokiak emateko xedean. Horretarako, behar-beharrezkoa da gizarte bitartekarien gaitzea.

Komunitate mailako programa hauek irekiak behar dute izan, inguruan garatzen diren beste programek lagundurik egon behar dute – eskola programak, familia eta lan programak, ...-, alderdi asko zaindu behar dituzte eta taldeen ezaugarrietara egokituta egon behar dute. Eskola programak aplikatzen diren komunitateetan, komunitate mailako interbentzioak ikastetxeen zabaltzea eta ikastetxeak inguruko beste baliabideekin lotzea bilatu behar du, besteak beste, eskolatik kanpoko jarduerak sustaturik. Era berean, olgeta eta aisialdirako alternatibak eta kale heziketa bilatzen duten interbentzioak bultzatuko dira.

Bestalde, komunitate jakin batean garatzen diren drogen aurreko politikek biztanleen ezaugarrietara egokitzeaz gainera horien oniritzia jaso behar dute.

Behar-beharrezkoa da komunitateko ekimenek halako bermea edukitzea alderdi teknikoei dagokienez; adituek jarduerak bideratu eta jarduera horiek neurtzen lagundu behar dute.

5. Gizarte komunikazioaren esparrua

Hasteko, esan dezagun beste esparru baten modura jasotzen den arren, beste interbentzio esparruetan sartzeko balio estrategiko handia duela; horregatik eman behar zaio duen zeharkako dimentsioa. Halatan,

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

esparru honetara jasotzen dira gizartea sentsibilizatzeko eta gizarteari informatzeko kanpainak eta gizarteko hedabideekiko harremanak eta ekintzak.

Kanpainei dagokienez, agerikoa da kanpaina hauek prebentzio ekintzaren oinarria izan behar ez dutena, nahiz eta gainerako ekintzen sendogarri edo oinarri izan daitezkeen. Oso erabilgarriak izan daitezke beren mezuak biztanle talde zehatz bati zuzenduak direnean eta mezuek ezaugarri jakin batzuk dituztenean: positiboak, ez moralistak ez dramatikoak, informazio argi eta objektiboak eskaintzen dituztenak, alternatibak eta beste batzuk eskaintzen dituztenak.

Gizarteko hedabideei dagokienez, itxura batean oso komenigarria ematen du aurre hartzeko ekintza eta programak sendotzea ekar dezaketen ekintzak sustatzea. Mezuak gizarteratzeko duten indarra eta gizarte iritzia osatzeko duten indarra aitorturik, informazio arina, argia eta benetakoa eskaini behar zaie drogen kontsumoarekin eta droga-mendekotasunekin zerikusia duten alderdi guztien inguruan, eurak ere baldintza berdinak izan ditzaten arazoa gizartean ezagutarazteko orduan.

Era berean, hedabideen sostengua bildu beharra dago gizarteak droga-mendekotasunen aurrean duen iritzia fenomenoaren errealitateetik gertuago egon dadin, eta egun dauden aurreiritziak bazterrera utz ditzan.

6. Osasunaren esparrua

Heziketa osasungarriari begira taxutuko da osasun esparruko prebentzioa, beti ere osasun langileen bidez eta alkohol, tabako eta legez kanpoko drogen kontsumoarekin lotutako arazoak lehenbailehen hautemanez. Jarduera hauek funtsean lehen sorospentarako taldeek bideratuko dituzte programa eta protokolo jakin batzuk burura eramanez.

7. Beste esparru batzuk

Badira, beren ezaugarri bereziengatik, gizarte talde ezberdinekin bizikidetzak komunitateak osatzen dituzten erakunde batzuk, eta hauek prebentzio izaerako interbentzio zehatzak eskatzen dituzte, besteak beste honako hauek:

- Biztanle gazteak epe luze xamarretan biltzen dituzten zentroak (gazte egoitzak, etab.)
- Osasuna zaintzeko ikuspegi baten bidez prebentziorako interbentzio integralak bideratu daitezkeen presondegiak.
- Adin txikikoak babesteko eta gaitzeko zentroak.

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

1.3. Helburu orokorrak


- √ Biztanleak ondo informatuta edukitzea tabakoaren, alkoholaren eta mendekotasuna eragiteko gai diren edo kontsumitzen dituztenentzat arriskutsuak izan daitezkeen beste sustantzien kontsumoak dituen arriskuen aurrean.
- √ Ikasle gehienak, derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan, informazio objektibo nahikoa eta prestakuntza egokia jaso izana drogen erabilera eta gehiegizko erabileraren ondorioei dagokienean. Eta nahikoa trebetasuna, gaitasuna eta iaiotasuna izatea drogekiko harremanari modu eraginkorrean ekiteko.
- √ Komunitate jakin baten arrisku eta babes mailak neurtzeko modua eskain dezaketen eta interbentzioen eraginkortasunaren neurketa erraz dezaketen tresnak garatzea.
 - 2003. urterako irizpideak zehaztuta egongo dira eta komunitate esparruetako babes eta arrisku mailak neurtzeko tresnak prest egongo dira. Horiek eskura, Autonomia Erkidego guztiek eta Ceuta eta Melillako hiriek jarduerarako halako lehentasuna duten eremu edo aldean mapa bat izango dute.
 - 2003. urtean, Diputazioen eta 20.000 biztanletik gorako Udalerri eta Mankomunitateen %50ek onartuta eduki behar dituzte Drogen aurreko Tokiko Planak, eta hauek droga-mendekotasunei aurre hartzeko programak jaso behar dituzte beren baitara. Portzentaje horrek %100era iritsi behar du 2008. urtean.
- √ Gizarte Zerbitzu, Ikasleen Gurasoen Elkarte (AMPAS) eta beste Gizarte Erakundeekin elkarlanean, eskuarki familiei eta bereziki arrisku handia dutenei zuzendutako prebentzio programak sustatu behar dira.
 - 2003. urtean Drogen aurreko Tokiko Planen %50ek familia mailako prebentzio ekintzak garatu behar dituzte komunitateko prebentzio programen barruan. Portzentaje horrek %100era iritsi behar du 2008. urtean.

**2. AZTERKETA
SOZIO-
DEMOGRAFIKOA
ETA EKIPAMENDU
SOZIO-KULTURALA**

2.A. AZTERKETA SOZIODEMOGRAFIKOA

• EGUNGO BIZTANLERIA

Irungo udalerrriak 56.601 biztanle ditu, eta horrenbestez, Gipuzkoako bigarren udalerrria da biztanleria kopuruari dagokionean.



• BIZTANLERIA DENTSITATEA

Gure udalerrriaren azalera 42,8 Km²-koa da, eta horrenbestez, egungo biztanleria dentsitatea 1.322,45 biztanle/ Km²-ko da.

2001. urtean, Km²-ko 1.322,45 biztanleko dentsitate demografikoa zuen Irunek, Gipuzkoakoa (340) eta E.A.E.koa (288) baino lau aldiz handiagoa.

1. Taula. Biztanleria eta dentsitate demografikoa 2001ean


	AZALERA (Km ²)	BIZTANLERIA		DENTSITATEA
		V.A.	% GUZTIZ/G	BIZT./Km ²
IRUN	42,8	56.601	2.72	1.322,45
GIPUZKOA	1.980	673.563	32.34	340,18
E.A.E.	7.234	2.082.587	100	287,89

Fuente: Eustat.

• BIZTANLERIAREN BILAKAERA

1. Grafikoa. Irungo biztanleriaren bilakaera (1900-2001)

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA



Iturria:

Eustat.

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

Hona hemen biztanleriaren bilakaeraren ezaugarriak:

- Biztanleriak nabarmen gora egin zuen 1950etik 1970 arteko epe laburrean, denboraldi horretan biztanleria bikoiztu egin baitzen.
- Laurogeigarren hamarkadatik aurrera biztanleriak geldialdia izan zuen, E.A.E.ko gainerakoan eta lurralde europar askotan gertatu den bezala, hezkunde begetatiboa ia hutsa eta negatiboa ere izan baitzen.

Azken hamabost urte hauetan Irunen %4,71 gora egin du biztanleriak, eta bilakaera hori oso positibotzat hartu behar da Gipuzkoako eta E.A.E.ko guztizkoarekin alderatzen badugu, horiek %2,27 eta %2,5 behera egin baitute, hurrenez hurren.


2. Taula. Biztanleriaren bilakaera (1986-2001)

	1986	1991	1996	2001	Bilak. 01/86
IRUN	54.053	53.276	55.094	56.601	%4,71
GIPUZKOA	689.220	676.307	678.393	673.563	-%2,27
E.A.E.	2.136.100	2.104.041	2.097.754	2.082.587	-%2,50

Fuente: Eustat.

Azken bost urteak aztertzen baditugu, E.A.E.an biztanleriak behera egin du (-%0,71), Gipuzkoan egin duenaren hein berean (%0,71). Irunen, aldiz, biztanleriak %2,73 gora egin du.

2. Grafikoa. Biztanleriaren bilakaera (1986-2001)



Iturria: Eustat.

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

• BIZTANLERIAREN BANAKETA ADIN-MULTZOEN ARABERA.

3. Taula. Biztanleriaren banaketa adin-multzoen arabera.


Adina Urtea	0-19 URTE		20-64 URTE		65 URTE		GUZTIRA V.A.
	V.A.	%	V.A.	%	V.A.	%	
1981	18.612	35,0	30.080	56,5	4.533	8,5	53.225
1986	16.993	31,4	31.563	58,4	5.487	10,2	54.043
1991	14.322	26,9	32.472	60,9	6.487	12,2	53.281
1996	11952	21,7	35.227	63,8	8006	14,5	55.185
2001		18,1		65,1		16,8	56.601

Iturria: Eustat

Hemen jasotako datuen arabera:

- 0-19 urte arteko multzoan etengabean murrizketa handia gertatu da, 1981 - 2001 arteko denboraldian ia erdira jaitsi baita.
- 20-64 urte arteko multzoak zertxobait gora egin du, gaur egun 8 portzentaje-puntu gehiago baititu 1981ean baino.
- 64 urtetik gorako multzoak, berriz, etengabe gora egin du, azken 20 urte hauetan bikoiztu egin baita.

3. Grafikoa. Irungo biztanleriaren banaketa adin multzoen arabera (1981-2001)




Iturria: Udal errolda

IRUNGO II MENPEKOTASUNAREN PLAN LOKALA

- BIZTANLERIAREN BANAKETA ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA.**

4. Grafikoa: Biztanleria piramidea. Irun 2002-12-16.




Iturria: Udal errolda.

- BIZTANLERIAREN BANAKETA AUZOEN ARABERA**

Irunek dituen hamazazpi auzo/eremuetatik, biztanle gehien dituzten bost auzo hauetan biltzen da biztanleriaren %50. Hona: **Elitxu-Lapitze** (%12,2), **Anaka** (%11,7), **Artia** (%10,2), **Larreaurdi** (%9,2) eta **Erdialdea** (%8,1).

5. Grafikoa: Biztanleriaren banaketa auzoen arabera. Irun 2002/12/16.



Iturria: Udal errolda.


Gaztedi proportzio handieneko auzoak hauek dira:

20 urtetik beherakoak guztizko biztanleriaren %31,4 dira eta banaketari dagokionean alde handiak daude auzo desberdinetan. Adin multzo horrek portzentaje handiago ageri du **Urdanibiako herrigunean** (%24,2), **Dunboan** (%22,9), **Katean** (%22,4) eta **Arbesen** (%20,9). Alderantziz, berriz, jende gazte gutxiago bizi da **Alde Zaharrea** (%13,3), **Behobian** (%14,4), **Pinudian** (%14,6) eta **Elitxu-Lapitzen** (%14,7).

• BIZTANLERIAREN MUGIMENDU NATURALA

Biztanleriaren mugimendu naturalak zehazten ditu, migrazio-mugimenduekin batera, biztanleriaren gorabeherak.

6. Grafikoa: Bizirik jaioen, hildakoen eta hazkunde begetatiboaren bilakaera. Irun 1986-2001.




Iturria: Eustat.

Biztanleriaren bilakaera, eta bereziki, adin multzoen arabera biztanleriaren banaketa ulertu ahal izateko, beharrezkoa da jakitea 1976. urteaz geroztik jaiotzeek behera egin zutela nabarmen, jaiste hori 80. urteen amaieran gelditu zen, eta orduz geroztik, mantendu egin da, 1998tik 2001era zertxobait gora egin badu ere.

Euskadin, milako jaiotzeen kopurua 8,5ekoa da 2001ean. 50. urteetan kopuru hori milako 20tik gorakoa zen eta Espainiakoaren gainetik zegoen. Orduz geroztik, etengabe behera egin du, 70. urteen bigarren erdialdean eta 80. urteen lehen erdialdean nabarmenagoa izan bada ere, gaur egungo egoerara iritsi arte, gaur egun Espainiako batez bestekoaren azpiko tasak baititugu.


Jaiotze-tasaren bilakaera Autonomia Erkidegokoaren oso antzekoa izan da Irunen ere, tasa hori %20koa izan zen 1976an. 2001ean %8,9koa da, eta horrenbestez, Gipuzkoakoaren azpitik dago (%9,1), baina Autonomia Erkidegokoaren gainetik (%8,5).

7. Grafikoa: Bizirik jaioen kopuruaren bilakaera. Irun 1975-2001.



Heriotzei dagokionean, aipatzekoa da zertxobait gora egin dutela azken urte hauetan, eta hori gertatzen ari da adineko biztanleria areagotu egin delako gaixotasunen prebentzioan eta tratamenduan lortu diren aurrerapenen ondorioz. 1996an heriotza-tasa %8,1ekoa bazen, 2001ean %9koa da.

Jaiotze ordenari dagokionean, hau da, emakume batek guztira izandako seme/alaben segida kronologikoaren barnean jaiotako batek okupatzen duen lekuari dagokionean, 2000. urtean Irunen jaiotakoen %93 1. edo 2. seme/alabak ziren.



8. Grafikoa

4. Taula: : Jaiotza, heriotza eta hazkunde begetatiboaren tasak 2001ean.

	IRUN	GIPUZKOA	E.A.E.
Jaiotza-tasa ‰	8,9	9,1	8,5
Heriotza-tasa ‰	5,9	8,5	8,6
Hazk. begetatib. tasa ‰	3	0,6	-0,1

Iturria: INE.

Aipatzekoa da hazkunde begetatibo positiboa izan dela gure udalerrian (‰3) eta Gipuzkoan (‰0,6), hazkunde negatiboa, berriz, E.A.E.n (-‰0,1).


• **BIZTANLERIAREN BANAKETA JAIOTAKO LEKUAREN ARABERA.**

5. Taula: Biztanleriaren banaketa jaiotako lekuaren arabera.

	B.A.	%
IRUN	21.905	39,63
HONDARRIBIA	1.612	2,92
DONOSTIA	10.452	18,9
HERRIALDEAREN GAINERAKOA	3.018	5,46
ARABA	271	0,46
BIZKAIA	792	1,36
NAFARROA	2.281	3,91
ESTATUAREN GAINERAKOA	15.313	26,25
ATZERRIA	2.698	4,62

GUZTIRA	58.342	100,00
----------------	---------------	---------------

Aipatzekoa da inmigranteen tasa handia dela (‰30,64) Gipuzkoarekin (‰20,8) eta E.A.E.arekin (‰26,2) alderatuta. Era berean, aipatzekoa da inmigrante gehienak Gaztela-Leon eta Extremaduratik etorriak direla, eta askoz ere gutxiago Andaluziakoak eta Galiziakoak.



Iturria: Udal errolda.

9. Grafikoa

• **MIGRAZIO MUGIMENDUAK**

6. Taula: Migrazioak klaseen arabera. Irun 1994.

		Inmigrazioa	Emigrazioa
E U S K A D I	GIPUZKOA	855	512
	BIZKAIA	13	6
	ARABA	67	34
A.E. GAINERAKOA		603	677
ATZERRIA		297	71
GUZTIRA		1.835	1.300


Oro har, migrazio-saldo positiboa ikus daiteke, hau da, gure udalerrira bizitzera etortzen diren pertsonak gehiago dira Irundik kanpora bizitzera joan diren irundarrak baino.

Halaz ere, kanpo migrazio-saldo negatiboa nabari da, eta horrek esan nahi du Estatuko beste komunitate autonomo batzuetatik Iruna bizitzera etorri diren pertsonak gutxiago direla gure hiritik joan diren irundarrak baino.

• **FAMILIAK**

1996an 18.382 familia ziren Irunen, eta familia bakoitzak 2,99 kide zituen batez beste, eta zifra hori Gipuzkoakoaren (3,07) eta EAEaren (3,04) antzekoa da oso.

10. Grafikoa: Biztanleriaren banaketa familia² motaren arabera. Irun 1991.



Iturria: Eustat

² **Familia mota.** Kontuan harturik familia nukleoa dagoen ala ez, honako familia mota hauek bereizten dira:

- *Pertsonabakarra:* ez du familia nukleorik eta pertsona bakarrak osatua da.
- *Konposatua:* honek ere familia nukleorik ez du, eta pertsona bat edo gehiagok osatua da, senitartekoak izan daitezke ala ez.
- *Nuklearra seme/alabarik gabe:* seme/alabarik gabeko senar-emazte batzuek osatutako familia nukleoa.
- *Nuklearra seme/alabekin:* seme/alaba ezkongabeak dituzten senar-emazte batzuek osatutako familia nukleoa.
- *Gurasobakarra:* seme/alaba ezkongabeak dituen aita edo ama batek osatutako familia nukleoa.
- *Handitua:* edozein eratako familia nukleoa, familia horrekin ahaide bat edo gehiago bizi direnean.
- *Polinuklearrak:* bi familia nukleo edo gehiago.

• **IKASKETA MAILA**

7. Taula: 10 urteko edo gehiagoko biztanleriaren portzentaje-banaketa ikasketa mailaren arabera. 2001.

	IRUN	GIPUZKOA	E.A.E.	B	A
Analfabetoak	0,8	0,7	0,7	0,9	0,5
Ikasketarik gabeak	4,5	5,7	5,3	5,7	4,6
Eskolaurrea eta oinarrizkoak	50	48	48	47,3	49
Lanbide heziketa	16	15,3	14,8	14	15
Bigarren mailakoak	16,8	15,5	15,8	15,9	15,9
Erdi/Goi-mailakoak	4,9	5,9	6	5,9	6,2
Goi mailakoak	6,6	8,7	9	10	8,6


Horrenbestez, gure udalerrian:

- Goi-mailako ikasketen maila bi puntu txikiagoa da (%6,6) Gipuzkoakoa (%8,7) eta E.A.E.koa baino (%9).
- Erdi/goi-mailako ikasketen maila puntu bat txikiagoa da Gipuzkoakoa eta E.A.E.koa baino.
- Ikasketa profesionalen eta bigarren mailako ikasketen maila puntu bat handiagoa da Gipuzkoakoa eta E.A.E.koa baino.
- Lanbide Heziketaren maila puntu 1 eta puntu 1,5 handiagoa da Gipuzkoa eta E.A.E.rekiko, hurrenez hurren.
- Oinarrizko Ikasketen edo txikiagoen maila puntu bat handiagoa da Gipuzkoakoa eta E.A.E.koa baino.

Labur adierazteko, Gipuzkoan eta E.A.E.an baino lizentziatu eta diplomatu gutxiago dago, baina Lanbide Heziketa edo bigarren mailako ikasketak dituzten jende gehiago, gehiengoak oinarrizko ikasketak soilik dituen hiri batean.

• **IRAKASKUNTZA EZ UNIBERTSITARIOA**

11. Grafikoa: Ikasleria irakaskuntza maila eta hizkuntza ereduaren arabera. Irun 96/97.



	A EREDUA	B EREDUA	D EREDUA
HAUR HEZKUNTZA I eta II	145	806	1019
LEHEN HEZKUNTZA	136	1151	1317
DBH	179	1001	682
DBHO	1679	119	405


Iturria: Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria Arloa.

8. Taula: Hezkuntza ereduak.

17 urtetik beherako ikasle gehienek euskaraz ikasten dute (B eta D ereduak), 17 urtetik gorakoetan, berriz, (Batxilerra eta C.T) irakaskuntza gaztelaniaz da nagusi (A ereduak).

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilerra eta prestakuntza zikloak ikasten dituzten 9.077 ikasleetatik: %28,4k A ereduan ikasten du, %33,9k B ereduan eta %37,7k, berriz, D ereduan, honako xehekapen honen arabera:

12. Grafikoa: Hizkuntza ereduaren portzentaje-banaketa irakaskuntza maila ez unibertsitario desberdinetan.




Iturria: Hezkuntza, Kultura, Kirola eta Gazteria Arloa.

• **UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZA**

00/01 ikasturtean Irungo 1164 ikasle matrikulatu dira Euskal Herriko Unibertsitatean: → Gipuzkoan 867
 → Bizkaian 216
 → Araban 81

Udalerrri honetako ikasleek gehien aukeratzen dituzten karrerak Industri Ingeniaritza Teknikoa, Enpresa Ikasketak, Maisutza eta Zuzenbidea dira, horiek hartzen baitute Irungo ikasleek guztira egiten dituzten karreraren %49.

13. Grafikoa: Irungo ikasleen banaketa EHU. 00/01 ikasturtea.



• **LANGABEZIA**

2002ko irailean INEMen izena emana zuten langabetuen kopurua 2.551 lagun ziren, eta horrenbestez, langabezia-tasa %10,88koa da, Gipuzkoakoa baino 3,16 puntu handiagoa.

9. Taula: Langabezi maila. 1997ko ekaina.

	2002ko IRAILA	
	B.A.	TASA
IRUN	2.551	10,88
HONDARRIBIA	485	7,55
ESKUALDEA	3.036	10,16
GIPUZKOA	20.711	7


Iturria: INEM.

Langabezia-tasak eskualdeen arabera argitaratzen dira, eta Hondarribiako langabezia-tasa (%7,55) gure udalerrikoa baino txikiagoa bada ere (%16,30), 2002ko irailean, gure Bidasoa Txingudi eskualdea

lehen tokian zegoen Gipuzkoan eskualdeen arabera argitaratutako tasen rankingean, atzetik Donostia - Lasarte dator %8,7, eta ondoren Oiartzualdea, %7,6. Aldiz, Debagoiena %3,9 eta Goierri %4,8 dira langabezia-tasa txikiena duten eskualde gipuzkoarrak.

Bestalde, aipatzekoa da, gure udalerrian 1995. urteaz geroztik langabezia-tasak behera egin bazuen ere, azken hiru urte hauetan egonkortu egin dela.


14. Grafikoa: Langabeziaren bilakaera. 1993-2002.



Iturria: INEM.

Langabeziak oraindik ere eragin handiagoa du emakumeengan (guztizko langabetuen %66), eta gazteengan, bereziki 25 - 29 urte artekoen eta kualifikazio txikiena dutenen kasuan.


15. Grafikoa: Langabezia adinaren eta sexuaren arabera. Irún 2002.



Fuente: INEM.

Ikasketa mailen arabera, OHO (%35,67) eta Eskola Ziurtagiria (%24,97) dutenen artean pilatzen da langabetu kopuru handiena.

16. Grafikoa: Langabezia ikasketa mailaren arabera. Irun 2002ko iraila.




Iturria: INEM.

- **POBREZIAREN AURKAKO PLAN INTEGRALAREN ONURADUNAK.**

Eusko Jaurlaritzak Pobreziaren Aurkako Plan Integrala (P.A.P.I.) abian jarri zuen 1989an. Orduz geroztik, arian-arian gora egin du Oinarrizko Errenta (O.E.), eta Gizarte Larrialdi Laguntza (G.L.L.), jasotzen duten familien kopuruak, lehenengoen neurri handiagoan bada ere.

17. Grafikoa: P.A.P.I.ren onuradun izan diren famili kopuruaren bilakaera. Irun 1989-2002.




Iturria: Osasuna eta Gizarte Zerbitzuen Arloa.

89-92 bitartean G.L.L. jasotzen zuten familiak gehiago ziren O.R. jasotzen zutenak baino, eta 1992an gertatu zen gaur egun arte mantendu den alderantzaketa hori. Aipatzekoa da prozesu hori, alderantzaketa gertatu zen urtea barne, antzekoa izan dela Gipuzkoan eta E.A.E.an.

Urtero Plan horren onuradun diren familia kopuruari dagokionean, ematen diren edozein laguntzaren bidez, aipatzekoa da kopuru hori bikoiztu egin dela 1989tik 2002ra.

2002an atenditutako 526 familietatik, %28ak O.R. jaso zuen; %24ak G.L.L.; eta %48ak biak jaso zituen.

18. Grafikoa: P.A.P.I.ren bidez jasotako dirulaguntza motaren bilakaera. Irun 1989-2002.



Iturria: Gizarte Ongizate Arloa.

Jasotako laguntza motari buruz, 1989ko datuekin konparatuz O.R.ri dagokionez kopurua bikoitza bainon gehiagora handitu da, eta G.L.L. kopurua berriz %28 handitu da. Azpimarratzekoa da jasotako O.R. + G.L.L. %64,7 a dela.

2.B.- EKIPAMENDU SOZIOKUTURALA

Ekipamendu soziokulturalak dira prebentzioaren ikuspegitik, pertsonen garapen integrala alderdi fisiko, psikiko nahiz sozialetik bultzatzen duten elementuak sortzeko aukera ematen duten espazio, instalazio, elkarte eta talde guztiak.

Horretarako, ekipamenduak honela sailkatzen ditugu:

- Hezkuntza ekipamendua.
- Kirol eta solaserako ekipamendua.
- Kultur eta auzo ekipamendua.
- Osasun ekipamendua.
- Asistentzia ekipamendua.
- Ekipamendu erlijiosoa.

• HEZKUNTZA EKIPAMENDUA

IKASTETXEAK

Irungo udalerrian, eta 2002-2003 ikasturterako hezkuntza arautuaren eskaintzari dagokionean, honako hezkuntza maila hauek daude:

- Haur Hezkuntza (1. eta 2. zikloak)
- Lehen Hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa (Batx. CFGM, CFGS, etab.)

10. Taula: Ikastetxeen banaketa mailaren arabera. 2002/2003 ikasturtea

MAILA	Guztira		Ikast. Publikoak		Ikast. Pribatuak	
	Kop.		Kop.	%	Kop.	%
Haur Hezkuntza I eta II	25		11	44	14	56
Lehen Hezkuntza	11		7	63,6	4	36,4
Derrig. Bigarren Hezkuntza	8		4	50	4	50
Der. Bigar. Hezk. Ondokoa	13		7	53,8	6	46,1
GUZTIRA	57		29	50,9	28	49,1

Ikus daitekeen bezala, eta irakaskuntza arautuari dagokionean, ikastetxe publikoen eta pribatuen kopurua ia berdina da gure udalerrian, hauxe da, %50,9 publikoak eta %49,1 pribatuak.

Alderik handiena haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeen artean dago. Haur hezkuntzan zentro pribatuak %56 dira, eta publikoak, berriz, %44. Lehen hezkuntzan zentro pribatuak %36,4 dira, eta zentro publikoak, berriz, %63,6.


EUSKALTEGIAK

Udalerrian hiru euskaltegi daude, eta horietan euskara irakasten da maila guztietan. Bat publikoa da, Udal Euskaltegia, eta beste biak pribatuak. (ARK, EOI, eta Nafarroa Hiribidekoa).

HELDUEN HEZKUNTZA IRAUNKORRA

Adin helduan beren ezagutzak hobetu nahi dituzten pertsona guztientzako da helduen hezkuntza iraunkorra. Udalerrian badago ezaugarri horiek dituen zentro bat. Bertan prestakuntza lanak eramaten dira aurrera, hauxe da, eskola agiria lortzea, alfabetatze funtzionala, hezkuntza osagarria eta abar.

• KIROL ETA SOLAS EKIPAMENDUA



KIROL ELKARTEAK

Udalerrian kirol elkarte ugari dago, 47 inguru. Era askotako kirolak sustatzen dituzte elkarte horiek, mahai-tenisetik hasi eta urpekaritzarekin buka, errugbia ere tartean.

Hainbat kirolen sustapenari dagokionean, udalerrian dagoen eskaintza ikusiko dugu ondoko taulan.

11. Taula: Kirol Elkarteen jarduerak.

JARDUERA	Kop	JARDUERA	Kop	JARDUERA	Ko
Aisiarako jarduerak		Motor kirolak		Mountan bike	
Xakea		Futbola	12	Igeriketa	2
Arte martzialak		Areto Futbola		Patinajea	
Atletismoa	1	Gimnasia Artistitkoa		Euskal Pilota	2
Automodelismoa		Gimnasia Erritmikoa	2	Piraguismoa	1
Saskibaloia	2	Halterofilia		Irratikontr. eta mod	1
Eskubaloia	2	Herri Kirolak	1	Arrauna	1
Beisbola/Sofbola	1	Hipika	1	Errugbia	1
Boloak		Judoa	2	Surfa	2
Ehiza/Arrantza	1	Herri Joko eta kirolak		Tenisa	1
Ziklismoa	4	Karatea		Mahai-tenisa	1
Rallieak	2	Urpekaritza	1		

KIROL INSTALAZIOAK

Kirol instalazioaz zera ulertzen dugu: kirolgune batek baino gehiagok osatutako multzoa, fisikoki elkarren ondoan daudenak eta kudeaketa homogeneoa dutenak.

- Añjali yoga
- Bowling
- Txingudi Tenis Kluba
- San Martzial Tiro Kluba
- Jaizubia Hipika Kluba
- Urantzu Pilotalekua
- Kirola Gimnasioa
- Olaketa Gimnasioa
- Sarylen Gimnasioa
- Artaleku Udal Kiroldegia
- Stadium Gal
- Artiako kirol gunea (Artiako kiroldegia)
- Plaiandiko kirol gunea: errugbi zelaia eta atletismo pista.
- Futbol-zelaia.

BERDEGUNEAK

Hiri bateko berdeguneak aisiarako eta paseatzeko erabiltzen diren lekuak dira, zuhaitzez hornituak, eta hiri zoruetan edo zoru urbanizagarrietan daudenak soilik hartzen dira hiriko berdegunetzat.

Egungo legeriak (Zoru Erregimen eta Balorazioei buruzko 6/1998 Legea), hiriko elementu egituratzaile gisa garrantzi berezia ematen dio *Espazio Libreen Sistemari*. Lehenengo, espazio libre horiek parke eta berdegune publikoetarako erabiliko dira, hauxe da, ez dute eraiki gabeko espazio gisa hondar izaera soila izango. Eta bigarren, eta espazio libre horiek beharreko tamaina izan dezaten ziurtatzeko, Espazio Libreetarako Udal Sistema Orokorretarako gutxieneko zoru proportzio estandar bat zehazten da, hauxe da, 5 m² biztanleko.

Nolanahi ere, Espazio Libreen Sistema Orokorrean, bereizi egin behar dira hiriko parke publikoak eta kultur aisiarako, edo jolaserako (kirol parkeak, azokak, eta abar) erabiltzen diren eremu publikoak. Horrenbestez, biztanleko 5 m²-ko gutxieneko estandar hori lehen kontzepturako da.

1994an Irunen zeuden berdeguneen sistema orokorrek 276.800 m²-ko azalera hartzen zuten, gaur egun, berriz, 79.017 m² dira. Hona hemen berdegune horiek zein diren:

Maria Luisa Parkea.

Junkal Plaza.

Sargia Parkea.

Urdanibia Plaza.

Soroxarta Parkea.

Antzaran Parkea.

Ducoureau Parkea.

Zabaltza Plaza

Iturria: Hirigintza arloa

Hornidura horiek 197.783 m²-ko defizita sortzen dute biztanleko 5 m²-ko estandar egoki horri dagokionean. Defizit horri antolamendu proposamen berrirako beharreko 38.200 m²-ak gehitzen badizkiogu, guztira 235.983 m²-ko defizita egongo litzateke sistema orokorreko berdeguneetan.

Plan Orokor honetan jasotako antolamendu proposamenean biztanleko 318.091 m² arteko igoera aurreikusten da honako berdeguneen sistema orokor hauekin:

Jaizubiako Parkea

Fosforera-AzkenPortu

Muga-Behobia

M^aLuisa Parkea Handitzea

Osinbiribil Parkea

Gain-Gainean Parkea

Oñako Baroia Parkea

Alai-Txoko Parkea

Iturria: Hirigintza Arloa

Horrenbestez, proposaturiko 318.091 m² berdeguneei, jada daudenak gehitzen badizkiegu (79.017 m²), 397.108 m² ditugu guztira, hauxe da, 6,85 m²/bizt., eta horrek ia heren bat baino gehiagoan gaintitzen du Zoruaren Legeak zehaztutako gutxienekoa (5m²/biztanleko).

- **KULTUR ETA AUZO EKIPAMENDUA**

KULTUR ELKARTEAK

Beren helburu nagusien artean kultura, aisia, denbora libre eta abar sustatzeko jarduerak dituzten elkarteak jaso ditugu atal honetan.

12. Taula: Kultur elkarteak.

ELKARTEAK	K O P .
Gastronomikoak-Kulturalak	18
Ekologikoak, Bakezaleak	2 + 3
Fotografikoak	1
Folklorikoak, Dantzak	15
Ornitologikoak	2
Filatelikoak	1
Kultur Hedapena	12
Emakumeen elkarteak	4
Gazteen elkarteak	19
Musika difusioa	15
Auzo Elkarteak	20
Guztira	112

Taulan ageri den bezala, udalerrian 19 gazte elkarte daude, bereziki gazteentzako direnak. Elkarte horien jatorria ere aipatzekoa da, 9 erlijio izaerakoak baitira eta 10 bestelakoak.

Era berean, aipatzekoa da, gure udalerrian auzoetan ematen den elkartzeko mugimendua, 20 auzo elkarte baitira Irunen. Mugimendu hori era guztietako egoeretatik pasa da, izan ere, hasierako garaietan errebendikazio kutsu nabarmena zuen, baina gero halako moteltze etapa batera igaro da. Gaur egun, elkarte horien helburuak eta jarduerak aisialdia bultzatzeko ekintzak dira batik bat, eta aisiarako eta prestakuntzarako jarduerak antolatzen dituzte.

Jarduera kopuru handia eskaintzen diete auzokoei: liburutegia, eskulan ikastaroak, aretoko dantzak, takigrafia eta mekanografia, hizkuntzak eta abar, eta parte aktiboa hartzen dute era askotako ekitaldiak antolatzen: auzoko jaiak, christmas lehiaketak, xake txapelketak, txangoak, herri bazkariak eta abar.

13. Taula: Auzo Elkarteentzako Jarduera

JARDUERA	Elkarte kop.	%
Dantza	3	8.3
Manten. gimnasia	2	5.5

Hitzaldiak	2	5.5
Liburutegia	1	2.8
Jai, lehiaketa, eta abarren antolam.	16	44.4
Kirola	1	2.8
Yoga	1	2.8
Ludoteka	3	8.3
Esku lanak	1	2.8
Mahai-jokoak	3	8.3
Informatika	1	2.8
Antzerkia	1	2.8
Sukaldaritza lehiaketa	1	2.8

KULTUR INSTALAZIOAK

Izaera soziokultural nabarmena duten eta, oro har, hiritar guztien erabilerarako instalazioei begira, udalerrian dagoen eskaintza jaso dugu atal honetan.

- Udal Marrazki eta Pintura Akademia.
- Arkeolan: Ikerketa Historiko – Arkeologikoen Zentroa
- Udal Ikasketa Gela – Udal Liburutegia
- Udal Artxiboa
- Auzoetako liburutegiak. kop.= 8
- Kateako Zentro Zibikoa
- Amaia Kultur Zentroa.
- Gizarte Zentroa – Jubilatuen Etxea
- Oscar Zineak
- Udal Kontserbatorioa.
- Kokoska Arte Galeria
- Luis Marianoko Jubilatuen Etxea
- Kunsthal – Artea Plastiko eta Diseinu Zentroa

- Auzo Elkarteen lokalak. Kop.= 20
- Dumboa Auzo Elkartearen, Lapitzeko eta San Migueleko ludotekak.
- "Ama Xantalen" Ermitako Museo Erromatarra.
- Zeramika tailerra.
- Udalaren Gizarte Ongizateko Ekitaldi Aretoa
- Euskadiko Kutzaren Erakusketa Aretoa.
- Erakustazokako Auditorioa
- Mendibil Merkataritza Guneko zineak

PROIEKTUAN DAUDEN KULTUR INSTALAZIOAK

- Oiasso Erromanizazio Museoa

• OSASUN EKIPAMENDUA

Osasun mailan udalerrian dagoen izaera publikoko ekipamendua jaso dugu atal honetan.

14. Taula: Osasun Zentro Publikoak

OSASUN ZENTROAK	
Ospitalea	1
Lehen Mailako Arretarako Zentr.	2
Osasun Mentalerako Zentroa	1

Iturria: Gizarte Ongizate Arloa

• ASISTENTZIA EKIPAMENDUA

Hiritarrei, oro har, beren komunitatearen esparruaren barnean bizi normalizatua aurrera eramateko beharreko baliabideak eskaintzeko ekipamenduak jaso ditugu izen honen baitan. Xede horri begira sortutako ekipamenduek eta zerbitzuek, oro har, hiritarren alorrean lan egiten dute, baina egoera batzuetan edo kolektibo jakin batzuen aurrean berezitasun handiagoa duten baliabideak sortzen dira, horiek sortzen edo jasaten dituzten arazoak bereziak direlako.

Horien artean, aipatzekoa da 3. adina deitzen den kolektiboa. Adin horri begira, ondoko taula honetan jaso ditugun zerbitzuak eskaintzen dira udalerrian:

15. Taula: 3. Adinekoentzako zerbitzuak.

3. ADINEKOENTZAKO ZERBITZUAK	
Zaharren egoitza	5
Jubilatuen etxea	3
Eguneko zentroa	3
Etxebizitza Egoitzak	5

Iturria: Gizarte Ongizate Arloa

Bestalde, aipatzekoa da, udalerrian, alor komunitarioaren barnean, lan handia egiten dutela gizarte boluntarioen elkarrekin.

• ERLIJO EKIPAMENDUA

Atal honetan aipatzekoa da udalerrian bederatzi eliza katoliko kulturako daudela eta beste kultu batzuetarako erabiltzen diren hiru lokala daudela.

**3. DROGA
KONTSUMOAREN
BILAKAERA ETA
LAGUNTZA JASO
DUTEN
HIRITARREN
BILAKAERA**

3.A. DROGA KONTSUMOAREN BILAKAERA

SARRERA

Substantzia desberdinen kontsumoaren azterketa epidemiologikoa funtsezko elementua da drogamenpekotasunari buruzko politika orokorrek dituzten ondorioak baloratzeko. Beharrezkoa da hasierako egoera, denboran zehar fenomenoak egiten duen bilakaera eta etorkizunari begira sortzen ari diren joerak (drogen kontsumoa bezalako ausazko esparru batean etorkizun ikuspegia izan daitekeen neurrian beti ere) ezagutzea.

Horregatik, gure Komunitateko egungo droga kontsumoen hurbilketa bat aurkeztuko dugu atal honetan, eta azaldu egingo ditugu, era berean, azken urteetan ematen ari diren portaera aldaketak.

Azterketa hau egiteko, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako azken azterketak hartu ditugu kontuan (Euskadi eta Drogak 2000 eta Gazteak 2001), aurreko urteetan gure Komunitatean eginiko azterketekin alderatzen baitituzte aurkezten dituzten datuak. Era berean, udalerrri honetan egin eta 2001. urtean argitaratu zen azterketaren “Drogen kontsumoa (tabakoa, alkohola eta legez kanpoko drogak) Irungo ikasleen artean” datuetatik ateratako ondorioak eskainiko ditugu atal honetan.

TABAKOA ETA ALKOHOLA

Alkohola eta tabakoa dira instituzionalizaturiko bi droga bakarrak, eta horiek dira, halaber, gehien kontsumitzen direnak. Bien erabilera aldatzen ari dira, baina esan dezakegu azken urte hauetan ez dela benetan funtsezko aldaketarik izan.

Tabakoari dagokionean, gogoratzekoa da 2001. urterako, Europako Parlamentuak berretsitako Direktibak hiritarren artean tabakoaren kontsumoa murrizteko politika eta neurriak ezartzera behartzen zituela Europako Batasuneko Estatu kideak, eta horretarako, lege murrizgarriak ezarri behar zituzten hainbat puntu arautzeko, hauxe da, tabakoaren erabilera eta adin txikikoek tabakoa eskuratzeko aukera; tabakoaren publizitatea debekatzeko; tabako kaxetan osasun mailako ohartarazpenak ipintzea; leku publikoetan tabakoaren erabilera galaraztea... Era berean, gizon eta emakumeei zuzendutako

kanpainak antolatu behar dituzte tabakismoaren kontrol politikak publikoki bultzatzeko.

Joan den 2002. urtean erregulatu dira tabakoaren sustapen, publizitate, salmenta eta kontsumorako kontrol arauak, baina 2007. urtea arte itxaron beharko dugu Europako Parlamentuak berretsitako Direktiban jasoriko alderdi guztiak arautzen dituen araudia bete dadin.

Kontsumoan izan den bilakaerari dagokionean, 1980. urteaz geroztik kontsumo horrek nabarmen behera egin ondoren, azken urte hauetan egonkortu egin dela ikusten da. E.A.E.an egindako azterketa berrienen datuek erakusten dute euskal biztanleriaren %58,7k (15 eta 19 urte artean), noizbait erre duela bere bizitzan zehar, eta %38,6, berriz, ohiko erretzaileak dira.

Erretako tabako kopuruaren bilakaera E.A.E.an 1992-2002 bitartean egindako Euskadi eta Drogak txostenen arabera


	1992 (n=1895)	1994 (n=1358)	1996 (n=1358)	1998 (n=1793)	2000 (n=2000)	E eta D 2002 (n=2000)
Ez du erretzen	62,3	62,1	65,7	66,3	65,9	67,4
< 10	13,6	12,5	12,7	13,3	11,9	12,8
10-20	15,5	12,8	12,4	12,4	17,0	7,6
>20	7,3	12,6	9,2	6,0	5,2	12,2
N	1895	1358	1358	1793	2000	2002

16. taula

Iturria: *Euskadi eta Drogak saila*


Toki mailan, aipatzekoa da, 2001. urtean egindako “Drogen kontsumoa Irungo ikasleen artean” azterketan lortutako datuen arabera, oro har, gazteen artean egonkortu egin dela tabakoaren kontsumoa, zertxobait gora egin badu ere. Datu esanguratsua da gazteen %30ak soilik erretzen duela, eta horrek esan nahi du %70ak ez duela erretzen.

19. Grafikoa: Tabako kontsumoa. Irun 2001 Azterketa.



Irun 2001

20. Grafikoa: Tabako kontsumoak 1996 (EAE) eta 2001 (Irun) urteetan




“1/10 egunean

11/20 egunean

20tik gora egunean


esporadikoak

21. Grafikoa. EAEko biztanleriaren bilakaera 1992 eta 2002 urteetan, lanegunetan alkohola kontsumitzen duten edaleen arabera, ehunekoetan



Iturria: *Euskadi eta Drogak, 2002*

22. Grafikoa. EAEko biztanleriaren bilakaera 1992 eta 2002 urteetan, jaiegunetan alkohola kontsumitzen duten edaleen arabera, ehunekoetan



Iturria: *Euskadi eta Drogak, 2002*

Gazteen artean alkoholaren kontsumoak izan duen bilakaerari dagokionean, aipatzekoa da, oro har, kontsumoa murriztu egin bada ere, gazteak adin txikiagoan hasten direla edaten; lanegunetan ia ez da bat ere kontsumitzen eta asteburuetan askoz ere gehiago edaten da. Horrek elkarbizitzarako arazo handiak sortzen ditu gazteak edari alkoholodunak edateko biltzen diren leku publikoetan.


. 17. Taula. Alkohol kontsumo handiaren bilakaera gazteen artean EAEan
1990, 1992, 1994, 1996, 2001. urteak

	1990	1992	1994	1996	2001
Lanegunetan					
- Gehiegizkoa	1,8	1,9	1,7	0	1,3
- Izugarria	0,6	0,6	0	0,1	0,8
Jaiegunetan					
- Gehiegizkoa	18,2	15,5	11,4	12,3	10,1
- Izugarria	2,3	7,8	8,8	6,9	6,8
OINARRIA	1556	592	420	418	

Udalerriko gazteen arteko alkohol kontsumoari dagokionean, “Drogen kontsumoa Irungo ikasleen artean” azterketan jasotako datuen arabera, aipatzekoa da, ez dagoela alde handirik Autonomia Erkidegoaren gainerakoan ikusitakoarekin. Hona ateratako ondorioak:


- Gazteek asteburuetan edaten dute batik bat: %66 edaleak dira, neurri handiagoan ala txikiagoan, eta gainerako %34 abstemioak dira. Lanegunetan, berriz, neskek eta mutilek ez dute edaten, oso noizean-behin baizik.
- Mutilek neskek baino gehiago edaten dute, baina nesken artean gora egin du alkoholaren neurriko kontsumoak.

23. Grafikoa: Asteburuetako edaleak, generoaren arabera.



- Grafikoari erreparatzen badiogu, gehiegi edaten dutenen eta ustez alkoholikoak direnen %ak batzen baditugu, ikusiko dugu guztizkoa %40,3koa dela mutilen kasuan eta %33,1ekoa nesken kasuan; asteburuetan gehiegi edaten dutenen kopurua benetan handia da bi generoetan.
- 12 eta 13 urteko gaztetxoek arteko alkohol kontsumoak gora egin du, kezkatzeko moduan gora egin ere; adin horretako neska-mutikoen artean %6,4k gehiegi edaten dute.

24. Grafikoa: Asteburu eta edaleak, adinaren arabera



- Azken urte hauetan izugarri aldatu da gazteen artean kontsumitzen diren edarien mota: garagardoa litronetan, kopa, whisky txupito, txanpan kopa, sagardo eta konbinatu gehiago edaten dira orain. Azken horien kontsumoa oso handia da gazteen artean, asteburuetan hartzen dituzten edarien %57,2 osatzen baitute horiek.
- Kaleran gehien edaten duten gazteak 14 eta 18 urte artekoak dira. Halaz ere, adin horretako laurdena taberna eta dantzalekuetan sartzen da eta alkohola kontsumitzen dute.
- Oro har, neska-mutiek ezagutzen dute alkohola edateak duen arriskua, eta ezagutzen dituzte, era berean, osasunean dituen ondorio txarrak eta istripuak gertatzeko arriskua. Baina hala eta guztiz ere, ugari dira asteburu eta gehiegi edaten dutenak.

LEGEZ KONTRAKO DROGAK

Legez kontrako drogen kontsumoak pixkanaka-pixkanaka gora egin du azken urte hauetan, bereziki gazteen artean, eta jada sustraituriko eta, kasu batzuetan, gizartean normalizatutako fenomeno dela ere esan genezake.

Cannabisa da euskal biztanleriaren artean gehien kontsumitzen den legez kontrako droga: %25ak dio noizbait probatu duela eta %12,3k dio ohiko erabiltzailea dela; aipatzekoa da, azken urte hauetan gazteen artean izugarri gora egin duela droga horren erabilerak: %62k porroren bat erre du 20 urtetan, baina horietatik erdia baino ez da ohiko kontsumitzaile bihurtzen, hauxe da, EAEko gazteen %30. Halaber, aipatzekoa da, gero eta txikiagoa dela droga mota horrekin lehen kontaktua izaten den adina (14-15 urte), eta gora egin duela cannabisa kontsumitu ohi duten nesken proportzioak.

Tarte handi samarrera jarraitzen diote gainerako legez kontrako substantziek; horien artean **anfetaminak** (speed) dira nagusi, gehien kontsumituriko bigarren substantzia baitira: biztanleen %5,6k noizbait probatu dituela dio, eta %2,9 ohiko kontsumitzaileak dira. Gazteen artean anfetaminekiko esperimentazioa handia da, noizbait probatu dituztela baitio zazpitik batek.

Kokainari dagokionean, aipatzekoa da gehien erabiltzen den hirugarren substantzia dela; %4,7k noizbait probatu du, euskal biztanleen %1,8 ohiko kontsumitzaileak dira eta zortzi gaztetatik batek noizbait kontsumitu du.

Sintesi drogek, estasiak eta antzeko substantziek okupatzen dute laugarren lekua, biztanleen %2,3k probatu baitituzte. Orain dela hamar bat urte arte substantzia horiek ez ziren ezagutzen EAEan; gaue egun beren kontsumoak nabarmen gora egin du .

LSDri dagokionean, berriz, aipatzekoa da, %2,3k noizbait kontsumitu duela eta %1,1 ohiko kontsumitzailea dela. Droga honen kontsumoa esperimentalak da gazteen artean.

Heroinaren kontsumoa jaisten joan da azken urte hauetan, eta urtean droga hori kontsumitzen hasten direnen tasa milako 0,5ekoa

baino ez da, azterketa berrienetan jasotako datuen arabera. Baiezta dezakegu “mantenu” kontsumoa dela ia guztia.

Aipatutako horiez gainera, badira gorantz jo duten beste substantzia batzuk ere, **ketamina**, esate baterako, batik bat albaitaritzan erabiltzen den anestesikoa izanik, gero eta gehiago azaltzen ari baita legez kontrako drogen merkatuan. Efektu haluzinogenoa duenez, oso erakargarria da drogak probatzea gustuko duenarentzako, eta droga horren laginak gero eta gehiago azaltzen ari dira testing zerbitzuetan.

Mendian bildutako edo norberak landutako **Onddo psilozibiko** edo **monguien** kontsumoak ere gora egin du nabarmen, baina ez da kezkatzeko kontua, toxikotasun txikiko landarea baita eta oraingoz bederen asko erabiltzen denaren adierazlerik ez baitago.

Azkenik, aipatzekoa da drogen polikontsumoa, eta horietan alkohola eta haxixa – (tabakoa) nahastea da ohikoena. Substantzia bizigarriak alkoholarekin eta cannabisarekin batera hartzea ohikoa da, halaber.

18. Taula. Legez kontrako drogen kontsumoaren bilakaera 15 eta 30 urte arteko biztanle gazteengan.

1986, 1990, 1992, 1994, 1996, 2000, 2002. urteak

	1980	1990	1992		1994		1996	
	Lehenko kontsumoa	Lehenko kontsumoa	Lehenko kontsumoa	Egungo kontsumoa	Lehenko kontsumoa	Egungo kontsumoa	Lehenko kontsumoa	Egungo kontsumoa
Cannabis	49,9	48,5	41,0	14,5	43,6	13,6	42,6	13
Azidoa	7,5	8,5	5,2	1,5	6,4	1,2	5,5	1
Speed	9,6	11,4	5,3	3,2	9,7	2,9	9,9	3
Kokaina	7,3	10,4	6,8	2,3	7,6	1,7	6,4	1
Heroina	2,7	3,1	2,0	0,3	1,9	---	1	---
OINARRIA	2030	2282	667		420		418	

	2000		2002	
	Lehenago kontsumoa	Eguno kontsumoa	Lehenago kontsumoa	Eguno kontsumoa
Cannabis	55,1	29,6	47,5	28,9
Azidoa/LSD	6,8	1,6	8,1	0,9
Speed/anfetamina	15,3	7	16,8	5,5
Kokaina	11,2	4,4	14,5	5,2
Heroina	-	-	--	---
OINARRIA	2000		543	

- (1) Azidoa ez da sartu 2000 eta 2002. urteetako inkestetan: LSD izena aukeratu da
(2) Speeda, berriz, anfetaminaren kategoria zabalenean sartu dugu.

Argibideak: 1998. urtean kontsumoak ez ziren aurreko urteetan bezala aztertu eta kontsumoaren portzentajerik ez dugu 15-30 urte arteko multzoan.


15-30 urte bitarteko gazteen artean soilik egin zen 2000. urteko inkesta.

2002ko Euskadi eta drogak azterketan jasotako datuek 15-35 urte arteko multzoaren kontsumoaren % adierazten dute, eta horrek azalduko luke, neurri batean, 2000ko azterketarekiko igoera.

Irungo udalerriko legez kontrako drogen kontsumoari dagokionean, "Drogen kontsumoa Irungo ikasleen artean" azterketan lortutako datuak aipatuko ditugu:

- Legez kontrako drogak, haxix kenduta, (lasaigarriak, anfetaminak, LSD, estasia, kokaina, eta abar) gutxi kontsumitzen dira gazteen artean. Grafikoan ikusten dugun bezala, kontsumo horietako bakar bat ere ez da %6,5era iristen.


25. Grafikoa: Legez kontrako drogen kontsumoa, haxix kenduta
(bizitza osoan zehar)



Haxixa da gazteen artean gehien kontsumitzen den legez kontrako droga.

- Mutilek neskek baino kanuto gehiago erretzen dituzte, ugari erre gainera: mutilek neskek baino 3 aldiz gehiago.

26. Grafikoa: AZKEN 30 EGUNETAN porroak erre dituzten ikasleak generoaren arabera (portzentaiaetan). Irun 2001.




Inoiz ez

1 edo 2 aldiz

3-9 aldiz 10-39 aldiz

- Mutil eta neska gazteenetan, 12-13 urte, gehienek ez dute porrorik erre. 14 eta 18-19 urte artean, berriz, gutxi gora-behera gazteen erdiak probatu du noizbait.



27. Grafikoa: Porroen kontsumoa adinaren arabera

- 14 urtetik gorako gazteek diote ez zaiela bat ere zaila gertatzen haxixa lortzea.

Legez kontrako drogak kontsumitzen dituzten gazteen multzoaren errealitatea islatzen dute datu hauek. Horrenbestez, datu hauek ikusita, esan dezakegu, alde batetik, cannabisaren erabilera normalizazio prozesuan dagoela azken urte hauetan eta gainera gazteek uste dute ez duela arrisku handirik sortzen; bestalde, anfetaminak, estasia eta kokaina bezalako drogak kontsumitzen dituzten gazteak gutxi dira, eta horien erabilerak dakarzkien arriskuak gehienek ezagutzen dituzten arren, horrek ez ditu atzera botatzen kontsumitzeko garaian.

Aipatzekoa da heroinaren kontsumoak jaisten segitzen duela azken urte hauetan egiaztatu bezala, substantzia hori gaitzespen eta marjinazio ikur kontsideratzen hasi denetik, hain zuzen ere. Gaur egun, ia ez dago kontsumitzaile berririk, substantzia honen kontsumoak dakarren arriskua oso handia dela ulertzen delako neurri batean.

Errealitate honen aurrean, zalantzarik ez dago prebentzio lana benetan garrantzitsua dela, kontsumitzaile izan daitezkeenei egiazko informazioa eta informazio sinisgarria helarazteko, eta drogen erabilera txarrak eta abusuak ekar ditzakeen arriskuak jabetu daitezeko.

Gogora ekarri behar dugu, gaur egun, drogen kontsumoari –bai legezkoak bai legez kontrakoak– loturiko arriskuak murriztea dela

drogamenpekotasunen prebentzioan interbentzio ildoak zehazteko
orduan kontuan hartu beharreko lehentasunezko helburuetako bat.

3.B. DROGAMENPEKOTASUN ARAZOENGATIK LAGUNTZA JASO DUTEN HIRITARREN BILAKAERA

Drogamenpekotasun arazoengatik laguntza jaso duten hiritarren bilakaera jasoko dugu atal honetan, drogamenpekotasun alkoholikoak eta ez alkoholikoak bereizita.

• DROGAMENPEKOTASUN EZ ALKOHOLIKOAK

Hasteko, esan beharra dago fenomeno bat, kasu honetan droga kontsumoaren tamaina, zuzenean neurtzea oso zaila denean, neurtu nahi den fenomeno horrekin zerikusia duten zeharkako adierazleak erabiltzen direla. Zeharkako adierazleak ez dute kontsumoaren nondik-norakoaren estimazio zehatza eskaintzen, baina oso baliagarriak dira kontsumoaren tamaina eta bere banaketa sozial eta geografikoari buruz gutxieneko estimazioak egiteko.

Jarraian, estatu, autonomi eta toki mailako toxikomania ez alkoholikoen bilakaera aztertuko dugu, bi adierazletan oinarrituta: tratamendu adierazlea eta lagundutako hiritarren adierazlea.

1. Tratamendu adierazlea

Substantzia psikoaktibo gehiegi hartzeagatik edo horiekiko mendetasunagatik anbulatorioan tratamendua hartzeko urtero onartzen diren pertsonen kopurua jasotzen du adierazle honek.

3-B GRAFIKOAK. EZ ALKOHOLIKOAK TRATAMENDUA

19. Taula: Substantzia psikoaktiboen kontsumoagatik Estatu espainiarrean eta EAEan tratamendua egiteko onartutako kasuen kontsumo ezaugarriak eta haiei loturiko faktoreak, 1997- 2000 (ehunekoetan)

	Estatu espainiarrean				Euskadiko Autonomia Erkidegoan			
	1997	1998	1999	2000	1997	1998	1999	2000
KONTSUMITZEN HASTEN DEN ADINA	20,67	20,62	20,78	20,63	20,34	20,42	20,86	20,97
Tratamendua eragin duen droga nagusia								
– Heroina eta beste opiazeoak	84,9	81,3	74,7	72,4	79,8	76,1	63,9	64,7
– Kokaina	8,9	11,3	17,5	17,2	7,8	11,8	21,8	23,0
– Anfetaminak	0,6	0,6	0,7	0,6	6,2	5,4	6,7	5,1
– MDMA eta deribatuak	0,5	0,3	0,3	0,5	0,9	1,3	1,0	0,9
– Hipnotikoak eta lasaigarriak	0,5	0,6	0,6	0,8	1,2	0,5	0,6	1,1
– Cannabisa	4,2	5,3	5,5	6,1	3,8	4,8	6,0	5,2
– Beste substantziak	0,4	0,5	0,6	0,6	0,3	0,3		0,1
Kontsumo bide nagusia								
– Ahotik	3,5	3,3	3,5	4,2	7	4,6	4,6	5,4
– Erreta	27,5	27,5	24,4	24,1	32,3	33,3	35,1	35,2
– Inhalatuta	30	30,5	33,3	33,2	2,8	3,2	3,5	4,7
– Esnifatuta	10,6	12,7	15,7	15,9	12,4	14,7	20,0	19,4
– Injektatuta	27,3	23,9	20,8	20,0	45,0	42,9	31,5	32,3
– Beste	1,1	2,0	2,3	2,6	0,4	1,3	1,3	3
Aurreko hogeita hamar urteetan kontsumituriko beste drogak								
– Heroina eta beste opiazeoak	11	11,6	10,7	12,3	11	10,1	7,2	8,9
– Kokaina	57,7	58,4	59,1	56,3	41,9	42,8	41,3	27,9
– Anfetaminak	11,5	2,6	2,8	3,4	12,8	13,2	4,7	7,9
– MDMA eta deribatuak	1,55	1,2	1,5	2,7	5,0	4,1	0,7	5,0
– Hipnotikoak eta lasaigarriak	25,5	24,6	19,0	18,9	32,5	28,1	22,7	17
– Cannabisa	39,5	39,2	36,6	36,8	43,5	40,9	3,6	26,9
– Alkohola	29,9	31,4	31,6	32,0	22,5	23,0	28,5	25,4
– Beste substantziak	11,4	17,2	15,8	13,3	3,4	5,1	0,6	

Iturria: Eusko Jaurlaritza – Drogamenpekotasunen Euskal Behatokia.

20. Taula: Substantzia psikoaktiboen kontsumoagatik Estatu espainiarrean eta EAEan tratamendua egiteko onartutako kasuen ezaugarri soziodemografikoak, 2000

	Estatu espainiarrean				Euskadiko Autonomia Erkidegoan			
	1997	1998	1999	2000	1997	1998	1999	2000
Batez besteko adina	29,60	30,17	30,40	30,92	29,45	30,21	30,21	31,24
Sexua								%83,7
Gizonezkoak	%84,3	%84,5	%84,9	%84,9	%81,0	%80,9	%80,9	%
Emakumezkoak	%15,7	%15,5	%15,1	%15,1	%19,0	%19,1	%18,9	%16,3
Ikasketa maila gorena								
Ikasketarik gabe	%13,1	%12,9	%13,8	%12,8	%5,2	%3,0	%2,1	%2,9
Oinarrizkoak- 5. OHO	%41,0	%40,2	%36,8	%37,3	%32,6	%38,8	%33,5	%32,6
.OHO, Oinarrizko Batx, DBH	%29,8	%30,0	%27,8	%31,8	%41,6	%37,5	%40,1	%41,7
LH-BUP-beste	%13,8	%14,4	%18,1	%15,4	%17,2	%15,9	%18,5	%17,8
Erdi-goi mailako ikasketak	%2,4	%2,5	%3,4	%2,8	%3,3	%4,7	%2,1	%3,6
Lan egoera nagusia								
Lanean	%27,8	%31,0	%40,3	%40,3	%28,5	%35,1	%34,6	%35,2
Lanik egin ez duen langabetua	%10,6	%10,7	%9,8	%8,1	%40,7	%38,3	%38,8	%40,3
Lan egin duen langabetua	%46,2	%43,7	%36,6	%38,5	%20,8	%12,7	%16,2	%13
Beste	%15,4	%14,5	%13,4	%17,6	%9,9	%13,8	%8,4	%11,5
N	52.440	54.338	51.191	51.191	1715	1.757	1.494	1.365


Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Drogamenpekotasunen Euskal Behatokia.

21. Taula: Tratamendua eragin duen droga nagusia aurrez egindako tratamenduaren arabera EAEan, 1996-2000 (ehunekoetan)

	GUZTIRA					Aurrez tratamendua egin					Aurrez tratamendua egin gabe				
	1996	1997	1998	1999	2000	1996	1997	1998	1999	2000	1996	1997	1998	1999	2000
Heroina eta beste	86,4	79,8	76,1	63,9	64,7	94,8	91,3	90,0	81,3	78,3	69,9	58,1	46,7	36,1	42,2
Kokaina	4,5	7,8	11,8	21,8	23,0	2,6	4,0	6,2	12,2	15,4	8,5	15,2	22,3	37,8	34,9
Anfetaminak	3,8	6,2	5,4	6,7	5,1	1,2	2,1	1,8	3,9	1,4	8,8	14,0	13,2	11,2	11,6
MDMA eta deribatuak	0,7	0,9	1,3	1,0	0,9	0,2	0,1	0,1	0,2	0,6	1,7	2,3	3,9	2,1	1,6
Hipnotiko lasaigarriak	0,6	1,2	0,5	0,6	1,1	0,3	1,0	0,3	0,5	1,3	1,2	1,4	1,1	0,7	0,6
Cannabisa	3,2	3,8	4,8	6,0	5,2	0,9	1,3	1,6	1,9	2,9	8,1	8,4	12,3	12,0	9,1
N	2.024	1.715	1.757	1.494	1.407	1.293	1.089	1.143	872	858	657	573	529	534	507

Iturria: Osasun Saileko Toxikomaniei buruzko Informazio Sistema (SIT), 2000.

28. Grafikoa: Opiazeo edo kokainaren kontsumoagatik tratamendua hartzeko onartu diren kasuak eta drogamenpekotasunengatik guztira onartutako kasuak EAEan (balio absolutuetan)



Iturria: Eusko Jaurlaritza – Drogamenpekotasunen Euskal Behatokia.

Orain arte jasotako datuen arabera, zera adieraz daiteke:

- Kontsumoari eta hari loturiko faktoreei dagokienean, alde garrantzitsuak daude EAEaren eta Estatu Espainiarraren artean. Euskal Herrian heroína kontsumitzaileen kopurua txikiagoa da Estatuan baino, eta horrenbestez, esan daiteke, tratamendurako onartzeko arrazoi diren beste substantzia nagusi batzuk gehiago kontsumitzen direla EAEan. Anfetaminen kasuan, Estatu Espainiarrean droga horregatik tratamendurako onartzen direnen portzentajea %0,6koa da, eta EAEan, berriz, %5,1koa.
- Heroinaren kontsumoak behera egiten jarraitzen du, orain dela urte batzuez geroztik egiaztatu den bezala. Ia kontsumitzaile berririk ez dago gaur egun.
- Beherantz doa heroína eta beste opiazeoak kontsumitzeagatik atenditutakoen portzentajea, bai aurrez tratamendua jaso dutenena bai tratamendurik gabeena.
- Ohiko heroína kontsumitzaile gehienek tratamendua jaso zuten tarteko helburuen programetan (Metadona), eta horrek lagundu egiten du droga horregatik beste osasun esparru batzuetan tratamendurako onartutakoen portzentajea jaisten.


- Kokaina eta anfetaminei dagokienean, argi eta garbi ikusten dugu, tratamendurako onartutakoen kopuruak gora egin duela 97. urteaz geroztik, bereziki kokainaren kasuan, tratamendurako onartutakoen portzentajea askoz ere handiagoa baita kasu horretan. EAEko datuak Estatu Espainiarrekoekin alderatzen baditugu, ikusten dugu, kokaina eta anfetaminak kontsumitzeagatik tratamendurako onartutakoen portzentajea nabarmen handiagoa dela gure komunitatean. Anfetaminen kasua nabarmentzen da bereziki, Estatu Espainiarrean, tratamendurako onartutakoen %0,6 droga horrek eraginak dira substantzia nagusi gisa, eta Euskadin, berriz, portzentaje hori %5,1 izan zen 2000. urtean.
- Kontsumo bide nagusiari dagokionean, EAEan injektatua eta erretzea askoz ere bide erabiliagoak dira Estatu Espainiarrean baino; aldiz, Euskadin inhalatzeko bidea askoz ere gutxiago erabiltzen da kontsumorako bide nagusi gisa Estatu Espainiarraren gainerakoarekin alderatzen badugu (%4,7 eta %33,2 hurrenez hurren).
- Edozein eratako drogak kontsumitzeagatik tratamendua hartzeko onartutakoen kopurua askoz ere handiagoa da aurrez tratamendua egin dutenentzako tratamendurik egin ez dutenentzako baino.

2. Laguntza jaso duen biztanleriaren adierazlea

Urtean zehar, aipatu den programa osoan laguntza eman zaien pertsonen kopurua jasotzen du adierazle honek, tratamendua urtean zehar edo aurreko urteetan hasi zuen eta urte honetan jarraitzen duen ala ez kontuan hartu gabe.


Estatu, autonomia eta toki mailan toxikomania ez alkoholikoen bilakaera zer-nolakoa izan den islatzen dute ondoko koadroek, adierazle hori kontuan izanik. Horrek aukera emango digu urtean tratamendua jasotzen duten pertsonen kopurua ez ezik tratamendu hori zein zentro motatan jasotzen duten ere jakiteko.

29. Grafikoa: Drogamenpekotasun ez alkoholikoengatik laguntza jaso duen biztanleriaren banaketa (Espainia 96-00)




Iturria: S.E.I.T.

30. Grafikoa: Drogamenpekotasun ez alkoholikoengatik laguntza jaso duen biztanleriaren guztizko bilakaera. (Espainia 96-00)



Iturria: S.E.I.T.


31. Grafikoa: Tokikomania ez alkoholikoengatik tratamendu zentroetan laguntza jaso duten pertsonen tasa, Lurralde Historikoen arabera eta EAEan, 1995-2000



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Drogamenpekotasunen Euskal Behatokia


	1995	1996	1997	1998	1999	2000
BIZKAIA	2,89	2,9	3,18	5,36	4,3	4,39
ARABA	2,91	2,65	1,94	2,47	2,46	2,9
GIPUZKOA	1,92	1,87	1,88	1,74	1,79	2,43
EAE GUZTIRA	2,53	2,58	2,6	2,5	3,2	3,21

32. Grafikoa: Drogamenpekotasun ez alkoholikoengatik laguntza jaso duen biztanleria tratamendu zentroen arabera (Gipuzkoa 98-02)




Iturria: Tratamendu Zentroak.

33. Grafikoa: Drogamenpekotasun ez alkoholikoengatik laguntza jaso duen biztanleriaren bilakaera Irunen.




Iturria: Tratamendu Zentroak.

34. Grafikoa: GIZAKIA HELBURU proiektuan laguntza jaso duen Irungo biztanleriaren bilakaera



Iturria: Gizakia Helburu

35. Grafikoa: HIESAREN ERAGINA IRUNEN



Iturria: HIESaren Prebentzio eta Kontrolerako Plana.

Drogamenpekotasun ez alkoholikoei dagokienean:

- Drogamenpekotasun ez alkoholikoengatik tratamendua hartu duten pertsonen kopuruak gora egin du 1996. urteaz geroztik bai estatu, bai autonomia bai toki mailan.
- Autonomia mailan, aipatzekoa da, toxikomania ez alkoholikoengatik lagundutako pertsonen kopuruak nabarmen gora egin duela Bizkaiko tratamendu zentroetan, mila biztanleko 5,36ko tasa izan baitzuten, Gipuzkoan berriz, tasa horrek ez zuen mila biztanleko 1,74 gainditu.
- Lurralde historiko horretan, berriz, nabarmen gora egin zuen 2000. urtean, mila biztanleko 2,43ko tasa izan baitzen. Horrenbestez, igoera horrek aldatu egin zuen toxikomania ez alkoholikoengatik laguntza jasotakoen tasak 1995etik 1999ra izandako egonkortasuna.
- Gipuzkoa mailan, aipatzekoa da, gora egin duela Bitarte tarteko helburuen programaren barnean, metadona bidez lagundutako pertsonen kopuruak, laguntza baliabide horren bidez atenditutako pertsonen kopuruak pixkanaka-pixkanaka gora egin baitu 1991. urtean martxan jarri zenetik hona.

Adibide gisa, 2002. urtean, Gipuzkoako Buru Osasun Zentroetan drogamenpekotasun ez alkoholikoengatik lagundutakoen portzentajea %25,7 zen bitartean, %14,7 izan zen

Gizakia Helburu proiektuan, eta metadona bidezko programan gaixo horietako %44.7ri eman zitzaion laguntza.

- Drogamenpektasun ez alkoholikoengatik toki mailan lagundutako biztanleriaren bilakaerari dagokionean, aipatzekoa da, behera egin duela Gizakia Helburu bezalako egoitza zentroetan tratamendurako onartutako kasuen kopuruak. 45 kasu atenditu ziren 1995ean, eta 5 kasu soilik 2000. urtean (esku artean ditugun azken datuen arabera). Horrek ez du esan nahi opiazeoen kontsumoagatik tratamenduan dauden pertsonen kopuruak behera egin duenik, baizik eta kontsumitzaile horietako gehienak metadona bidezko programen barnean daudela, laguntza baliabide hori lortzea askoz ere errazagoa baita Dunboako anbulatorioan metadona emateko zentroa dagoenez geroztik.
- Hiesak udalerrian duen eraginari dagokionean, berriz, aipatzekoa da, sumatutako kasuen kopuruak behera egin duela bereziki 1999tik 2002ra.
- XTPen (Xiringak Trukatze Programak) eraginkortasuna da kasu gutxiago izatea ekarri duen faktoreetako bat, izan ere, denok dakigun bezala, VIHren eragina oso handia da bide parenterala erabiltzen duten toxikomanoen artean. Joan den 2002. urtean guztira 639 kit-xiringa eman ziren gure udalerriko botiketan.

• **DROGAMENPEKOTASUN ALKOHOLIKOAK**

Hasteko, esan, pertsona alkoholikoak drogamenpekoak direla, beste substantzien toxikomanoen artean ematen denaren aldean erabat tipologia desberdina izan arren.


Alkoholaren kontsumoa eta alkoholismoa biztanleriaren artean bestelako kontsumo eta toxikomaniak baino gehiago zabalduta dagoen arren, mendekotasun alkoholikoari buruzko datuak askoz ere urriagoak dira bestelako toxikomanienak baino. Bat baino gehiago dira fenomeno horren arrazoiak. Alde batetik, alkoholismoa arazo duten pertsona askok autolaguntzarako elkarte eta taldeetara jotzen dute eta anonimatuaren printzipioa mantendu eta tratamenduan dagoen pertsonaren inolako daturik ez dute publiko egiten. Bestalde, mediku kontsulta eta klinika pribatu ugari dago drogamenpektasun arazo horiek tratatzen dituztenak eta horien informazioa ere ez du inongo erakundek jasotzen. Era berean, pertsona alkoholiko batzuk ez dira alkoholiko gisa diagnostikatzen eta horrekin lotutako patologien tratamendua jartzen

diete beste espezialistek, edo bestela lehen atentziorako taldea da bere arazoa kontrolatzen duena, gaixotasunaren hasierako etapan aurkitzen delako. Gure komunitatean alkoholismoa tratatzera zuzendutako asistentzia sarea banatuta geratzen da, beraz, osasun publikoa, espezialisten kontsulta pribatu eta autolaguntzarako zenbait elkarteren artean. Alcoholicos Anonimos, esate baterako.

Jarraian jasotzen diren datuak zerbitzu publikoak eskaini dituenak dira bakarrik. Beraz, errealitatearen ikuspegi zeharra eskaintzen duten arren, lagundu egingo digute substantzia hori kontsumitzen duen biztanleriaren bilakaera ulertzen.


3-B GRAFIKOAK ALKOHOLA

36. Grafikoa: Alkoholismoagatik ibiltari-tratamendua jaso duten pertsonak, 1995-2000 urteetan (balio absolutuetan)




Fuente: Gobierno Vasco - Observatorio Vasco de Drogodependencias.

37. Grafikoa: Buru Osasun Zentroan alkoholismoagatik laguntza jaso duen Irungo biztanleria




Iturria: Gipuzkoako Ospitalez kanpoko Buru Osasun kasuen metatze-erregistroa.

38. Grafikoa: Alkoholismo eta toxikomania ez alkoholikoen bilakaera Buru Osasun Zentroan (Irun)



Iturria: Gipuzkoako Ospitalez kanpoko Buru Osasun kasuen metatze-erregistroa.

39. Grafikoa: Buru Osasun Zentroan tratamendua duen alkoholismoaren eragina eskualdeka eta 100.000 biztanleko



Iturria: Gipuzkoako Ospitalez kanpoko Buru Osasun kasuen metatze-erregistroa.

- Autonomi Erkidegoaren mailan, aipatzekoa da, 2000. urtean ibiltari moduan 4.276 pertsona atenditu zirela alkoholismoagatik. Zifra horrek esan nahi du 3,5 gehitu egin dela 1999. urtearekin alderatuta. Aurreko urteetan, alkoholismoagatik atenditutakoen tasak gora egin zuen, 1998. urtean izan ezik, urte horretan zertxobait behera egin baitzuen.
- Alkoholismoagatik 2000. urtean atenditutakoen tasa 145,7koa izan zen Gipuzkoa mailan, eta 130,3koa, berriz, Irunen (tasak 100.000 biztanleko). Urte horretan udalerrian atenditutako pertsonak 73 izan ziren.
- Irunen atenditutakoen kopuruak behera egin du 1999. urteaz geroztik, urte horretan 75 kasu atenditu baitziren, 2002. urtera arte, urte horretan 63 kasu atenditu baitziren.
- Generoaren araberako banaketari dagokionean, beste toxikomanien joera berdina darama honek ere. Emakume alkoholiko bakoitzeko lau gizon alkoholiko daude tratamenduan. Banaketa horrek bere horretan dirau orain dela hainbat urtez geroztik.

- Adinen araberako banaketa ere aurreko urteetakoaren antzekoa da oso. 35 eta 54 urte artean dituzte laugundutako gehienek. Banaketa honek ere aspaldiko urteetan bere horretan dirau, generoaren araberakoak bezala.
- Alkoholaren erabilera txar edo abusuarekin loturik atenditutako kasuen osasun larrialdiei dagokienean, zenbaki daturik ez badugu ere, osasun arduradunek diotenaren arabera, badirudi gora egin duela osasun zerbitzuetan, anbulatorio nahiz ospitaletan, laguntza behar duten 18 urtetik beherako gazteen kopuruak. Intoxikazio etiliko larriak izaten dituzte horietako askok.

4. MARKO NORMATIBOA

4.1. DROGAMENDEKOTASUNAREN ALORREKO PREBENTZIOARI, LAGUNTZARI ETA GIZARATERATZEARI BURUZKO 18/1998 LEGEA

Azken mende laurdenean, mendebaldeko gizarteak osasun publikoaren arazo gisa hartzen hasi dira drogen kontsumoa gero eta drogamenpekotasun kasu gehiago agertzen hasi direlako.

Euskal gizartea ere ez da drogamenpekotasun berriak agertzeko prozesutik kanpo geratu, eta drogen kontsumoak osasunerako dituen arriskuetaz ohartu da.

Drogamenpekotasunen alorrean jarduera politiketan gertatu diren aldaketak kontuan izanik, ezinbestekoa da legea errealitate berri horretara egokitzea. Testu legal berriak aurreko legea aldatzen du, bai eduki berriak jasoaz bai egitura aldaketak eginez.

Eusko Legebiltzarraren Drogamenpekotasunari buruzko Batzordearen 1994ko ekainaren 30eko akordioan jasotako ardatzak bildu nahi izan ditu 18/1998 Legeak bere artikuluetan. Hona hemen lortu nahi dituen helburuak:

- Drogamenpekotasunaren prebentzioari buruzko politikak eraginkorragoak izatea, prebentzio komunitariorako udal talde teknikariak sortuz.
- Komunikabide publikoen arteko erantzukizuna.
- Benetako kontrola farmako estupefaziante eta psikotropoak ematerakoan eta horiek jasotzen dituzten farmazia espezialitateen gainean.
- Euskal Poliziak errepresioaren alorrean ez-ezik, legez kanpoko drogen trafikoaren prebentzioan ere jardutea.
- Prebentzio, laguntza eta gizarateratze politika publiko guztietan beharreko koordinazioa hobetzea. Era berean, inplikaturiko erakunde desberdinak elkarren artean eta enpresa eta sindikatu erakunde desberdinekin, ekimen pribatuekin, laguntza sare publiko eta pribatuarekin eta sistema judizialarekin behar bezala koordinatzea.
- Erretzaileak ez direnen babesa beste eskubide hipotetiko batzuk dauden egoeretan.
- Legea eta hark lortu nahi dituen helburuak betetzeko orduan eraginkortasun handiagoa izateko aukera emango duen zigor-erregimen bat arautzea.

Honako artikulua hauek nabarmenduko ditugu lege horretatik:

- 2. art.: Hainbat faktore eta egoera murrizteko jarduera multzo gisa definitzen du prebentzioa, hauexek dira, drogen kontsumora bultzatzen duten faktore pertsonal, sozial eta kulturalak aldatzeko, drogen eskaria eta kontsumoa murrizteko, gizartean drogen eskaintza murriztu edo mugatzeko eta haren kontsumotik etor daitezkeen ondorioak murrizteko eta arrisku egoerak sor ditzaketen arazo sozioekonomiko edo laboralak zehazteko.
- 3. art.: Prebentzioaren helburu orokorrak zehazten ditu:
 - a) Hiritarrak, oro har, drogei buruz behar bezala informatzea.
 - b) Hiritarrak, eta bereziki gazteria hezteko, osasunaren aldeko ohiturak sortzen.
 - c) Drogamenpekotasunen prebentzioaren alorrean profesionalak prestatzea.
 - d) Mendekotasuna sortzeko gai diren substantzien kontsumoan eragina duten gizarte baldintzetan esku hartzea.
 - e) Prebentzio komunitariorako programen ezarpena eta garapena sustatzea.
 - f) Drogen kontsumoaren ondorioz osasunerako kalteak baztertzeko neurriak hartzea.
 - g) Gizarte ingurutik drogak kentzea eta, hala behar badu, haien presentzia, sustapena eta salmenta mugatzea.
 - h) Administrazioaren eta inplikaturiko gizarte kolektiboaren artean drogen kontsumoari aurre hartzeko jarduerak koordinatu eta bultzatzea.
- 4. art.: Prebentzio komunitarioa.
 1. Udalek Drogamenpekotasunen Plan Lokala prestatuko dute.
 2. Horretarako:
 - a) Drogamenpekotasunen prebentzio komunitariorako programen garapena sustatuko dute.
 - b) Drogamenpekotasunen Planetik etorritako prebentzio programak eta jarduerak sustatu, koordinatu eta, hala behar izanez gero, bidertuko dituzte komunitateko esparru desberdinetan.
 - c) Drogamenpekotasunen alorrean lankidetzak sustatuko dute gizarte ekimenarekin eta boluntarioekin.
 3. Euskadiko Autonomi Erkidegoaren Administrazio Orokorrak lankidetzarako harreman egokiak bideratuko ditu drogamenpekotasunen alorrean prebentzio komunitariorako jarduerak garatzeko.
- 8. art.: Gizarte baldintzetan esku hartzea.

1. Gizarte Zerbitzuen alorrean, drogamenpekotasunen prebentziorako programen sustapena lehentasunezko jarduera eremua izango da.
2. Botere publikoek prebentzio jarduerak bultzatuko dituzte bizi baldintzak hobetzeko eta drogen kontsumoan eragina duten faktore pertsonal edo familiarak gainditzeko:
 - a) Arriskuan dauden gizarte kolektiboetan elkartze bizitzaren aldeko jarduerak aurrera eramatea adin txikikoei eta gazteei arreta berezia eskainiz.
 - b) Zerbitzu soziokulturalen ekipamendua planifikatzea komunitatearen multzoan aukeren oreka egokia eta berdintasuna lortzeko.
 - c) Gazteen artean prestakuntza profesionalerako alternatibak sustatzea, lehen enplegua, autoenplegua eta enpresa sustapena.
 - d) Hirigintza plangintza eta garapena elkartasun, berdintasun eta arrazionaltasun irizpideak kontuan harturik.
- 10. art.: Artikulu honek zehazten du Euskal Poliziak, drogen trafikoaren delituak ikertzeaz gainera, eskariaren eta kontsumoaren prebentzioaren esparruan dagozkion ekintza guztietan lagunduko duela.
- 13 – 23 art.: Edari alkoholikoen eta tabakoaren publizitate, salmenta eta kontsumoaren alorreko mugak ezartzen dituzte. Eusko Jaurlaritzaren aholkularitzarako laguntza organoak beharreko jarduerak bultzatuko ditu drogamenpekotasunen alorrean legez kanpoko publizitatearen erabilera baztertzeko.
- 26. art.: Botere publikoei dagokie E.A.E.an drogamenpekotasuna duten pertsonen begira garatzen diren ekintzek drogaren mende dagoen pertsona horrek osasun eta gizarte alderdietan gainerako herritarren atentzio berdina izan dezan ziurtatzea eta atentzio hori gizarte eta osasun zerbitzuen arten koordinatuta eman dadin ziurtatzea.
- 33 – 35 art.: Gizarte zerbitzuen sistemari dagokio gizarte behar egoerei erantzutea eta drogaren mende dagoen pertsona gizarterako beharreko ekintzak garatzea, gizarte baztertzeko sortzen duten arazoiei aurre hartzeko, pertsona hori bere familia eta gizarte inguruan berregokitzeko, bazterturiko gazteria hezkuntza, enplegu eta etxebizitza programa orokorren bidez integratzeko eta abarretarako.

- 36. art.: Administrazio desberdinen eskumenak arautzen ditu, hezkuntza, kultura, ordena publiko, merkataritza, osasun, gizarte zerbitzu eta beste alor batzuetan dituzten eskumenen arabera.
- 37. art.: Plangintzari dagokionean, honako hau jasotzen du:
 1. Drogamenpekotasunen Plan Lokala hiru urterako izango da, eta Euskadiko toki administrazioek bideratutako prebentzio, laguntza eta gizarteratze programa eta ekintzak jasoko dira bertan modu koordinatu eta globalean.
 2. Drogamenpekotasunen Plan Lokala drogamenpekotasunen alorrean gizarte ekimenaren egiturek egituratu, koordinatu, planifikatu eta aholkaturiko programa eta jardueren multzo ordenatua da, udal esparru horretarako eta Drogamenpekotasunen Planari loturik.
- 39 – 42 art.: Drogamenpekotasunen alorrean instituzio desberdinek duten osaera eta jarduera esparrua zehazten dute.
- 43 – 45 art.: Gizarte partaidetza arautzen dute, bai gizarte ekimenaren bai boluntarioen bai irabazi asmorik gabeko erakundeen bidez.
- 46 – 56 art: Arau-haustek eta santzioak zehazten dituzte. Tokiko Administrazioak bere gain izango du espedienteak hasi, bideratu eta erabakitzeo eskumena.

4.2. XEDAPEN ARAUTZAILEAK

Dagoeneko aipatu den legeaz gainera, badira xedapen batzuk Oinarrizko Arauaren alderdi partzialak garatzen dituztenak edo hemen aipagai dugun gaiarekin zuzenean edo zeharka zerikusia duten jarduerak arautzen dituztenak.

Jarraian garrantzitsuenak aipatuko ditugu, jarduera-esparruen arabera bildurik:

- **PREBENTZIOA**

Komunitate mailako Prebentzioa

- Etxebizitza eta Gizarte Ekintzarako Kontseilariak 2002ko uztailaren 9an emaniko agindua. Agindu horrek, gizarte zerbitzuen alorrean jarduerak burutzeko ekainaren 11ko 133/2002 Dekretuan aurreikusitako prebentzio, laguntza eta gizarte integrazioarako programetarako laguntzak arautzen ditu.

- Maiatzaren 28ko 242/1991 Dekretua. Dekretu horrek, drogamenpekotasunen alorrean komunitate mailako prebentziorako programak garatzeko eta antzeko jarduerak bideratzeko ekipo teknikok sortu edo mantentzeko laguntzak jasotzen ditu.

HIESAREN Prebentzioa eta Kontrola

- Osasun Kontseilariaren 2002ko martxoaren 26ko Agindua. Agindu horren bidez, Irabazi asmorik gabe HIESAREN alorrean lan egiten duten elkartentzako dirulaguntza deialdiak arautzen dira (apirilaren 24ko 77. E.H.A.O.).
- 1992ko urriaren 6ko Agindua. Agindu horren bidez, Hiesaren Prebentzio eta Kontrolerako Planaren Batzorde Aholkularien eraketa eta funtzioak zehazten dira (urriaren 15eko 201. E.H.A.O.).

Eskola mailako Prebentzioa

- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Kontseilariak 2002ko maiatzaren 14an emaniko Agindua. Agindu horren bidez, Lanbide Hastapenerako programen garapenerako dirulaguntzak arautzen dira, Gizarte Bermeko Programen zehaztapen gisa (maiatzaren 21eko 94. E.H.A.O.).
- Apirilaren 24ko 72/2001 Dekretua. Dekretu horren bidez, Gizarte Bermeko Programetan sartzan diren prestakuntza ekintzen funtsezko alderdiak zehazten dira (maiatzaren 8ko 86. E.H.A.O.).
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Kontseilariak 1997ko uztailaren 9an emaniko Agindua. Agindu horren bidez, E.A.E.ko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Zentroetarako curriculum aniztasunerako programetarako laguntzak arautzen dira (uztailaren 29ko 43. E.H.A.O.).
- Eskolako Osasunari buruzko ekainaren 30eko 7/1982 Legea. (82-8-13ko 101. E.H.A.O.).
- Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa (urriaren 4ko E.A.O.).

Publizitate Engainagarria

- Martxoaren 21eko 80/1989 Dekretua, Publizitate Engainagarriaren Batzordea sortzeko dekretua aldatzen duena (apirilaren 14ko 71. E.H.A.O.).

• ASISTENTZIA

- 2001eko uztailaren 12ko Agindua. Agindu horren bidez, Drogen Legez kontrako Fabrikaziorako Desbidera Daitezkeen Substantzia Kimiko gisa Katalogaturikoen Kontrolerako Neuriei buruz normalizaturiko ereduak aldatzen dira. Ekainaren 6ko 865/1997 Errege Dekretuaren bidez onartu zen agindu hori (uztailaren 20ko 173. E.A.O.).
- Osasun Ministerioaren 1994ko apirilaren 25eko agindua. Agindu horren bidez, estupefazianteak agindu eta emateko errezeta eta baldintza bereziak arautzen dira. (maiatzaren 3ko E.A.O.).
- Otsailaren 19ko sco/469/2002 Agindua. Agindu horren bidez, printzipio aktibo batzuk sartzen dira substantzia eta produktu psikotropikoak arautzen dituen urriaren 6ko 2829/1977 Errege Dekretuaren I. eranskinean. (martxoaren 6ko E.A.O.).
- Otsailaren 19ko 75/1.990 Errege Dekretua, opiazeoen bidezko tratamendua arautzen duena horien mendeko diren pertsonen artean.
- Osasun Kontseilariaren 1992ko azaroaren 9ko agindua, toxikomanoen tratamendurako zentroen funtzionamendurako baldintzak aldatzen dituena.
- 2001eko abenduaren 19ko Agindua. Agindu horren bidez, toxikomaniaren tratamendurako dirulaguntzak zehazten dira 2002. urtean kontzertatu gabeko Komunitate Terapeutikoetan (urtarrilaren 28ko 19. E.H.A.O.).
- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Kontseilariak 2001eko apirilaren 25ean emaniko Agindua. Agindu horren bidez, 2000ko irailaren 1eko Agindua (presoekiko gizarte interbentziorako jarduerak subentzionatzeko laguntzen deialdiak arautzen dituena) egokitzen da 2001. urtean zehar aplikatzeko (maiatzaren 2ko 82. E.H.A.O.).

• GIZARTERATZEA

Gizarte Zerbitzuak

- Uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen alorreko funtzioak zehazten dituena. (Abuztuaren 27ko 165. E.H.A.O.).
- Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Kontseilariak 2002ko ekainaren 26an emaniko Agindua. Agindu horren bidez, Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan jasotzen diren gastu espezifiko bakoitzerako eman beharreko kopuru gorenak zehazten dira 2002. urterako.
- Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Kontseilariak 2001ko otsailaren 14an emaniko Agindua. Agindu horren bidez, enplegu suspergarriak zehazten dira Oinarrizko Errentaren titularrei eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradun direnei begira. (Otsailaren 21eko 37. E.H.A.O.).
- Apirilaren 20ko 199/1999 Dekretua, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak arautzen dituena. (Maiatzaren 20ko 94. E.H.A.O.).
- Apirilaren 20ko 198/1999 Dekretua, Gizarteratzeko Gutxieneko Ordainsaria arautzen duena. (Maiatzaren 20ko 94. E.H.A.O.).
- Kontrataziorako laguntzak
 - Urtarrilaren 20ko 3/1998 Dekretua, lanbideratzeko laguntza Programa arautzen duena. (Urtarrilaren 26ko 16. E.H.A.O.).
 - Ekainaren 27ko 326/1995 Dekretua, toxikomano ohien kontrataziorako Laguntza Programa arautzen duena pertsona horiek birgaitu eta gizarteratu daitezzen. (Ekainaren 30eko 124. E.H.A.O.).
 - Irailaren 19ko 182/2000 Dekretua, AUZOLAN programa artikulatzen duena, baztertze egoera edo arriskuan dauden pertsonak Lanbideratzeko. (Irailaren 29. E.H.A.O.).
 - Abenduaren 24ko 307/1996 Dekretua, gazte langabetuen kontrataziorako laguntza-neurriak arautzen dituena. (Urtarrilaren 3ko 2. E.H.A.O.).
 - Urtarrilaren 11ko 1/2000 Dekretua, gizarteratze hitzarmenak arautzen dituena. (Urtarrilaren 31ko 20. E.H.A.O.).

- Maiatzaren 22ko 12/98 Legea, gizarte bazterketaren aurkakoa. (Ekainaren 8ko 105. E.H.A.O.)
- Azaroaren 10eko 9/2000 Legea, Gizarte Bazterketaren aurkako Legea aldatzen duena. (Urtarrilaren 2ko 1. E.H.A.O.).
- Abenduaren 27ko 10/2000 Legea, Gizarte Eskubideen Kartari buruzkoa. (Abenduaren 30eko 249. E.H.A.O.).
- Otsailaren 7ko int/555/2002 Agindua. Agindu horren bidez, dirulaguntza deialdiak egiten dira askatasuna kentzeko zigorraren aurrean neurri alternatiboak eta gizarte arretarako hainbat programa gauzatu eta horien jarraipena egiten laguntzeko. (Martxoaren 14ko 63. E.A.O.).

- **BESTEAK**

- Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Kontseilariak 1997ko otsailaren 4an emaniko Agindua. Agindu horren bidez, Drogamenpeketasunen Idazkaritzaren esku utzitako Ikerketa, Dokumentazio eta Informazio funtzioak zehazten dira eta Drogamenpeketasunen Euskal Behatokia sortzen da. (Otsailaren 18ko 33. E.H.A.O.).
- Uztailaren 27ko 302/1999 Dekretua. Dekretu horren bidez, Drogamenpeketasunen alorreko Prebentzioari, Laguntzari eta Gizarteratzeari buruzko 18/1998 Legean jasotako instituzio xedapena garatzen da. (Abuztuaren 20ko 159. E.H.A.O.).
- Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Kontseilariak 2001eko otsailaren 13an emaniko Agindua. Agindu horren bidez, Drogamenpeketasunen Aholkularitza Kontseiluaren Antolamendu eta Jarduera Araudia onartzen da. (Martxoaren 5eko 45. E.H.A.O.).
- Maiatzaren 18ko 1/1999 Legea, Drogamenpeketasunen alorreko Prebentzioari, Laguntzari eta Gizarteratzeari buruzko 18/1998 Legea aldatzen duena. (Ekainaren 8ko 107. E.H.A.O.).

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Kontseilariak 2002ko uztailaren 16an emaniko AGINDUA. Agindu horren bidez, zigortuta eta preso dauden pertsonekin gizarte ekintza programak aurrera eramateko dirulaguntza deialdiak egiten dira. (Irailaren 2ko 165. E.H.A.O.).

Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Kontseilariak 2002ko uztailaren 24an emaniko AGINDUA. Agindu horren bidez, Euskal Herrian

gizarteratze alorrean jarduerak aurrera eramateko dirulaguntzak arautzen dira. (Abuztuaren 28ko 162. E.H.A.O.).

Urtarrilaren 12ko 5/2000 LEGE ORGANIKOA, adin txikikoen erantzukizun penala arautzen duena.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Kontseilariak 2002ko uztailaren 30ean emaniko AGINDUA. Agindu horren bidez, dirulaguntza deialdiak egiten dira ekipo teknikoak sortu eta mantentzeko, drogamenpekotasunen alorrean prebentzio komunitariorako programak garatzeko, drogazaletasunaren alorrean ikerketa, azterketa eta prestakuntza lanak egin eta dokumentu baliabideak hobetzeko eta 2002ko ekitaldian arriskuen prebentzio eta murrizketarako programak aurrera eramateko. (Abuztuaren 27ko 161. E.H.A.O.).

2002KO UZTAILAREN 30EKO AGINDUA

ONDOREN, 2002KO UZTAILAREN 30EKO AGINDUAREN GAUZA NABARMENENAK ADIERAZIKO DITUGU LABURBILDUTA, DROGAMENPEKOTASUNEN TALDE TEKNIKOEN FUNTZIOAK ETA OSAERA AZALTZEARREN.

1. Honako funtzio hauek izango dituzte drogamenpekotasunen aurkako prebentzio komunitariorako talde teknikoek:

- Drogamenpekotasunen alorreko Prebentzioari, Laguntzari eta Gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legearen 4, 36.4 eta 37.2 artikuluek aipagai dituzten eta Drogamenpekotasunen Plan Lokalean zehazten diren helburuak betetzea izango da talde horien egiteko nagusia.
- Beharreko ekintza guztiak garatuko dituzte komunitatean drogamenpekotasunen fenomenoaren behar bezala ezagutu dadin.
- Udal arlo eta erakunde laguntzaile desberdinei aholkuak emango dizkiete drogamenpekotasunen alorrean eta Drogamenpekotasunen Plan Lokalaren garapenerako jarduerak planifikatzeko, eskuartze integral eta koordinatua lortu ahal izateko.

- Pertsona, familia eta kolektiboei informazio eta aholkularitza ematea komunitatean eskura dituzten gizarte baliabideen inguruan eta, kasuan kasu, oinarritzko gizarte laguntzara edo kasual hala eskatzen badu zerbitzu espezializatuera bidaltzea.
- Beren funtzioak betetzerakoan osasun eta hezkuntza zerbitzuekin kolaboratzea.
- Pertsona, familia eta gizarte kolektiboei drogamenpekotasunen fenomenoaren inguruan informazioa eta orientabideak ematea.
- Administrazio Publikoekin kolaboratzea eta irabazi asmorik gabeko eta gizarte boluntarioen ekimen pribatuak bultzatzea, drogamenpekotasunen gaietan burutzen dituzten ekintzetan. Bereziki, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako udalerriz kanpoko programak martxan jartzen lagunduko dute.
- Drogamenpekotasunen prebentzio komunitarioan programa espezifikoak aurrera eramateko aurreikusten diren jarduera guztiak gauzatuko dituzte.

2. 45.000 biztanle baino gehiago dituzten herrietan drogamenpekotasunen prebentzio komunitarioarako talde teknikoek goi edo erdi mailako bi teknikari eta administrari laguntzaile batek osaturik egon behar dute, guztiak ere egun osoz lanean.

5. HELBURU OROKORRAK

HELBURU OROKORRAK

1. Substantzia psikoaktiboen **kontsumoa gutxitzea**, salmenta legalekoak izan (tabakoa, alkohola, etab.) ala legez kontrakoak izan (kanabisa, speed-a, kokaina, estasia, heroina, etab.).
2. Droga gehiegi kontsumitzeak dakartzan **ondorioak leuntzea**.
3. Drogazaletasunaren inguruan gertatzen ari den itxurazko normaltasuna ikusirik, fenomeno honen, eta bere arrazoi eta ondorioen **irudikapen soziala** arrazionalizatzea, bai eta arazoari gero eta gehiago eusteko neurrien irudikapen soziala ere.
4. Droga-mendekotasunaren aurrean izan beharreko jokabidean, komunitatea konpromiso handiago eta eraginkorrago batera eramango duen **portaera soziala** sustatzea.

5.2. HELBURU ESPEZIFIKOAK

Jarritako helburu orokorren zentzua zehazteko asmoz, honako helburu espezifiko hauek proposatzen dira:

5.2.1. Substantzia psikoaktiboen kontsumoa gutxitzeari dagokionez:

- a) Oro har populazioan dagoen alkoholaren eta tabakoaren beheranzko joerari eustea.
- b) Gazteek asteburuetan egiten duten alkohol-gehiegikeriaren goranzko joera aldatzea, batez ere leku publikoetako kontsumoan eraginez.
- c) Gazteen kanabis-kontsumoaren goranzko kontsumoaren joera aldatzea.
- d) Gazteen speed-a, kokaina eta estasiaren kontsumoaren goranzko joera aldatzea.
- e) Instituzionalizatu gabeko drogak hartzen dituzten erabiltzaile berrien kontsumorako sarrera gutxitzea.
- f) Heroinaren kontsumoa desagertzeko joerari eustea.
- g) LSDren kontsumo txiki eta beheranzko joera duenari eustea.
- h) Droga berrien kontsumorako sarrera-kota gutxitzea (Ketamina, GHB, onddo psilozibikoak...)

5.2.2. Droga gehiegi hartzeak dakartzan **ondorioak leuntzeari** dagokionez:

- a) Drogen mende dauden pertsonen errehabilitazio eta tratamendurako baliabideak egokitzea eta arrazionalizatzea.
- b) Laguntza sare zabala eskaintzea, terapia-ibilbide pertsonalizatuak egiteko aukera emango duen sarea, eta “arriskuak eta kalteak gutxitzeko” filosofian oinarrituriko tresnak eta programak izango dituen.

- c) Drogazaleak heziketa, enplegua eta, oro har, gizarteratze alorreko programetan sar daitezen bultzatzea.

5.2.3. **Irudikapen sozialari** dagokionez, bereizi behar ditugu gizartean, orokorrean, diren bi jarduketa-eremu: instituzionala (erakunde publikoak eta pribatu itaunduak), eta populazioarena, bere osotasunean.

5.2.3.1. *Instituzio alorrerako* helburuak :

- a) Eskumena duten erakundeek bere gain hartzea 18/98 legeak, droga-mendekotasunari dagokionez, Prebentzioa, Laguntza eta Gizarteratzea arautzeko ezartzen dituen jarduteko irizpide orokorrak:

- ⇒ Droga-mendekotasunaren arazoari globalki aurre egitea.
- ⇒ Beraren dimentsio aniztasuna.
- ⇒ Normalizazioa.
- ⇒ Parte-hartze soziala.

- b) 18/98 Legeak arautzen dituen eta hurrengo atalean islatuko diren prebentzio alorrean jarduteko irizpideak sartzea.

5.2.3.2. *Populazio orokorrarentzako* helburuak :

- a) Droga kontzeptuaren irudi globalizatua sustatzea, bere barnean legez kontrako substantzia psikoaktiboak zein legalak direnak (alkohola, tabakoa eta psikofarmakoak) hartuko dituen irudia.
- b) Droga-mendekotasunak arazo larria direla azpimarratzea, eta aitortzea arazoa ez dakarrela hainbeste substantziak berak, substantzia horiekin pertsonak edo komunitateak berak ezartzen duten harremanak baizik.

- c) Prebentzioa posible dela onartzea; drogak desegoki erabiltzeagatik sortutako arazoak modu eraginkorrean gutxitu litezkeela.
- d) Instituzionalizatutako drogen kontsumoa, banaketa, salmenta eta publizitatearen inguruko murrizketa eta debekuak hiritarren arteko elkarbizitza arduratsuago baten aldeko prebentziozko neurri gisa ulertzea
- e) Droga legalen gehiegizko kontsumoaren prebentzioak edozein motatako droga-mendekotasunaren prebentzian laguntzen duela ulertzea
- f) Ohartzea prebentzioa gizarteko kolektibo guztien egitekoa dela, hau da, gizarte zibilak, oro har, bere gain hartu beharreko ardura. Pertsona bakoitzak, dagokion eginkizun sozialetik, prebentzioari begira hainbat aukera eta baliabide ditu. Horrexegatik lan egin behar dugu guk geuk, egitekoa beste erakunde edo espezialisten esku utzi gabe. Ardura elkarbanatzeak arazoaren pertzepzioan normalizazioa ekarriko du eta baita arlo desberdinetatik aurre egin ahal izatea ere.
- g) Onartzea prebentziorik eraginkorrena egoera normalizatuetan egiten dena dela, hau da, egunerokotasunetik eta espezifikotasun ezatik abiatuak.
- h) Drogazalearen errehabilitazioa benetako posibilitatetzat hartzea.
- i) Ulertzea drogazalea bizitza sozial normalizatu batean integratu litekeela eta hori, hein handi batean, gizarteak egiten dion harrera positiboaren baitan dagoela.
- j) Drogazalearen irudi sozial bat garatzea, portaera arazoak dituen pertsonatzat hartua izan dadin, eta ez biziotsua, edota balorazio morala suposatzen duen beste edonolako.

- k) Drogazalearen irudi soziala, kontsumitzen duen substantziarekin lotu beharrean, substantzia horrekin duen mendekotasun-moduarekin lotzea erdiestea.

5.2.4. **Portaera sozialari** dagokionez:

5.2.4.1. *Instituzio alorrerako* helburuak:

- a) 18/98 Legean droga-mendekotasunari dagokionez ezartzen diren erakunde arduradunen jarduketa-programak planifikatzea, betiere entitate bakoitzaren konpetentzia eremura egokituta.
- ⇒ Helburu zehatzak definitzea jarduketa programa bakoitzerako.
 - ⇒ Programa bakoitzerako urtean zehar egin beharreko aktibitateak zehaztea.
 - ⇒ Ebaluazio plan bat egitea.
 - ⇒ Beharrezkoa den egitura funtzionala sortzea, mantentzea edo finkatzea, Sail edo entitate arduradun bakoitzak programei erantzun ahal izateko.
 - ⇒ Programak garatzeko behar diren giza baliabideak eta baita baliabide tekniko eta materialak ere izendatzea eta esplizitatzea.
 - ⇒ Egitarauak garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak dagozkien aurrekontu partidei esleitzea.
- b) Planifikatutako egitarauak ezartzea eta garatzea.
- c) Garatu diren jarduketa programen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

5.2.4.2. *Populazio orokorrarentzako* helburuak:

- a) Prebentzio alorrari eta drogazaleen gizarteratzeari begira honako hauen partaidetza bultzatzea eta sendotzea: bitartekari sozialena (hezitzaileak, astialdiko monitoreak, polizia, epaileak, informazioaren ardura dutenak, lehen mailako arretako osasun zerbitzuetako eta zerbitzu sozialetako langileak, gurasoak, auzo-elkarteak, etab.) eta , oro har, hiritarra. Eta guztia honako hau lortzeko asmoz:

- ⇒ Lor dezatela behar adina informazio eta ezagupen droga-mendekotasunaren arazo sozialaren inguruan, nork bere rol sozialaren arduratik arazoari ekiteko moduz, larrialdian nora jo dezaketen, zein sendabide posibilitate dagoen, etab.
- ⇒ Parte-hartze handiagoa drogen aurkako gizarte mugimendu eta ekimenetan.
- ⇒ Joka dezatela prebentziogile gisa, nork bere ardura eta eginkizun sozialaren arabera.

**6. PREBENTZIOARI
BEGIRA
JARDUTEKO
IRIZPIDEAK**

Tokiko Plan honek prebentzioari, beste jarduketa-eremu batzuen aurretik, lehentasuna ematearen aldeko apustua egiten du, eta uste du hura izan behar dela, drogei dagokienez, gizartearen mentalitate aldaketaren zerbitzuan egon beharreko tresna bat.

Prebentzioak, oro har, populazioa izango du azken hartzailea, eta honako hauekin zerikusia duten hainbat eta hainbat jardueraren bidez egingo da:

- Drogen eskaria eta kontsumoa.
- Eskaintza.

Drogazaleatasunaren arrazoiak anitz eta desberdinak direnez, arrazoiaren aniztasun hori aintzat hartu beharko da bere genesiarekin zuzenean lotutako alderdiak ikertzerakoan zein zeharrekoak edo mesedegarriak diren alderdiak ikertzerakoan.

Prebentzio jarduerak erabat loturik egongo dira leku hauetako ohiko jardunarekin: Udaletxe, Osakidetza, hezkuntza-sistema, justizia-sistema, polizia,... Sektore horietako bakoitzak pentsatu beharko du zein harreman duen prebentzioaren osagai handiotako bakoitzarekin:

- Drogen eta haien erabilera sozialen inguruko informazioa.
- Osasun-hezkuntza.
- Droga kontsumora bultzatzen duten gizarte baldintzak hobetzea.
- Substantzien kontrola eta haien publizitateari mugak jartzea.

Gogoeta horren ondoren sortutako jarduerak KOMUNITATEA izango du erreferentzia puntutzat, hura baita neurriaren prebentzio zentzua ulertu eta bereganatu behar duena eta, azken finean, bere aplikazioaren arduraduna.

Horrela bada, gizarteko bitartekari eta hiritar bakoitzak, dagoen testuinguru eta "rol" sozialetik abiaturik, zeregin garrantzitsua izan dezake prebentzioan.

Irizpide hauen ildotik, gizartean, berarentzat eta berarekin egiten den ekinbide hau bi motatako esku-hartze dituen lan orekatu baten bidez egingo da.

- **PREBENTZIOZKO JARDUERA ESPEZIFIKOAK**

Horien artean hiru jarduera desberdin bereizten dira:

- a) **Informazioa:** Populazioari informazio egokia eta egiazkoa eman behar zaio mendekotasuna sor lezaketen substantziei, haien erabilerari eta erabiltzaileei dagokienez; era berean, drogaletasunarekin zerikusirik duten gaien inguruan eta dauden errekursoen inguruan aholkatu eta orientatu
- b) **Osasun-hezkuntza:** Ohitura eta portaera osasungarriak sustatzea suposatzen du. Azken batean, bizimodu osasungarria bultzatu nahi du, eguneroko bizimodutik substantzia kaltegarrien kontsumo konpulsiboa baztertzen duen bizimodua.
- c) **Substantzien kontrolarekin zerikusia duen arreta:** Lehen ardura, eta oinarrizkoena, droga legalei dagokiena da. Kontsumoari, eskaintzari eta publizitateari mugak jartzeko neurriak dira. Helburua ez da gizabanakoari haien erabilera debekatzea, baizik eta testuinguru soziala babestea, eta bereziki ahulenak (adingabeak). Gaur egun, eta ikusirik zer-nolako arrisku sozialak dauden, honelako jarduerak ikuspegi pedagogiko batetik planteatu behar dira, errefusatuak izan ez daitezten.

Gai honetan berebiziko garrantzia duten puntuak dira droga legalen salmenta 18 urtetik beherakoentzat, eta baita zenbait tokitan egin beharreko kontsumoaren murrizketa, esate baterako osasun, kirol edo hezkuntza esparruetan,... Baina argi dago denok ulertu behar dugula gaiaren garrantzia, hori izango baita lortzeko era bakarra.

Kontrol-jarduerak izango du eraginik droga ilegalean ere; horrela, garrantzi handikoa izango da komunitateak neurri hauek babestea, nola prebentzio alderdiaren aplikazioari dagokionez, hala trafikoaren salaketari dagokionez.

- **ESPEZIFIKOAK EZ DIREN PREBENTZIOZKO JARDUERAK**

Honako hau dute helburu: drogak desegoki erabiltzera bultzatzen duten arrazoi edo faktoreengan jardutea eta hiritarren artean mentalitate

bat sortzea, dinamika sozialean era eraginkor eta prebentiboan inplikatu daitezten.

Lehenik eta behin eskatzen du fenomenoaren garapenean eragiten duten alderdiak eta jarduteko dituzten dinamikak objektiboki analizatzea eta, bigarrenik, haiengan prebentzioaren bidez esku-hartzeko aukerak ulertzea eta nork bere gain hartzea.

Bere nolakotasuna komunitatearen prebentzio gaitasuna indartzea eta egiten diren jarduerak bideratzea da. Hiritar bakoitzari, bere "rol" partikularretik, mugarik gabeko konpromiso eta jardunean aritzeko aukera ematen dio.

Ekintzarik garrantzitsuenak honako hauekin dute zerikusia:

- A. Gizabanakoaren eskumenak sustatzen dituzten prozesuak, bizimodu autonomoa, bere ongizatearekin eta komunitatearekin errespetuzkoa eta arduratsua den bizimodua antolatzeke (balioen irakaskuntza, gaitasun sozialak, autoestimua, afektibitatea, segurtasuna, oreka psikikoa,...).
- B. Mendekotasuna sortzeke gai diren substantzien kontsumoan eragina duten baldintza sozialetan esku-hartzea, honakoak barne:
 - Prebentziozke esku-hartzeak bizi-baldintzak hobetzeke eta, mendekotasuna sortzeke gai diren substantzien kontsumoan eragina duten baztertze faktore pertsonalak edo familiarrak gainditzeko.
 - Gizarteko arrisku-taldeetan elkarbizitza sustatzeko ekintzak bultzatzea, bereziki gazteen eta adingabeen artean, gazteen arteko asoziazionismoa bultzatuz eta baita haien parte hartzea ere, esate baterako okupazioa, aisialdia, kirola edo kulturarekin zerikusia duten programetan.
 - Gazteen artean honelako jarduerak sustatzea: lanbide heziketa, lehendabiziko lana, nork bere lana sortzea eta enpresa sustapena; eskola-porrota eta lan aukerarik eza baitira, hain zuzen ere, drogazaletasuna agertzen laguntzen duten faktoreak.
 - Hirigintzak elkartasun, berdintasun eta arrazionaltasun irizpideei erantzun diezaion zaintzea, hiriaren garapena orekatua izanez gero, drogazaletasuna ekartzen duten arrazoiak gainditzeko faktore bat da eta.

**7. TOKIKO
ADMINISTRAZIOA-
REN ETA KANPOKO
BESTE
ERAKUNDEEN
EKARPENAK**

7.- TOKIKO ADMINISTRAZIOAREN ETA KANPOKO BESTE ERAKUNDEEN EKARPENAK

Hezkuntza, Gazteria, Kultur eta Kirol arloak zeregin garrantzitsua du drogamenpekotasunen prebentzioan; izan ere, herriari hainbat ekintza eta programa eskaintzen dizkio aisialdi eta denbora libreko alternatiba osasuntsuak izan daitezkeenak eta bizitzeko estilo osasuntsuak sortzea ahalbideratzen dutenak. Osasuntsuak esaten dugu, giza ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko aukera ematen dutelako ikuspegi fisiko, psikiko eta sozialetik. Zeregin honetan ezinbestekoa da baliabideak edo ekintzak zuzentzen zaizkion biztanle taldearen parte hartze aktiboa bultzatzea.

Era berean, gizarte ekimena eta elkarteak bultzatzeak sinergia eragiten du prebentzio lanetan.

Azpimarratu bide batez ludoteka, udaleku, denbora libreko ekintza eta abarrek egindako lan integratzailea, batez ere gizarte mailako zailtasunak dituzten adin txikikoentzako.

7.1. HEZKUNTZA, GAZTERIA, KULTURA ETA KIROL ARLOA

• EKINTZAK

1. HEZKUNTZA

Hezkuntza alorretik, eta udalaren eskumenaren pean, aukera handiak daude prebentzio mailan esku hartzeko, batez ere eskolan eta gizartean integratzerakoan zailtasunak dituzten pertsonen begira.

Ikastetxeen mantenurako egin behar diren lanek kanpo, honako jarduerak hauek ere bideratzen dira:

- ⇒ Irakurketan zaletzeko programa Lehen Hezkuntza eta DBHrako.
- ⇒ Eskola eta Lanbide Heziketa Garraiorako bekak kanpoaldeko auzoetatik eskolara ekartzeko.

- ⇒ Nazioarteko Txotxongilo Jaialdia: Saiotara 900 bat gazte joan ohi dira.
- ⇒ Zuhaitz eguna: Ingurugiroa errespetatzeko antolatzen den ekintza honetan 500 bat zuhaitz landatu ohi dituzte udalerriko haurrek.
- ⇒ Dirulaguntzak hezkuntza eta elkarte proiektuei.
- ⇒ Dirulaguntzak Gurasoen jarduerari.
- ⇒ Ikastetxeen jarduera osagarriak.
- ⇒ Udal Haurtzaindegia, 3 urte arteko 70 haurrentzako tokiarekin.
- ⇒ Kontzertu Pedagogikoak.
- ⇒ Zientzia eta Teknologiariko buruzko erakusketak.

2. GAZTERIA

- **Udal ludotekak.**

Jolasaren bidez, haurraren eta adolozentearen nortasuna garatzen dute, haurren arteko harremanak areagotu eta hobetzen dituzte, eta horrez gainera, heziketarako eta libre parte hartzeko espazioak bultzatzen dituzte.

Dunboako udal ludoteka: Astean hiru egun egoten da irekita (astelehen, asteazken eta ostiral) 17:00etatik 20:00etara.

San Migeleko udal ludoteka: Astean hiru egun egoten da irekita (astearte eta ostegunetan 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:00era).

Lapitzeko udal ludoteka: Astean bost egun egoten da irekita (astelehenean ostiralera 17:00etatik 20:00etara).

Sarrera librea eta doan izaten da 4 eta 14 urte arteko haurrentzako. Jostailuak uzteko zerbitzua ere badute.

- **Gazte Antzerki Erakustaldia.**

Gure hirian gazteek egiten duten antzerki lana eta presentzia sustatu eta hedatzea du helburu, bertako antzerki taldeei laguntzeaz gainera. 30 urtetik beherako partehartzaileek osatutako taldeek hartzen dute parte.

- **Gazteen elkarteak sustatzea.**

Elkarteen alorrean gazteek eta haurrek parte har dezaten bultzatzea du helburu. Gazteen elkarteak sortzea, denboran irautea eta sendotzea lortu nahi du. Horretarako, dirulaguntza batzuk ematen dira, eta batik bat denbora libreko taldeak, gazteen musika taldeak eta hainbat gazte talderen ekintza puntualak izaten dira onuradun.

- **"Cinema Paradiso" Zine Kluba:**

1995. urtean sortutako elkarte da eta, udalaren laguntzaz, filmen proiektzioak antolatzen ditu Amaia Kultur Zentroan nahiz aire zabalean.

- **Udal entsegu aretoak.**

Gazteen artean musika sormena sustatzea eta elkartze esparruan parte hartzea du helburu. Gazteen musika taldeak sortzea, denboran irautea eta sendotzea lortu nahi du. Udalak, behar bezala egokituriko 5 lokal jartzen ditu musika taldeen eskura. Areto horien kudeaketaz taldeak berak antolatzen dira elkarte baten bidez.

- **GAZTEBURU aisiarako jarduera alternatiboen programa**

Ostiral arratsalde-gauetan eta bereziki larunbatetan aisiarako jarduera alternatiboak eskaintzea du helburu, eta horretarako, tailerrak, filmak, rol eta estrategia jokoak antolatzen dira, eta udan, berriz, era guztietako ekitaldian antolatzen dira kalean, hauxe da, kontzertuak, Dj'ak, tailerrak, kirol ginkanak, kart....

- **Martindozenea Aterpe Gaztelekua**

Instalazio berri honek bi zerbitzu desberdin eskaintzen ditu, Gazte Aterpea eta Gaztelekua

Aterpea, era guztietako taldeak egon eta ostatu hartzeko lekua, bereziki gazteentzako. Gazte Aterpe gisa 60 leku ditu eta beharreko zerbitzu guztiak, jantokia, garbitegia, sukalde librea, egongela, internet kontsulta doan, erabilera anitzeko aretoak, WC, dutxak, haurrak aldatzeko lekua, eta instalazio osoa erabiltzaile ezinduentzako egokitua dago.

Irekitze datak:

Apirilaren 1etik irailaren 30era, edozein aterpezale onartuko da bakarka edo taldeka. **Urriaren 1etik martxoaren 31ra** soilik alde aurretik eskatuta 15 lagunetik gorako taldeentzat eta bakarkako

aterpezaleentzat instalazioa gutxienez talde batek okupatua badago.

Gaztelekua, berriz, gazteentzako eta gazteek (14-30 urte) era guztietako jarduerak egiteko instalazioa da, eta honako zerbitzu hauek ditu: erabilera askotarako 4 areto eta erakusketa areto bat, ikus-entzunezko materiala erabiltzaileen eskura, internet kontsulta doan, informazioa, komiki, liburu, joko trukea, hemeroteka, mahai-jokoak...

- **Gazte Informazio Bulegoa**

Gazte informazio bulegoa udal lokaletan dago 1990. urte amaieran zabaldu zenetik. Bulegoaren jarduera hiru alorretan banatzen da: informazioa, aholkularitza eta ekintza soziokulturalak.

Ohiko erabiltzailea 20 - 24 urte arteko gaztea da, ikaslea, eta kontsulta gehienak hezkuntza alorrekoak izaten dira, denbora librearen inguruko informazioa dator ondoren.

Informazio lanak egiteaz gainera, bestelako jarduerak ere bideratzen ditu:

- Prensa tailerra (Gaztepress): Informazio buletin edo aldizkari bat argitaratzea du helburu, hiruhilean behin, BAZEN GARAIA! izenarekin. 12-14 gaztek osatutako talde batek egiten du aldizkari hori.
- Zine eta Bideo Gaztea Lehiaketa: Gazte errealizadore eta zuzendarientzako lehiaketa da. Hautaketa batzordea udalerriko gazteek osatzen dute.

- **Haurrentzako udalekuak**

Alor honetako eskaintza uztaila eta abuztuan 12 eguneko udalekuak antolatzean datza Nafarroako Lukin herrian. Udalak bere eraikina du herri horretan.

- **Gazteen arteko elkartrukeak**

Ekintza honen bitartez partehartzaileen artean hobeto ezagutzea, eta beste kultura batzuk, kultur eta monumentu ondarea eta abar ezagutzea lortu nahi da, elkartasuna eta tolerantzia bezalako baloreak bultzatuz.

Hamabost egun irauten du eta elkartrukean parte hartzen duen hiri bakoitzean astebete igarotzen dute. 17 – 21 urte arteko gazteek hartzen dute parte.

3. KULTURA

• Udal Liburutegia:

Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: liburuen kontsulta eta mailegua, ikus-entzunezko materiala, katalogoen kontsulta ordenadore eta interneten bidez, liburutegien arteko mailegua goizez eta arratsaldez. Hori guztia hainbat aretotan banatua: areto Orokorra, Haur eta Gazteentzako aretoa, irakurketa aretoa edo Hemeroteka, mailegu aretoa, 2 Ikasketa areto, Internet aretoa.

Liburutegiaren berezko jardueraz gainera, literatura eta literatur kultura hedatzeko programak bideratzen ditu:

- Ipuin kontalaria: haurrentzako (hilean hiru aldiz) eta helduentzako saioak dira (hilean saio bat).
- Literatur tailerra: Jarduera honen bidez kulturaren ikuspegitik interesa duten gaiak lantzen dira; Literatur Mintegia; Lehiaketa: Irun Hiria Literatur Saria.
- Poesia saioak: Hainbat poesia saio eta hizketaldi egiten dira.
- Liburuaren eguna: Liburuaren egunean honako jarduera hauek antolatzen dira: hitzaldiak, obrak jende aurrean irakurtzea, erakusketak, irakurtzen zaletzeko saioak...

• Auzoetako liburutegiak:

8 liburutegi daude auzoetan (Dumboa, Artia, Elitxu, Alde Zaharra, Belaskoenea, Katea, San Migel eta Larreaundi), Auzo Elkarteetan lokaletan daude guztiak ere.

• Musika Fundazioa

- Musika Hezkuntzarako Zentroa da, Irungo Udala da haren titularra, eta Musika Eskola eta Erdi Mailako Kontserbatorio batek osatzen dute.

- Udal Musika eta Dantza Eskolak prestakuntza praktikoa eskaintzen du musikan eta dantzan, musika ikaskuntzan hainbat maila eskaintzen ditu, hainbat instrumentu jotzen ikasteko eta instrumentu multzoetan parte hartzeko aukera. Era berean, dantza klasiko eta garaikidea ikasteko klaseak eskaintzen ditu.
- Erdi Mailako Kontserbatorioa. Erdi Mailako sei ikastaro, Titulu Profesionala, Musika Hizkuntza, Instrumentu multzoen taldeak eta abar.
- Besta jarduerak: Kontzertuak, Interprete Gazteen Lehiaketa, Luis Mariano Nazioarteko Kantu Txapelketa, ikastaroak, trukeak eta intereseko zitak eskola ikasturtean zehar, eta abar.

- **Txistularien Banda**

- Hiriko auzoetan barrena dianak jotzen dituzte eta Udalak antolatzen dituen ekintza ofizialetan parte hartzen dute.

- **Arte irakaskuntzak**

- Udal marrazki eta pintura akademia (olio-pintura, pastela, giza irudiak, eta abar). Eskola ikasturtearen barnean marrazki eta pintura klaseak ematen dira eta udan ikastaroak.
- Zeramika tailerra: Hainbat maila eta modalitate eskaintzen ditu (zeramikaren hastapenak, modelatua gres pasta eta erregogorrekin, raku..). Udan ikastaroak antolatzen dira haur eta gazteentzako.

- **Jaien programak**

- Jai tradizionalak eta herri jaiak (Errege Magoen Kabalgata, Inauteriak, San Martzial Jaiak, Txingudi Eguna, Santo Tomas, eta abar..).

- **Kulturaren sustapena eta hedapena**

Musika:

- Musika Klasikoaren errezitaldiak
- Kontzertuak (pop, folk, gospel...), urtean hamar batez beste.
- Bidasoako Folk Jaialdia, abuztuan.

Erakusketak:

- Era askotako erakusketak antolatzen dira (pintura, argazkia, eta abar), urtean 38 erakusketa batez beste.

Ikus-entzunezkoak:

- Diapositiben proiektzioa, diaporamak, Zure Abenturaren bila Programa (Abentura bidaiei buruzko proiektzioak eta hitzaldiak).
- Zikloen antolaketa, Urpeko Zinearen Zikloa, esate baterako, eta abar.

Arte eszenikoak:

- Antzerkia: Hilean bi talde, bata helduentzako eta bestea haurrentzako.
- Dantza: Bi hilean behin ekitaldi bat.
- Poesia: Noizean behin errezitaldiak egiten dira.

Kultur erakundeei dirulaguntzak emateko programa: Dirulaguntza batzuk ematen dira kultur jarduera, argitalpen eta jaietarako.

• **Amaia Kultur Zentroa**

Amaia Kultur Zentroan kultura Sustatu eta Hedatzeko jarduera ugari antolatzen dira hiritar guztientzako. Jarduera horiek Udalak eta Udal Musika Fundazioak nahiz erakunde pribatu edo/eta partikularrek sustatzen dituzte eta diziplina ugari hartzen dituzte: Ikus-entzunezkoak, antzerkia, hitzaldiak, ikastaroak eta tailerrak, zinea, musika, erakusketak eta beste hainbat ekitaldi..

• **Museoak**

- Ama Xantalen Ermitako Museoa, erromatarren garaiko multzo arkeologiko bat ikus daiteke bertan. Bisita gidatuak, kontsultarako katalogoak, ikus-entzunezkoen erakustaldiak, ikastetxeetarako unitate didaktikoak... egiten dira.

- Ama Xantalen Ermitako Museoan jendeari arreta eskaintzeko beka, karrerako azken ikasturtean ari diren ikasleentzako edo azken urtean lizentziatu direnentzako.
- “Oiasso” Erromanizazio Museoaren proiektua, gaur egun eraikitze fasean. Proiektu honek aukera emango du Oiassoko erromatar hiria izan zenean eta inguruetan barrena turismo-kultura ibilbide bat egiteko.

3. KIROLA

- **Irungo Udal Patronatua**

Irungo Kirolaren Udal Patronatua Toki Erakunde Autonomoa da, Irungo Udalak kirolaren alorrean dituen eskumenak bideratzen dituen erakunde publikoa, eta kalitate handiko kirol zerbitzuak sortu eta eskaintzen dizkio Irungo udalerrinari, kirol jardueren sustapen eta praktikari begira hiritarrek dituzten beharrei erantzun ahal izateko. Era horretan, gure udalerrian bizi-kalitatea hobetzen eta hiri-zentzua sortzen laguntzen du.

Kirolaren Udal Patronatuak eskaintzen dituen zerbitzuak honako jarduera esparru hauetan biltzen dira:

1.- Prestakuntza esparrua: Prestakuntza garatzen laguntzen du eskolako hezkuntza etapetan. Ikastetxeei laguntza eskaintzen zaie, azpiegiturak sortzen dira eta eskola kirola antolatzen da.

2.- Jolas esparrua: Azpiegitura sortu eta sasoian jartzeko, jolaserako, aisia erabiltzeko eta izate osasungarria sortzeko aukera ematen zaie hiritarrei (norberak aukeratzen duenaren arabera).

3.- Errendimendu esparrua: Errendimendu eta eliteko klubak sustatu eta antolatzeko laguntza eskaintzen da, eta horretarako, hirian kirola egituratu, klubak antolatu, dirulaguntzak eman eta beren jarduerak aurrera eramateko azpiegiturak sortzen dira.

Osagarri gisa, kirolez kanpoko zerbitzuak eskaintzen ditu, baldin eta gure komunitaterako onuragarri badira.

- **Irungo Kirolaren Udal Patronatuak eskaintzen dituen zerbitzuak**

1.- Jarduera fisikorako orientazio zerbitzua (J.F.O.Z.)

Irungo Kirolaren Udal Patronatuak eskaintzen duen zerbitzua da eta hiritarrei, banan-banan, jarduera fisikorako aukera edo programa desberdinei buruzko informazioa, aholkuak eta orientabideak ematea du xede, hauxe da, beren eguneroko jardueretan nahiz beren denbora librean modu egituratuan egin ditzaketen jarduerak, bakoitzak bere osasun-baldintza, behar, baliabide eta nahien arabera, jarduera atsegina eta osasungarria egiteko ohitura hartu ahal izateko.

2.- Irungo Kirolaren Udal Patronatuak eskaintzen dituen ikastaroak eta jarduerak: Gimnasia, Gimnasia terapeutikoa, Igeriketa, Aerobic, Funky, Jazz, Yoga, Aretoko dantzak, Sevillanak, eta abar..

3. IRUNSASOI programa

Programa honetan Irungo Osasun Zentroetako sendagileek eta Irungo Kirolaren Udal Patronatuko kirol teknikariek elkarrekin lan egiteko konpromisoa hartu dute gero eta jende gehiagok jarduera fisikoa egin eta, horri esker, osasuna hobetu dezan lortzeko. Bereziki prebentzio eta osasuna sustatzeko ondorioak ditu programa honek.

Pertsona horiei jarduera fisiko bat gomendatuko zaie eta Kirolaren Patronatuak doan ematen duen zerbitzuaren berri emango zaie. Patronatuan, kirol teknikari batek banan-banan orientabideak emango dizkie bakoitzaren ezaugarri eta interesei hoberen egokitzen zaien jarduera fisikoari buruz.

4.- Irungo Kirolaren Udal Patronatuak dituen kirol espazioen zerrenda:

- **INSTALAZIOA: ARTALEKU UDAL KIROLDEGIA**
(-Pilotalekua; Trinketa; Squash; Erabilera anitzeko Pista; Gomazko alfonbrak; Fitness Gimnasioa; Igerilekua; Rokodromoa, eta abar...)
- *INSTALAZIOA: ARTIA*
- **INSTALAZIOA: PLAIAUNDI**
- *INSTALAZIOA: URANZU*
- *STADIUM GAL (Real Union Klubari utzitako instalazioa)*

5. Eskola kirolaren barneko jardueren eskaintza

Helburuak:

- Udalerriko ikasle guztiei kirola egiteko aukera ematea, edozein direla ere beren baldintzak, ahalmenak edo trebetasunak.
- Herri mailan eskola kirolerako jardueren programa bat prestatzea, udalerriko ikasleek hezkuntza integral osoa izan dezaten, beren nortasunaren garapen orekatua lortu eta bizi ohitura osasungarriak har ditzaten.
- Udallerri mailan eskola kirolaren kudeaketa eta atentziorako oinarrizko egitura sendotzea, ikastetxeen ordezkarien eta jardueren antolatzaileen partaidetza indartuz.
- Emakumezkoen partehartzea areagotzea eskaintzaosatzen duten jardueretan.
- Eskola kirolaren barnean kirol anitzeko eredua sendotzea, benjamin eta alebin kategoriei arreta berezia eskainiz.
- Gaitasunak dituzten ikasleak hautemateko prozesuen arrazionalizazioan aurrera egitea eta ikasle horiek kirol errendimenduaren bidean jartzea.
- Ikastetxearekin batera lan egiten duten monitoreen kalitatea hobetzea.
- Programaren finantzazioaren finkatze eta erregularizazioan aurrera egitea jardueren urteko eskaintza sendotu ahal izateko.
- Eskola kirolaren barneko jardueren antolamendu, garapen eta finantzazioan parte hartzen duten kolektiboen inplikazioa areagotzea.

Esku hartzen duten agenteak eta eduki orokorrak.

Zentroak programaturiko jardueren eskaintza benjamin, alebin, infantil eta kadete kategorientzako da, eta honako eduki hauek ditu:

- *Prestakuntza eta aisiarako jarduerak*
- *Sustapen jarduerak*
- *Teknifikazio jarduerak*
- *Udako jarduerak*
- *Eskolarteko Olinpiada*

Jardueren eskaintza benjamin, alebin, infantil eta kadete kategorientzako da, eta honako jarduera hauek eskaintzen dira: saskibaloia, eskubaloia, futbola, atletismoa, igeriketa, sofbola, xakea, tenisa, gimnasia erritmikoa, pilota, hipika, ziklismoa, eta abar.

6.- Dirulaguntza programa kirol jardueren kontzeptuan

Kirolaren Udal Patronatuak beste gizarte agente batzuek antolatu eta hiritarrei zuzendutako kirol jarduerak sustatzen ditu dirulaguntza programa baten bidez. Programa horrek honako ildo hauek jasotzen ditu:

7.2. LEHENDAKARITZA ARLOA

• **EUSKARA ZERBITZUA (2004. urtetik aurrera EUSKARA ARLOA)**

Onartu berri den Euskararen Udal Ordenantza arian-arian martxan jartzea eta ikastetxeek euskaraz egiten dituzten ekintzak indartzea du xede. Azken batean, udalerriko gizarte bizitzan euskararen erabilera indartzea du helburu eta horren erabilerari izaera integratzailea eta normalizatzailea ematen zaio gizarte alorrean.

Hemendik gutxira abian jarriko da Euskararen Erabilera Sustatzeko Plan Orokorra. Hona hemen haren helburu estrategikoak:

- Euskararen transmisioa sustatzea
- Euskararen gizarte erabilera sustatzea: zerbitzuak euskaraz ematea
- Hizkuntzaren kalitatea sustatzea

Euskara zerbitzuak honako programa hauek garatzen ditu:

• **Euskararen sustapena Udalean:**

- Langileen Euskalduntze-alfabetatze Plana
- Trebatze programak
- Erabilera planak

- **Euskaren sustapena udalerrian:**

- Euskararen udal ordenantza garatzeko plana.
- Hitzarmena "Irun Iruten" euskara sustatzeko elkartearekin.
- IRUNERO aldizkaria: doaneko aldizkaria da, hilabetekaria, eta 2.500 ale argitaratzen ditu. Erredakzio taldearekin kolaboratzeko aukera ematen da 16 urtetik aurrera.
- Komunikabideei dirulaguntzak.
- "Kalean Bai", Irunen euskaraz antolatzen diren jardueren gida.
- Irunen, Hondarribian eta Hendaian euskaraz egin daitezkeen jardueren gida 2003-2004
- Gurasoentzako transmisio programa: euskara erabiltzen du guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa areagotzeko tresna gisa.
- Dirulaguntzak talde eta erakundeei.
- "Irunen Kantuz" sentsibilizazio programa.
- Bertso-eskola, 2003-2004 ikasturtea (Partzuergoaren bidez). Bertsolaritza eskola 14 urtetik gorako gazteentzat.

- **Euskararen sustapena haur eta gazteengan:**

- Euskaraz Baietz programa. Ikasturtean zehar egiten da. Programa horren ardura eskolak berak edo guraso elkarteak eramaten du.
- Solas-Jolas programa, 4 urtetik 10 urte bitarteko haurrei zuzendua.
- Euskararen eskola hilabetea.
- "Kalean Bai" plana. Ikastetxeek eta tokiko erakundeek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak euskalduntzea du xede.
- "Kirola Euskaraz" plana. Kirol teknikari batek in situ esku hartu eta eskola kirola programaren barneko kirol jardueretan euskara sustatu nahi da (Irun eta Hondarribiko Euskara eta Kirol zerbitzuek prestatua).
- Hezitzaileak prestatzeko plana

- Beste jarduera batzuetarako dirulaguntzak.

• **Euskararen sustapena helduengan:**

- Udal Euskaltegia

- Euskara ikasi edo hobetzeko beka. Euskara ikasi nahi duten edo dakitena hobetu nahi duten hiritar guztiak dira beka horien onuradun.

• **Itzulpen zerbitzua**

- Administrazioari zuzendua, eta baita hiritarrei ere oro har. Doaneko zerbitzua da.

• **Hizkuntz azterketak:**

- Azterketa soziolinguistikoak

- Toponimia azterketa: Jose A. Loidi ikerketa beka.

• **LANGILERIA ZERBITZUA**

• Urteko osasun azterketak:

Langileria sailetik hainbat jarduera aurrera eramaten dira, prebentzio izaera nabarmena dutenak. Alde batetik, enpresako osasun zerbitzuak egiten dituen lanak daude, haren bitartez eta indarrean dagoen legeria kontuan harturik, urtero udal langile bakoitzari osasun azterketak egiten zaizkio honako bi helburu hauekin:

a) bakoitzaren eta kolektiboaren osasun egoera ezagutzea, eta

b) osasunerako hezteak.

Azken helburu horri begira, enpresako osasun zerbitzuak dependentzia edo mendekotasun jakin batzuk utzi ahal izateko esku hartzeak bideratzen ditu, udal langileei tabakoa uzteko eskaintzen zaien programa, esate baterako.

Horretarako, azken urte hauetan zehar hainbat programa eraman dira aurrera: “Erretzeari uzteko laguntza”, “Nikotinaren hatzaparretan?”, eta oso emaitza onak lortu dira. Tabakoarekiko jokabidea eta mendekotasun maila ezagutu eta ebaluatzeko eskaintzak egin dira.

Era berean, kirola sustatu da, eta Alzheimer, Parkinson eta abar bezalako neuroendekapenezko gaixotasunen prebentzio-lanean ere garrantzi handia eman zaio jarduera fisikoari. Dopatzeko produktuen arriskuei buruzko informazioa eskaini da; eta dieta orekatua eta jarduera fisiko egokia egiteak duen garrantzia azpimarratu da.

- **Enplegua sustatzeko proiektuak:**

Enplegua Sustatzeko proiektuen bitartez egindako kontratazioen bidez, gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden kolektiboak integratu nahi dira enplegua bitarteko izanik. Proiektu hauek formazio okupazionala eta enplegua konbinatzen dituzte batzuetan.

- **ESKUBIDE ZIBILAK**

Irungo Udalaren Eskubide Zibilen Ordezkaritza eta aurrera eramaten duen lana honako hiru esparru hauetan biltzen da: Garapenerako Lankidetzak, Giza Eskubideak eta Hiritarren Partehartzea.

- **Hiritarren Partaidetza**

Udalerriko Auzo Elkarteak sustatu eta elkarte horiei laguntzea.

Programak:

- Auzo Elkarteetara dirulaguntzak ematen zaizkie jarduera soziokulturalak aurrera eramateko, eta horri esker, era askotako jarduerak eskaintzen dituzte prestakuntzarako eta aisia eta denbora libre okupatzeko (hizkuntzak, eskulanak, ludoteka, liburutegia, euskal dantzak, aerobic, aretoko dantzak, marrazkia eta pintura, txangoak, hitzaldiak...), jai tradizionaletan parte hartzeko (Erregeen kabalgata, Euskal Jira, Santo Tomas eguneko txistorrada, eta abar.), eta auzoko jaiak antolatzeko.
- Dirulaguntzak Auzoetako Liburutegiei. Liburutegi horiek auzo elkarteek kudeatzen dituzte, hiriko hainbat auzotan daude (Alde Zaharra, Artia, Belaskoenea, Dunboa, Elitxu-Lapitze, Katea, Larreaundi-Olaberria, San Miguel, Pio Baroja Institutua) eta liburu eta aldizkarien kontsulta eta mailegu zerbitzua eta ikasketa aretoak eskaintzen dituzte.

- Boluntarioak Orientatzeko Zerbitzua, Boluntarioen Poltsa bat dago eta Prestakuntza Jarduerak aurrera eramaten dira. Zerbitzu hau interesa duten pertsona guztientzako da, 18 urtetik gora.

Proiektuan dauden ekintzak: Auzoetako Kontseilua sortzea hirian ordezkariak duten erakundeek eta hiritarren partaidetzan interesa duten pertsonak parte hartzeko aukera izan dezaten. Kontseilu horrek kontsulta izaera izango du, eta alde batetik, hiriko erakundeak eta erakunde horiek osatzen dituzten elkarte mugimenduen topaleku eta eztabaidaleku izango da, eta bestetik, Udalaren aholkulari izango da auzokideen arteko gatazkei, arrisku egoerei, hiritarren segurtasun ezari eta gizarte bazterketari aurrea hartzeko politikak planifikatzeko orduan.

- **Garapenerako lankidetzak**

Beste lurralde batzuetan lankidetzak proiektu eta ekintzak aurrera eramateko laguntza.

Programak: Erakunde desberdinekin Lankidetzak Hitzarmenak beren garapenerako proiektuak subentzionatzeko; Laguntza Euskal Fondoari; Senidetzak akordioak hainbat herrirekin; Laguntza Puntualak eta larrialdietarako laguntzak GKEei; Hirugarren Munduarekiko Jarduerak; *Proiektuan dauden ekintzak: Garapenerako Lankidetzarako Udal Kontseilua abian jartzea.*

- **Giza Eskubideak**

Munduko lurralde desberdinetako egoeren inguruan herritarrak sentsibilizatzea, elkartasuna diskriminazio egoeran dauden kolektiboekin, giza balioen transmisioa (tolerantzia, bizikidetzak, berdintasuna, desberdintasunak errespetatzea...).

Programak: Tolerantzia Programak aurrera eramateko Laguntza deialdia; Oroitzapen egunetan garatzen diren jarduerak; Tolerantziarako jarduerak soziokulturalak; hainbat erakunderekin hitzarmenak tolerantzia proiektuak aurrera eramateko. *Proiektuan dauden ekintzak: Eskubide Zibilen web orri bat sortzea aurreikusten da.*

7.3. GIZARTE ONGIZATE ETA KONTSUMO ARLOA

1.- INTERBENTZIO KOMUNITARIOAKO ZERBITZUA

Gizarte Ongizate Arloaren Interbentzio Komunitarioako Zerbitzua zerbitzu berria da eta 2002. urtean zehar jarri da martxan. Bere helburu nagusia bazterketa eta marjinazioa sortzen duten arrazoiak aurreikusteko programak diseinatu eta garatzea da. Zerbitzu hau arduratzen da drogamenpekotasunen prebentzioarako programak, komunitatean esku hartzeko programak, gizarteratzeko eta lanbideratzeko programak, eta gizarte zerbitzuen alorrean eta boluntarioekin diharduten erakunde eta elkarteei laguntzeko programak abian jartzeaz.

Era berean, zerbitzu hau arduratzen da Irungo Emakumeentzako Ekintza Positiboko Udal Plana garatzeaz, Gizarteratzeko Tokiko Plana, Drogamenpekotasunen Tokiko Plana, Inmigratziorako Tokiko Plana eta Haurtzaroaren eta Adoleszentziaren Atentziorako Tokiko Plana prestatu eta garatzeaz.

Horrenbestez, esan dezakegu, Zerbitzuaren ekintza guztietan presente dagoen zeharkako gaia dela drogamenpekotasunen prebentzioa, lehen mailakoa nahiz bigarren eta hirugarren mailakoa, zerbitzu horrek garatzen dituen Planek eta Programek espezifikoki eta ez-espezifikoki jasotzen baitute drogamenpekotasunen fenomenoak eta bere ondorioak.

➤ DROGAMENDEKOTASUNEN ALORREKO JARDUERAK

• Drogamenpekotasunen Plan Lokala

Drogamenpekotasunei loturik tokiko esparruan egingo diren ekintza guztiak biltzen dituen programa-dokumentua da.

Dokumentu hau prestatzeko, udal arlo guztien koordinazioa beharrezkoa izan da, eta baita beste erakunde batzuekiko ere, drogamenpekotasunen alorrean udalerrian aurrera eramaten diren ekintza guztiak koordinatu eta planifikatu ahal izateko, esku hartze integral eta koordinatua lortzearen.

• Gurasoekin Programa

Gurasoei laguntzeko programa honek babes faktoreak areagotzea eta arrisku faktoreak murriztea du xede, prebentzio agente gisa familiak duen papera indartuz.

Programa honen hartzaileak Irungo aita eta ama guztiak dira, eta bereziki guraso rola aurrera eramateko zailtasunak dituztenak.

- **Adoleszenteei Laguntzeko Programa**

Programa hau 12 – 16 urte arteko adoleszenteei eta beren familiei zuzendua dago, eta bere garapen ebolutiboan adoleszenteari laguntzea, bere nortasunaren garapena sustatzea eta arrisku egoerei aurre hartzea du helburu.

Aita eta amei laguntza eskaintzen zaie adoleszentzia garaiaren ezaugarriak ezagut ditzaten, familia estadio berrira egokitzeko beren guraso rolaren aldaketari buruz gogoeta egin dezaten eta beren zailtasunei egokituriko alternatibak bila ditzaten.

- **Hezkuntza Programa Inguru Irekian Arrisku Egoeran dauden Adin Txikikoekin**

Gizarte-hezkuntza interbentzioa da 12 – 16 urte arteko gazteekin, adolescente eta arrisku egoeran daudenei lehentasuna emanez.

Programa honen bidez landa-lan bat egiten da programan parte hartzeko hautagaiak izan daitezkeenak hautemateko, eta hezkuntza programak aurrera eramaten dira bakarka, taldeka edo komunitatean.

- **Eskola Prebentziorako Programa**

Drogamenpekotasunen prebentzio ez-espezifikorako programa da eta eskolan garatzen da. Honako azpiprograma edo ekintza hauek inplementatzen dira programa horren bidez:

- LAGUNEKIN BARATZEAN

5 – 9 urte arteko ikasleei (haur hezkuntzako azken kurtsoa) eta irakasleei zuzendua dago, eta baita ziklo desberdinetako ikasleen aita eta amei ere.

Heltze psiko-afektiborako eta osasun eta ongizaterako oinarrizko ohiturak hartzeko proiektu bat da. Berezi ikasleen autoestimua garatzea eta inguruko presioei aurre egiteko gaitasuna sendotzea du helburu.

Proiektu honetan ipuin batzuk erabiltzen dira. Gainera, ikasleak “Lagunekin baretzean” txotxongilo ikuskizun batzuetara joaten dira urtean zehar, eta ipuinetan landutako gaia jorratzen da obran.

- OSASUNKUME

Osasun hezkuntzarako programa bat da, eta udalerriko 8 – 11 urte arteko ikasleei eta programa aplikatzeaz arduratzen diren irakasleei zuzendua dago.

Udalerriko hezkuntza komunitatea osatzen duten agenteen artean osasun sustapen eta hezkuntzarako estrategiak garatzea du helburu: drogen kontsumotik etortzen diren arriskuei buruz ikasleek duten informazioa hobetzea, ikasleen autoestimua eta jasan beharreko gizarte presioei positiboki erantzuteko gaitasunen garapena sustatzea, eta ikasleen ahalmena sustatzea beren berdinekiko harremanetan adierazpenez jarduteko.

Kromoen album gisa aurkezten da. Albumeko irudiek eta haiekin batera datozen testuek hamabi topikoren alderdi desberdinak lantzeko aukera ematen dute: norberarekiko errespetua, erronkei aurre egitea, tentsioa maneiatzea, harremanak izatea, erabakiak hartzea, botikak, alkohola, tabakoa, jarduera eta atsedenaldea, elikadura, segurtasuna eta higieena.

- DROGAMENDEKOTSUNEN PREBENTZIOA DBHn

Proiektu honek drogen gehiegizko kontsumoa, drogekiko mendekotasuna edo drogen kontsumo ezegokiaren ondorio gisa sortzen diren beste gatazka batzuetan sartzeko arriskuari aurre hartzea du helburu. Osasunaren gaineko gizarte eraginak ezagutu behar dira eta norbanakoaren osasunarekiko arrisku larri eta ohikoenei buruzko iritziak sortu behar dira.

Programa hau DBHko 1., 2., 3., eta 4. kurtsoetako ikasleei zuzendua dago, eta baita irakasleei eta ikasleen gurasoei ere.

Material gisa **Ordago programa** erabiltzen da. Programa honek aldaketa prozesu bat abian jartzeko aukera ematen du, drogen kontsumoarekin loturiko faktore desberdinak aldatu ahal izateko. Zehatz adierazteko, eskolaren esparruan, kontua da adoleszenteak trebatzea drogen kontsumoarekiko arrazoizko erabakiak hartzeko prozesuan, gaiari buruz egiazko informazioa eta informazio egokia emanaz eta usteak, jarrerak eta drogen erabilerarekiko errespetua agertzen duten balioak argituz.

- ZINEA IRAKASKUNTZAN

Programa hau DBHOko 1. eta 2. kurtsoetako eta CIPEko ikasleei zuzendua dago, eta baita irakasleei eta ikasleen gurasoei ere.

Programa honek balio pertsonal prosozialak lortzea du xede, ikasleek prestakuntza integrala izan dezaten L.O.G.S.E.n egiten den hezkuntza eta gizarte beharren definizioekin koherentzia gordeaz.

Horretarako, irakasleak nahiz ikasleek azterketarako elementuak eta tresnak jasotzen dituzte (unitatea didaktikoak), jarduera ludiko eta motibatzaile gisa zinetik abiatuta, pertsonak izaten irakatsi eta ikasteko lanean laguntzeko. Ikasturtean zehar hainbat filma proiektatzen dira, eta programa zinematografikoan azaltzen diren pertsonaien egoerak eta jarrerak behatu eta azterketa kritikoa eginez, ikasleen gaitasunak garatzen dira adiskidetasuna, tolerantzia, familia, adoleszentzia, inguruaren eragina, eta hazkuntza pertsonala bezalako alorretan.

- PREBENTZIO TAILERRAK IKASTETXEETAN

Ikasleekin nahiz ikasle horien gurasoekin eta hezkuntza zentro desberdinetako irakasleekin aurrera eramaten diren tailer batzuk dira. Topaketa horietan lantzen diren gaiak osasun sustapenaren ingurukoak dira, baina Zerbitzuan jasotako eskaria eta tailerrak zuzentzen zaizkion kolektiboa kontuan hartzen dira beti ere. Programa hau DBHOko 1. eta 2. kurtsoetako eta CIPeko ikasleei, irakasleei eta ikasle horien gurasoei zuzendua dago.

Hona hemen tailer horietan planteatzen diren helburuak:

- Drogen kontsumoari loturiko arriskuak murriztea.
- Bitartekarien inplikazioa sustatzea ikastetxean prebentzio programak ezartzeko.
- Seme-alaben etapa ebolutibo desberdinak ezagutu eta ulertzea eta horren inguruan gurasoek dituzten kezkek lantzea.
- LEHIAKETA “ETA ORAIN... ZER PENTSATZEN DUZUE?”

2002. urtean lehen aldiz lehiaketa bat antolatu da ikasturtean zehar Drogamenpekotasunen Prebentziorako programan parte hartu duten DBH, Batxiler eta Erdi Mailako Prestakuntza Zikloetako zentro guztietarako. Lehiaketa horrek, Drogamenpekotasunen Deustuko Institutuak aurreko urtean drogen kontsumoari buruz ikasleen artean egindako azterketaren inguruan ikasleek pentsatzen zutena adieraztea zuen helburu.

Azterketa horrek udalerrri horretako gazte eskolatuak hartu zituen oinarritzat, 12 – 18 urte arteko gazteak, eta drogen kontsumo mailak

ezagutzea zuen helburu. Gainera, gazteek drogekiko zituzten jarrera batzuk deskribatzen ziren eta droga horiei begira zuten permisibitate maila azaltzen zen. Bestalde, hurbilketa bat egin zen beren balio sistemetara, denbora libre erabiltzeko ohiturak eta etxeko giroarekiko eta eskolarekiko gogobetetasun mailak aztertuz.

Programa hau DBHOko 1. eta 2. kurtsoetako eta CIPEko ikasleei, irakasleei eta ikasle horien gurasoei zuzendua dago.

- **“Drogen kontsumoa (tabakoa, alkohola eta legez kontrako drogak) Irungo ikasleen artean” azterketa.**

Udalaren ekimenez, Drogamenpektasunen Deustuko Institutuak azterketa bat egin zuen Irungo hiriko DBH, Batxiler eta Erdi Mailako Prestakuntza Zikloetako ikasleen artean drogen kontsumo mailak ezagutzeko. Azterketa hori 2001ean argitaratu zen.

Planaren “Drogamenpektasunen fenomeno” atalean islatu ditugu azterketa horretan lortutako datuen emaitzak.

Hauxe da udalerrian era horretako azterketa bat egiten den lehen aldia, eta kontuan harturik azterketa horrek eskaintzen dizkigun datuen bidez errealitatea ezagutzea benetan garrantzitsua dela, uste dugu beharrezkoa dela noizean behin era horretako azterketak egitea prebentzio mailako jarduerak dauden beharrei egoki erantzun ahal izateko.

- **Lehen Mailako Arreta Zerbitzuarekiko Aholkularitza programa**

Programa honen bidez, Lehen Mailako Arretarako Zerbitzuan ari diren gizarte langileei aholkuak ematen zaizkie honako funtzio hauek eraginkortasunez bete ditzaten:

- arreta eskaintzen dien pertsona eta familiei informazioa eta aholkuak ematea drogamenpektasunen alorrean komunitatean eskura dauden gizarte baliabideei buruz eta, hala behar izanez gero, kasua beste oinarritzko zerbitzu edo zerbitzu espezializatu batzuetara igortzea kasuak hala eskatzen badu.
- drogamenpektasunen fenomenoari buruz informazioa eta orientazio espezifikoa ematea.

- **Drogamenpektasunen alorreko Gizarte Boluntarioak**

Programa honek honako ekintza hauek biltzen ditu:

- Asteburuetan metadona eta beste patologia batzuetarako botikak ematea “Bitarte” Bitarteko Helburuen Programan tratamenduan egonik arduraduna behar eta ez duten pertsoneri.
- Egunero metadona etxera eramatea horrelakorik eskatzen duten kasuetan.
- Toxikomanoei tratamendu zentroetara laguntzea eta denbora librean berekin egotea.
- Kasuen koordinazioa eta jarraipena.
- Boluntarioen ikuskapena: urtean 20 ordu

- **Irun 2002 testing**

Jai giroetan drogen kontsumoari loturiko arriskuak murrizteko programa da, substantzien jarraipena in situ eginez, eta udalerrian garatuko da. Honako helburu hauek lortu nahi ditu: drogen erabilerak dituen arriskueta jabetzea, drogak kontsumitzeko arrazoiak eta erabiltzen diren moduaren inguruan gogoeta egitea, substantzien kontsumotik datozen arriskuei buruz egiazko informazioa ematea, drogen erabiltzaileen artean arriskuak murriztearekin loturiko kontzeptuak zabaltzea eta substantzia eta kontsumo patroien berrien informazioa lortzea.

Programa hau drogak kontsumitzen dituzten edo kontsumitzeko asmoa duten pertsoneri zuzendua dago, eta baita substantzia horien eta beren kontsumotik etor daitezkeen ondorioen inguruan informazioa nahi dutenei ere.

Programa honen lehen inplementazio esperientzia joan den 2002ko abenduaren 21ean egin zen (Santo Tomas) eta lortutako emaitzak oso positiboak izan ziren; izan ere, aztertutako laginak asko ez izan arren (49), esan daiteke, probako esperientzia zenez, emaitzak benetan onak izan zirela.

- **Alkoholaren Kontsumoari Loturiko Arriskuen Prebentzio Programa Gazteentzat**

Programa honek, alkoholaren kontsumoari loturiko arriskuen kudeaketan jokabide arduratsua sustatzea eta

arrisku egoera horietan erabakiak hartzeko beharreko informazioa ematea du xede.

2 ekintza jasotzen ditu:

- **POSTAL FREE:** Sei postal eredu dira prebentzio edukiekin: “estimatu zure karga”, “estimatu zure arriskuak”, “aukeratu zure muga”, “antolatu zure kontsumoak”, “nola parrandan atera eta ekinaldian ez hil”, “legea da”.
- **Prestakuntza tailerrak.** Tailer horiek hiru orduko iraupena dute eta bertan erabilera anitzeko karpeta bat banatzen da. Karpeta horretan alkohol kontsumitzailea izan daitekeenarentzako informazio interesgarria eskaintzen duten fitxa batzuk daude, eta autoebaluaziorako bi galdetegi kontsumoari loturiko jarrera eta jokabideei buruz. Bigarren hezkuntzako ikasleekin egiten dira tailer horiek.

Bi ekintza horiek 2002-2003 ikasturtean zehar eramán dira aurrera. Postal Free ereduak hainbat kultur eta hezkuntza esparrutan banatu dira, eta tailerrei dagokienean, berriz, guztira 65 egin dira eta 967 ikaslek hartu dute parte, 15 eta 20 urte arteko ikasleak guztiak.

- **Mimo-Alkohol probako esperientzia**

- Mimo ikuskizun bat da, eta alkoholaren kontsumo ez-egokiarekin zerikusia duten egoerak aurkezten dira eszena batzuen bidez. 2002-03 ikasturtean zehar probako esperientzia bat egin da DBHko ikasleekin EAEko hainbat udalerritan, eta Irun izan da esperientzia horretan parte hartu dutenetako bat.

- **GIZARTE BAZTERKETAREN PREBENTZIORAKO ETA GIZARTERATZEA SUSTATZEKO EKINTZAK.**

Interbentzio Komunitariorako Zerbitzuaren ekintzen barnean hainbat programa eramaten dira aurrera gizarte bazterketaren prebentziorako eta pertsonen gizarteratzea sustatzeko:

- **Saiatu Programa.** Gizarteratze-lanbideratzeko prestakuntza programa bat da, eta partehartzaileei gizarteratzeko beharreko trebetasunak, ezagutzak eta jokabideak eskaintzea du xede. Taldekako eta bakarkako saioen bidez garatzen da.

- Auzolan Programa. Luzaroan langabezian dauden eta Oinarrizko Ordainsaria jasotzen duten pertsonak prestatu eta lanbideratzeko programa da.
- Gizarteratze Hitzarmenen Programa. Programa berria da, eta une honetan diseinu eta lehen esperimentu aplikazio fasean dago. Oinarrizko Ordainsaria jasotzen dutenak eta Udalarekin Gizarteratze Hitzarmena eskatzen duten guztiak gizarteratzeko tresna normalizatu bihurtzea da asmoa.
- Tokiko Gizarteratze Plana. Gaur egun diseinu fasean dago eta gizarteratze alorrean udal ekintza eta programa guztiak antolatzea du xede.

➤ **AUKERA BERDINTASUNEN ALORREKO EKINTZAK.**

- Irungo Emakumeentzako Ekintza Positiboko Udal Plana. Emakumeen eskubideak sustatzeko garatu beharreko ekintza nagusiak antolatu eta zehazten ditu.
- Etxeko Indarkeriaren aurkako Sentsibilizazio Komunitariorako Programa. Programa berria da eta, oro har, hiritarrei zuzendutako dibulgazio ekintzak jasotzen ditu emakumeen aurkako tratu txarretaz jabetzeko eta praktika onak sustatzeko.

➤ **HAURTZARO ETA ADOLESZENTZIAREN ALORREKO EKINTZAK.**

- Haurtzaroari eta Adoleszentziari Arreta emateko Tokiko Plana. Gaur egun diseinu fasean dago, eta adin txikiko irundarren garapen eta ongizatearen aldeko udal ekintzak zehaztu eta antolatzea du xede. Drogamenpekotasunen prebentzioa da haurtzaroari eta adoleszentziari arreta emateko ekintzen garapenean jasotako zeharkako gai bat.
- Familian Esku Hartzeko Programa. Arazoak dituzten familiei esku hartze psiko-edukatiboak eskaintzea du xede arazo horiek familiako adin txikikoen garapenerako eragina dutenean edo izan dezaketenean. Azken xedea da adin-txikikoak babesik gabe ez geratzea edo horren arriskua txikitzea.

➤ **INMIGRAZIOAREN ALORREKO EKINTZAK.**

- Inmigrazioaren Tokiko Plana. Prestatze fasean dago, eta inmigranteen gizarteratzea sustatzeko udal ekintzak zehaztu eta antolatzea eta dituzten zailtasunei arreta eskaintzea du xede. Drogamenpekotasunen prebentzioaren gaiari loturik, garrantzitsua da aipatzea inmigranteen adin txikiko seme-alabak modu normalizatuan sartu behar direla eskola esparruan, denbora libre eta abarretan egin beharreko ekintza guztietan.

2.- UDAL KONTSUMO ZERBITZUA

Kontsumoaren alorrean araurik garrantzitsuena 1984ko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorra da, eta kontsumitzailearen eta erabiltzailearen oinarrizko eskubideak jasotzen dira bertan. Hona hemen:

1. **Osasuna eta segurtasuna babesteko eskubidea:** merkatuan jartzen diren produktuek, baldintza normal eta egokietan erabiliz gero, ez dute kontsumitzaile edo erabiltzaileen segurtasun fisikorako arriskurik sortu behar.
2. **Ekonomia eta gizarte interesak babesteko eskubidea:** gure legezko ekonomia eta gizarte interesak babesteko, produktuak edo zerbitzuak erosterakoan bidezko baldintzetan egin behar dugu. Horretarako, honako hau zehazten da, besteak beste:
 - Produktu eta zerbitzuen eskaintza, sustapena eta publizitatea ezin da faltsua edo engainagarria izan.
 - Kontratuen klausulak argiak izango dira eta aldean artean oreka egokia mantendu behar dute. Gehiegizko klausulak debekatuta daude.
 - Iraupen luzeko ondasunek berme bat behar dute idatziz.
3. **Produktu edo zerbitzu desberdinei buru informazio zuzena izateko eta kontsumoaren alorrean hezi eta prestatzeko eskubidea:** kontsumitzaileen eskura jartzen diren produktu eta zerbitzuek egiazko informazioa eraman behar dute, informazio eraginkorra eta objektiboa beren oinarrizko ezaugarriei buruz.

Kontsumitzailearen hezkuntza eta prestakuntza arian-arian sartzen joango da hezkuntza sistemaren maila desberdinetan.

4. **Ordezkaritza izan, kontsultak egin eta parte hartzeko eskubidea:**
Kontsumitzaileek eta erabiltzaileek beren legezko interesak taldean defendatzeko eskubidea dute beren elkarte bidez.
Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteek kontsumitzaileei informazioa eman eta izaera orokorreko xedapenen (legeak eta araudiak) prestakuntza prozesuan parte hartzeko eskubidea izango dute kontsumitzaile eta erabiltzaileengan eragina duten kontuetan.
5. **Babestuak izateko eskubidea gutxiagotasun, defentsa-gabezia edo mendekotasun egoeretan eta eragindako kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea:** kontsumitzaileak eta erabiltzaileak ondasunen kontsumoak edo zerbitzuen erabilerak sortutako kalte-galeren ordaina jasotzeko eskubidea izango du, kalte edo galera horiek bere erruz edo zibikoki erantzulea den pertsonen erruz gertatzen direnean salbu.

Esparru horretan, Udal Kontsumo Zerbitzuak honako zerbitzu hauek eskaintzen dizkie hiritarrei:

-**Informazioa** eskaintzen du era guztietako produktu eta zerbitzuen kontratazioari buruz eta edozein merkataritza sektoretan.

-Erreklamazioak eta salaketak **tramitatzen ditu**, soilik Irungo hiritarrenak edo beste edozein hiritarrenak Irungo establezimenduen aurka, gatazkak konpontzeko bi aldeentzako egokiak diren konponbideak aurkitzen saiatzen da.

-**Kontsumo Ikuskatzaile** bat du salatutako ekintzak egiaztatzeko eta arau-hauste administratiborik dagoen aztertzeko.

-**Istiluen prebentzio lana**, eta horretarako, ACUBI Bidasoako Kontsumitzaileen Elkartearekin batera, urtero dibulgazio ekintzen programa bat prestatzen dugu: jardunaldiak, hitzaldiak, berriak hainbat komunikabidetan eta abar.

-**Kontsumo Arbitrajea:**

Labur azaltzeko, esango dugu gatazkak betiko konpontzeko sistema bat dela. Betiko diogu bide judiziala kanpoan uzten delako.

Azken batean, kontsumitzaileei informatzeko bulegotik, kontsumitzaile horiei ahalik eta informazio handi eta hoberena emateko egiten dugu lan, ondasunen eta zerbitzuen erosketari modu arrazional eta burutsuan, eta saltzailearekin berdintasunean, erantzuteko prest

egon daitezten, eta gataztarik sortuz gero, baliabide eraginkor eta doanekoekin edo ahalik eta merkeenekin defenda daitezten.

3. LEHEN MAILAKO ARRETA ZERBITZUA

Gizarte Zerbitzuek gizarte bazterketa eta desberdintasun arrazoiak aurreikusi eta desagertaraztea, gizarte integrazioa sustatzea eta pertsona eta kolektiboen garapen oso eta librea bultzatzea dute xede, Gizarte Zerbitzuen 5/96 Legearen 1. artikulua dioen bezala.

Gizarte zerbitzuen sisteman sartzeko leihatila nagusia da Lehen Mailako Arreta Zerbitzua, eta horren ondorioz, udalerrian gertatzen diren arrisku eta bazterketa egoera gehienei erantzuten die. Honako hauek dira zerbitzu horrekin harreman handiena dutenak:

- ⇒ **Behartsuak:** elikadura, kultura, gizarte harreman eta abarretan behartsu direnek osatzen dute talde hau. Azken batean, ingurunea beren premia egoerari ez egokitzeagatik sortutakoak.
- ⇒ **Gizarte zailtasunak dituztenak:** gizarte harremanetarako aukerak zailtzen dituzten jokabideak ageri dituzte eta horrek eragina du familiaren barnean, familia inguruan nahiz bizi diren komunitatearen barnean.
- ⇒ **Gizarte gatazkak dituztenak:** beren jokaerak baztertze egoerak sortzen ditu eta beren jarrerak zuzentzeko, legeak esku hartu behar du.

Prebentzioaren esparruan esku hartzeko, arriskuan dauden taldeei zuzendutako ekintzak bideratzen dira, baztertze pertsonala eta soziala sortzen dituzten faktoreen eragina murriztu ahal izateko. Gizabanako edo familietan esku hartzeko prozesuan heziketa, osasuna, lana eta abar bezalako alorretan dituzten premiak zehazten dira. Ildo honetatik, komunitate mailan alor hauetan lanean diharduten teknikari eta gizarte agente desberdinekin lankidetzan egiten da lan.

Gizarte eskuartzearen azken helburua pertsona birgaitzea eta gizarteratzea da.

Gizarte Zerbitzuen asmoa ez da bakarrik pertsonen egoera hobetu edo konpontzea babes edota laguntza ekonomiko baten bitartez, baizik eta pertsona horiek autonomia pertsonal bat izatea eta bizitza duin eta independentea eramatea lortu nahi da. Horregatik, ezinbestekoa da, Lehen Mailako Arreta Zerbitzuaren eta Eskuhartze Komunitariorako

Zerbitzuaren artean etengabeko koordinazioan lan egitea, komunitatearen beharrek eskatzen dituzten prebentzio programak inplementatu ahal izateko.

- **EKINTZAK**

LEHEN MAILAKO ARRETA ZERBITZUA

- ⇒ Gizarteko eskubide eta baliabideei buruzko informazioa eta aholkularitza ematen zaie eskatzen duten hiritar guztiei, beren egoera ikuspegi global batetik baloratuz.
- ⇒ Erabiltzaileek planteaturiko egoeren balorazioa eta diagnostikoa, beren inplikazio indibiduala, familiarra eta soziala kontuan harturik.
- ⇒ Erabiltzaileei beren eskarrietan aholkularitza eta orientazioa ematen zaie.
- ⇒ Arloko Zerbitzu desberdinekin aldiari behin koordinatzea.
- ⇒ Erabiltzaile bakoitzarekin gizarte-familia laguntzaren eta prestazio egokien bidez lortu nahi diren helburuak zehaztea bere arazoa konpontzeko, esku hartzeko prozesuak elkarrekin ebaluatuz.
- ⇒ Eskariak Arloko beste programetara edo kanpoko beste Arlo edo zerbitzuetara bideratu, igorri eta koordinatzea, egoerak hala eskatzen duenean.
- ⇒ Erabiltzaileek planteaturiko arazo edo/eta eskariak hauteman eta sistematizatzea, errealitatea hobeto ezagutu eta programazio objektibo eta egokiago bat egin ahal izateko, eta beharrei egokiago erantzuten dieten ekintzak eta baliabideak sustatu ahal izateko.
- ⇒ Gizarteratzea lortzeko beharrezkoak diren baliabideak mugitzea, beste udal arloek edo beste sektore sozialek beren prestazio eta baliabideak hiritarren beharretara molda ditzaten ahaleginak eginez.
- ⇒ Gizarte Ongizate Arlotik aurrera eramaten diren prebentzio edo gizarteratze-lanbideratzeko programen garapenean parte hartzea (Saiatu, Gurasoei laguntzeko taldeak, Adoleszentei laguntzeko Programa, Hezkuntza programa eremu irekian, Auzolan). Lehen Mailako Arreta Zerbitzuak garatzen duen lanetako bat, atenditutako herritarren artean programa horietan parte hartzeko hautagaiak izan

daitezkeenak hautematea eta pertsona horiek programetan sartzea da.

- ⇒ Familien egoerak baloratzea funtzionamendu edo/eta harreman alorrean dagoen arazoak (bikotea, gurasoak- seme/alabak...) famili unitatearen kide bat edo batzuegan arriskua dakarrenean, egoera zehatz horri erantzuteko balio dezaketen babes edo baliabide egokiak zein diren zehaztuz (erabiltzen diren baliabideak honako hauek izan daitezke: Zerbitzuak berak eskaintzen dituenak, Arloko beste Zerbitzuek eskaintzen dituztenak, beste zerbitzu komunitarioak edo Zerbitzu espezializatuak).

- ⇒ Familietan Esku hartzeko Programa
Programa honen helburu nagusia krisi egoeretan desegituratze pertsonala edo/eta familiarra prebenitu eta aztertzea da, eta horretarako, familiei lagundu behar zaie beren arteko harremanak hobetu eta kideetako bakoitzak bere autonomia lor dezan beharrezko trebetasunak eta baliabideak har ditzaten.
Prebentzio tratamendu gisa, Famili Zerbitzuak aztertu eta diagnostikoa egin ondoren, adin txikikoak arrisku egoeran dauzkaten familiei laguntza profesionala eskaintzen zaie. Tratamendu hori aurrera eramateko, hezitzaile eta familia terapeuten laguntza izaten dugu.

- ⇒ Adin txikikoen alorrean:
 - Babesik gabe egon daitezkeen adin txikikoak hauteman eta baloratu (udal esparruan edo adin txikikoetan espezializatutako zerbitzuaren esparruan).
Garrantzitsua da azpimarratzea zerbitzu honetan planteatzen diren egoera gehienak ez direla babesik gabeko egoerak edo babes falta handiko egoerak. Era askotako arazoak dituzten familiak dira gehienak, familia horietan arrisku faktore ugari biltzen dira eta adin txikikoen ongizatean eragin handia izaten dute.
Kasu hauetan egiten diren jarduerak izaera larriagoko zailtasunak ez agertzea dute helburu, adin txikikoen garapenean negatiboki eragin baitezakete.

 - Kasu bakoitzean baloratutako arrisku mailaren arabera, zein jarduera aurrera eraman behar den zehaztea.

 - Adin txikikoak hartzeko eskariak bideratu eta baloratzea eta Aldundiaren Zerbitzu Espezializatueta zuzentzea.

- Eskuartze zuzena adin txikikoen arrisku egoerak udal alorrean eskuartzea eskatzen duen kasuetan.
- ⇒ Adin txikikoak familietan babestu edo hartzea.
Famili Zerbitzutik babes laguntzak kudeatzen dira beren ardurapean adin txikikoak dituzten familientzat, beren gurasoen gorabeherengatik adin txikiko horiek familia zabalean edo beste familia batean bizitzera beharturik daudenean.
- ⇒ Emakumeek dituzten eskubideei eta erabil ditzaketen baliabideei buruzko informazioa eta orientazioa. Horri esker, emakumeak gaitasun handiagoa du daukan arazoaren inguruan erabaki egokiagoak hartzeko.
- ⇒ Emakumeei Informazio Juridikoa eskaintzeko Programa.
Programa honen bidez, informazioa eta legezko orientazioa ematen zaie emakumeei banaketak, tratu txarrak, sexu erasoak, ... daudenean, eta horretarako, Aldundiaren eta Abokatu Kolegioaren arteko Hitzarmenaren arabera lan egiten duten abokatuen laguntza izaten dugu. Behin-behineko neurrien tramitazioa ere sartzen da eta abokatu batek akusazio partikular gisa jokatzeko aukera ere bai, abusu edo eraso sexualak daudenean. Zerbitzu hori guztia doan izaten da.
- ⇒ Laguntza psikologikorako programa.
Tratu txar edo eraso egoera batetik sortzen den kalte emozionala sendatu edo baztertzeko eskuartze terapeutikoa da, biktimei nahiz erasotzaileei zuzendua.
- ⇒ Harrera-etxea emakumeei
Emakumeak bakarrik edo seme-alabekin batera hartzen dira etxe horretan, defentsa-gabezia egoera zehatzetan dauden Irungo emakume guztiei babesa eman ahal izateko.
- ⇒ Larrialdietarako harrera.
Larrialdi handian dauden emakumeak, bakarrik nahiz seme-alabekin, ostaturen batean presaz babesteko, gaua emateko lekurik ez dutenean.
- ⇒ Berritzegune eta Gizarte Ongizatearen arteko koordinazio programa.
Eskola esparruan adin txikikoen arrisku egoerak hobeto hauteman eta haien gainean esku hartzeko proiektua da. Berritzegunerekin eta

ikastetxearekin batera lan egiten dugu, eta nabaritutako arrisku egoera horien jarraipena egiten dugu.

- ⇒ Etxoletan bizi diren familien gizarte normalizaziorako programa eta gizarte mailan bazterturik dauden familietan Esku hartzeko Programa (Gutxiengo Etnikoak). Programa honen bidez, ijito arrazako familiei hezkuntza laguntza ematen zaie beren zailtasunak landu eta dituzten trebetasunak hobetu ahal izateko, gizartean erabat integra daitezten. Prebentzio lan handia egiten da familia horietako adin txikikoekin.
- ⇒ Gizarteratze hitzarmenak sinatzea dirulaguntzak jasotzen dituzten onuradunekin, pertsona horiei begira ekonomia, gizarte eta lan integrazio eraginkorra lortzea. Hitzarmen horietan jasotako ekintzetan, hauxe da, erabiltzaileak berak eta gizarte zerbitzuetatik garatuko diren ekintza horietan prebentzio izaera nabarmena duten eskuartzeak jasotzen dira.
 - ⇒ Informazioa eta orientazioa drogamenpekotasunen prebentzioan. Ukituriko pertsonen balorazioa egiten da eta beharreko aholkularitza eskaintzen zaie. Era berean, eskatzen duten familiei orientabideak ematen zaizkie, eta tratamendu zentroekin, kartzela instituzioekin, instituzio judizialekin ... koordinatuz kasu horien jarraipena egiten da.

•

4. BALIABIDEEN PLANGINTZA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA

Gizarte Ongizate Arloan Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak Arloa berregituratu ondoren sortu diren hiru zerbitzu berrietako bat da Baliabideen Plangintza eta Kudeaketa Zerbitzua. Zerbitzu berri horren funtzioak honako hauek dira: Arloko baliabideetako batzuk kudeatzea, beharrak eta baliabideak planifikatzea eta txosten teknikoak prestatzea.

Baliabideen kudeaketarekin loturiko egitekoen barnean, 3. adinekoentzako zerbitzu gehienak daude, Udal Zahar Egoitza eta etxebizitza babestuak izan ezik, hauxe da, Etxeko Laguntza Zerbitzua, adineko pertsona autonomoak egoitza baliabideetan sartzeko itxarozerrenden kudeaketa, adineko pertsonen begira Gizartekintzak bideratzen dituen programen jarraipena, Jubilatuen Elkartekiko harremanak, Jubilatuen Klub/Etxea... Multzo horren barnean dago, halaber, elkarteei ematen zaizkien dirulaguntzen programa eta udal hilerriaren kudeaketa integrala.

Plangintza mailan, Arloko prozesu desberdinak zehazteko lanean parte hartzen du zerbitzu horrek eta baita dagozkien prozeduren prestaketan ere. Gainera, zuzenean parte hartzen du Arloko kudeaketa eta kalitate adierazleen sistemaren eraikuntzan, eta baita zerbitzuen jarduera eta eskarien aurreikuspenak egiteko lanean ere gertakariei aurrea hartu ahal izateko. Atal honetan, aipatzekoa da Irungo Udalaren “Irisgarritasun Planaren” prestaketa; lan horren lehen fasean udalerrian, hiri inguruan, eraikinetan eta komunikazioan dauden irisgarritasun mugak katalogatuko dira.

Azkenik, zerbitzu horren egitekoen barnean txosten teknikoen prestaketa dago, Gizarte Ongizate Arloaren jarduerekin eta Arloaren edukiarekin loturiko beste antolakuntza, ebaluazio eta kudeaketa ereduarekin loturiko alderdi guztiei buruz, zerbitzuen karterarako produktu berriei buruz, eta Arloaren arduradunek interesgarritzat hartzen duten beste edozein alderdiri buruz.

EGOITZA ZERBITZUAK

Egoitza baliabideen barnean bi mota bereizi behar dira: zaharren egoitzak eta etxebizitza babestuak, azken horiek adineko pertsona autonomoentzako izaten dira bereziki. Eskumenen banaketaren aurreko egoerarengatik, eta plazen eskaintza eta eskaria egokitzeko behararengatik, Irungo erabiltzaile batzuek beste udalerrri batzuetako Egoitzetan egon behar dute.

Arian-arian egoitza zerbitzuen erabiltzaile kopurua murrizten ari dela ikusten da, bereziki autonomoak gutxitu direlako Plan Gerontologikoan jasotako proposamenen ondorioz.

Egoitza zerbitzuen erabiltzaile horiek, etxebizitza babestuen 24 plazatan, Udal Zaharren Egoitzan eta Sortze Garbia Egoitzan (Mendibil) daude banaturik Irunen.

EGUNEKO ZENTROA

Mendekotasuna duten adineko pertsonak hartzeko zentroak dira, beren etxebizitza bizi izanda egunez arreta behar duten pertsonak, alegia.

Honako zerbitzu hauek eskaintzen zaizkie: garraioa, norbere higieena, elikadura, arreta pertsonala, laborterapia eta jarduera ludiko eta sozialak.

TELEALARMA

Lepoko edo eskumuturreko gisa eraman daitekeen gailu bat da, eta sakagailu bat du 112 Larrialdietarako Zentralarekin loturik, zentral horretatik, hala behar izanez gero, kasu bakoitzean egokiena den laguntza emango zaie. Horren bidez, larrialdietan laguntza ziurtatu eta erabiltzaileari lasaitasuna eman nahi zaio.

Zerbitzu horrek adineko pertsonen edo ezinduen segurtasuna hobetzea du xede pertsona horiek beren ohiko etxebizitzan egon daitezen.

ETXEKO LAGUNTZA

Etxeko laguntza zerbitzua laguntza eskaintzen du erabiltzaileek eguneroko bizitzako jarduerak egiteko erabiltzaileek jarduera horiek egiteko laguntza zuzena behar dutenean. Bi eratako zerbitzuak eskaintzen dira, alde batetik, arreta pertsonal edo higienerako zerbitzua, eta bestetik, etxerako zerbitzua, hauxe da, etxebizitza garbitzeko, janaria erosi eta prestatzeko, arropa garbitu eta lisatzeko...

“Irungo Udalaren Etxeko Laguntza Zerbitzuren Araudia” ere onartu da. 2002ko azaroaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen araudi hori.

SENDIAN PROGRAMA

Sendian programak familiei laguntza ematen du xede adineko pertsonak beren etxeetan edukitzeko. Programa horren barnean, prestakuntza ekintzak eta laguntza psikologikoa ematen zaie familiei, eta era berean, laguntza teknikoak, ekonomikoak eta abar ematen zaizkie, eta baita atseden lekuak ere.

IRISGARRITASUN PLANA

“Irungo udalerriko hiri inguru, espazio publiko, eraikuntza eta informazio eta komunikazio sistemetan sartzeko baldintzak” izeneko azterketa bat prestatzen ari da.

Plan honetan eraikitako inguruaren oinarrizko ezaugarri gisa ulertzen da irisgarritasuna, inguru horren aurrera eraman beharreko gizarte eta ekonomia jardueretan pertsona guztiek parte har dezaten.

Azterketaren xedea: Irungo udalerrian irisgarritasun zailtasunak eta mugak deskribatu eta kokatzea: traba arkitektonikoak, hirigintza trabak, garraio trabak, komunikazio mailako trabak.

- 1) Hiri inguruan irisgarritasun zailtasunak eta mugak katalogatzea.
- 2) Eraikinetan irisgarritasun zailtasunak eta mugak katalogatzea.
- 3) Komunikazioan irisgarritasun zailtasunak eta mugak katalogatzea.

Eraginak: Pertsona guztiei parte hartzeko aukera berdinak sustatu eta ziurtatzea, edozein dela ere pertsona horien adina eta ezintasuna. Eraikitako eremua hobetzea eta ahalik eta independentzia handiagoarekin egitea.

DIRULAGUNTZAK

Kontuan izanik gizarte izaerako Elkaratek paper aktiboa dutela programen garapenean eta haien partaidetza positiboko baloraturik, egokitzat hartzen da elkarte horiek egiten dituzten jardueren dirulaguntzen bidez laguntzea.

7.4. HIRITARREN SEGURTASUN ARLOA

Kontrol formaleko gizarte agenteen lanak (Ertzaintza, Udaltzaingoa, eta abar) prebentzio izaera nabarmena du. Drogamenpekotasunari dagokionez, poliziarri dagokio legez kanpoko substantzien eskaintza kontrolatzea eta produkzioan, banaketan eta salmentan dauden mugak betearaztea. Zeregin horren arrazoa azken batean prebentzioa da. Horren bidez, biztanleria, oro har, eta batez ere ahulenak zaindu nahi dira beren osasunari eta komunitatearenari kalte egin diezaieketen substantzien gehiegizko kontsumoaren aurrean.

Beste faktoreak alde batera utzita, inguruan substantzien presentzia mugatzea faktore benetan erabakigarria da drogamenpekotasunen prebentzioan.

Zentzu horretan, eta Udaltzaingoak, honako arau hauek betetzen direla kontrolatu behar du:

- ostatuek ireki eta ixteko duten ordutegia.
- 18 urtetik beherakoei tabakoa eta alkohola saltzeko debekua.
- Kirolgune, ikastetxe eta osasun zentroetan edari alkoholdunak eta tabakoa banatu eta kontsumitzeko debekua.
- tabakoaren eta alkoholaren legez kanpoko publizitatearen arautegia.

Ikuspegi horretatik, honako jarduera hauek gauzatzen ditu Udaltzaingoak:

- Trafiko segurtasunaren aurkako delituen aurreko jarduerak (edari alkoholdunen eraginpean gidatzea). Urte osoan zehar alkohol kontsumoaren prebentzio-kontrolak egiten zaizkie ibilgailuen gidariei. Kontrol horiek alkoholaren kontsumoaren inguruan gidariak kontzientziatu eta konbentzitzea eta istripuen kopurua murriztea dute helburu.
- Osasun Publikoaren aurkako delituen aurreko jarduerak (droga trafikoa). 1994an udalerrian Ertzaintza ezarri zenetik, honelako delituen kontrol lana murriztu egin da udaltzaingoarentzat, polizia autonomoa hasi baita lan horiek egiten. Bide publikoetako kontsumoak udaltzaingoak kontrolatzen baditu ere, aretoen barnean egiten diren kontsumoen aurreko jarduerak polizia autonomoaren esku geratzen dira.
- Adin txikikoei alkohola saltzearen aurreko jarduerak. Kontua da adin txikikoei edari alkoholikoak edo tabakoa saltzen dizkieten areto edo dendak zein diren hautematea. Horri dagokionean hasiera batean Hiri Segurtasun Legearen arabera jarduten bazen ere, gaur egun “Udal Prozeduren Eskuliburuaren” arabera lan egiten da, drogamenpekotasunaren alorreko Prebentzio, Laguntza eta Bergizarteratzearen 18/88 legean oinarrituta.
- Alkohol eta beste drogen intoxikazioagatik ematen diren laguntzak. Ukituriko pertsonak identifikatu eta osasun zentro batera edo/eta beren etxera laguntzen zaie.

- Bide segurtasun alorreko lanak. Udaltzaingoak bide segurtasunari begira egin ohi duen kontrol lanetik kanpo, prebentzio izaera nabarmena duen beste proiektu bat ere eramaten da aurrera: bide segurtasun eskola. Errepide zirkuitu batek osaturiko esparru bat da, hirietako zirkuituen antzekoa, dagozkion trafiko seinaleekin eta polizia agenteak bertan direla. Jarduera hau ikasleei zuzendua dago. Eta horrekin eskoletako haurrak trafiko arauetako errespetuan hezi nahi dira.

Orain arte aipatutako lanei dagokienean, eta azken urte hauetan egindako lanari begira, honako jarduera hauek eraman dira aurrera:

22. taula

	1999	2000	2001	2002	TOTAL
TRAFIKO SEGURTASUNAREN AURKAKO DELITUAK (EPAITEGIA)	49	38	38	31	136
TRAFIKO SEGURTASUNAREN AURKAKO DELITUENGATIK ATXILOTUAK	48	37	32	26	143
TRAFIKO ISTRIPUAK ALKOHOL/DROGENGATIK	40	24	24	23	111
SALAKETAK HIRITARREN SEGURTASUNEN LEGEARENGATIK	----	2	36	19	57
BIDE PUBLIKOAN ALKOHOLA KONTSUMITZEN AURKITUTAKO ADIN TXIKIKOAK	209	186	138	64	597
LAGUNTZA HANDIAK ALKOHOL ARAZOENGATIK	116	96	102	67	381
LAGUNTZA HANDIAK ESTUPEFAZIENTE ARAZOENGATIK	10	12	12	15	49
ALKOHOLAREN PREBENTZIO KONTROLA	108	110	75	23	216

ALKOHOLAREN PREBENTZIO KONTROLA (POSITIB.)	98	32	54	22	206

7.5. HIRIGINTZA ARLOA

Udalerrian hiriaren garapena modu orekatuan aurrera eramatea gainditze (babes) faktore bat da drogamenpekotasunen prebentzioan, eta horregatik, beharrezkoa da hirigintza plangintzak eta garapenak elkartasun, berdintasun eta arrazionaltasun irizpideei erantzun diezaietela zaintzea, lurralde osoan beharreko oreka eta aukera berdintasuna lortu ahal izateko.

Zentzu horretan, hirigintza arloan funtsezko tresna bat sortzen ari dira, hauxe da, udalerriko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra. Hiriaren etorkizunari begira bidea markatzen du plan horrek; potentzial ekonomikoa garatzeko espazioak izango dituen hiria, auzo homogeneous osatutako hiria, eta ekipamendu duin eta inguruarekiko errespetutsua izango duena. Azken batean, elkarbizitza bultzatuko duen hiria.

Hiriko berdeguneetako ekipamendu komunitarioaren esparruaren barnean, hiri osoaren zerbitzura daudenak bereizten dira. Tokiko berdeguneak zehazten dira, eta batik bat inguruko biztanleek erabiltzen dituzte horiek. Eremu horien barnean haurrek jolasteko lekuak daude, eta horiek etxebizitzetatik hurbil egon behar dute.

Berdeguneen sistema orokorrei dagokienean, Plan Orokorren antolamendu proposamenean espazio horiek guztira 318.091 m²-ra handitzea aurreikusten da, honako berdeguneen sistema orokor hauekin: Jaizubiako Parkea; Fosforera–Azken Portu; Muga–Behobia; M^a Luisa Parkearen Zabalpena; Osinbiribil Parkea; Gain-Gainean Parkea; Oñako Baroia Parkea; Alai-Txoko Parkea.

Bestalde, 152.258 m² espazio libre eta berdegune egituratzaile proposatzen dira, eta horiek hiriko espazio libreak hobetu egiten dituzte: San Miguel Plaza; Dunboako Kanalaren inguruko pasealekua; Ribera Parkea; Artiako Kanalaren inguruko pasealekua; Palmera Parkea; Bidasoa Ibaia Ibilbidea; Dario de Regoyos Parkea.

Deskribaturiko jarduera horiei eta espazio libreen sistema handitzeko aurreikuspenari esker, herritarren bizi-baldintzak hobetuko dira, eta ingurumena sustatu eta zaintzeko helburua beteko da gure udalerrian.

Bestalde, Plan Orokorraren arabera, etxebizitza kopurua %28 inguru igoko da, eta igoera hori apala da plangintza orokorraren berrikuspen batean ohikoa denaren barnean.

Era berean, Etxebizitza Babestua eskatu dutenen erregistroa sortu du Udalak. Etxebizitza babestuen alorrean indarrean dagoen araudiaren arabera baldintzak betetzen dituzten hiritarren eskaerak jasotzen dira erregistro horretan, udal lursailetan nahiz lursail pribatuetan aurrera eramaten diren sustapenen esleipendun izan daitezten. IRUNVI arduratzen da esleipen horien kudeaketaz.

Honako hauek dira, hala erosketa nola alokairu modalitateetan, gaur egun Udalak sustatzen duen etxebizitzaren eraikuntza: Palmera-Montero (171) eta Iparragirre (12).

7.6. BIDASOA BIZIRIK

Bidasoa Bizirik elkarte publikoa da, elkarte horretan Irungo eta Hondarribiko Udalek hartzen dute parte, eta tokiko ekonomia bultzatu eta sustatzea eta enplegua bultzatzea du xede.

Prestakuntza, esperientzia eta orientabideak lortzeko programak garatu eta programa horietan sakontzeko lanean jarraitu dugu, langabezian dauden pertsonen enplegua lortzeko maila hobetu ahal izateko. Eskuarlean ditugun baliabide desberdinak pertsonen benetako beharretara egokitzeko ahaleginak egin ditugu, pertsona horiek lan merkatuan errazago sar daitezten.

Enplegu, Orientazio eta Prestakuntza Saila

Sail honek bideratzen dituen jarduerak langabezian dauden pertsonen lan merkatuan sartzeko erraztasunak ematea dute xede. 2002. urtean, enpleguaren aldeko Itunari esker, baliabideak mugitu dira enpleguaren aldeko ekintzak gartzeko, programa hori gabe benetan zaila izango baitzen ekintza horiek aurrera eramatea. Era berean, lan

merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboei zuzentzen zaizkien jarduerak bideratzen ditu.

Orientazio zerbitzua

Orientazio zerbitzuaren jardueraren helburu nagusia langabezia dauden pertsonen arreta eskaintzea izan da, eta pertsona horiek dituzten beharrei erantzuteko ahaleginak egin dira baliabide desberdinen bidez.

Zerbitzu honek orientazio prozesuak garatu ditu 785 lagunekin. Zerbitzura pertsona gehiago joan dira honako hiru faktore hauengatik bereziki: hainbat zerbitzu kokaleku berean integratu direlako, Enplegu Zentroa oro har langabetu guztiei ireki zaielako eta enplegua bilatzeko teknologia eta metodologia berriak erabili direlako.

Partaidetza Sareak eta Foroak eskualde esparruan

Enpleguaren aldeko Ituna: Enpleguaren aldeko itunaren lan-mahaiaren jarraipen aktiboa. Sindikatuek, Irungo Udalak eta Bidasoa Bizirik erakundeak osatzen dute itun hori.

Ekintzak: haurrentzako ludoteka, Cibernarium, Aiton-amonak sarean, adineko pertsonak teknologia berrietara hurbiltzea; Mintegi birtuala; Industria eremuan Hautzaindegia jartzeko bideragarritasun azterketa; Lan merkatuaren sentsibilizazioa; Kolektibo espezifikoei: inmigranteak, arreta eskaintzeko zerbitzua.

Beste partaidetza Foroak

- Prestakuntza-mahaia eskualdeko Prestakuntza Zentroekin.
- Orientazio-mahaia Hezkuntza Sistemako orientatzaileekin.
- Lankidetzak Gizarte Zerbitzuen arloarekin.

Etengabeko Miaketa eta Prestakuntza Saila

Enpresa-ehuna ezagutu eta benetako beharrei egokituriko jarduerak aurrera eramateak eskualdeko ekonomiaren garapenean laguntzeko aukera ematen dio Bidasoa Bizirik erakundeari.

Merkatuaren beharrak enpresetan bertan hautematen dira, enpresei bisita pertsonalatuak egiten baitzaizkie Bidasoa Biziriken zerbitzuak ezagutzera emateko eta, horrekin batean, berehalako beharrak azaltzeko, ekintza egokiak aurrera eramanez.

Ekonomia, Azterketa eta Berrikuntza Saila

Sail honek bideratutako jarduerak honako xede hauek dituzte: Bidasoa-Txingudiko enpresa eta zerbitzuei eskainitako zerbitzuak berritu eta hobetzea, kanpora begira zerbitzu eta produktuen transferentzia eta Bidasoa Biziriken lan ona sendotzea, eta finantzazio bide europar berriak lortzea eskualde mailan interesa duten proiektuak aurrera eramateko.

Autoenplegua eta Enpresa Zentroa

Ekintzaileei laguntzeko tresnak hobetu eta berritzeko lanean jarraitu du sail honek. Mintegi Birtuala martxan jarri da, interneten dagoen tresna horrek gure ekintzaileei arreta emateko zerbitzuak informazio eta komunikazio teknologia berriekin lotzeko aukera ematen du.

Turismo Saila

Presentzia handia izan da hainbat sustapen ekintzetan, bai nazio mailan bai nazioartean, eta bultzada handia eman zaio mugaz gaindiko turismo lankidetzari.

7.7. DROGAZALEEI LAGUNTZEKO ZENTROAK

Drogamenpekotasunen fenomeno eta hari loturiko arazoa eteteko estrategiak, toxikomania arazoak dituen pertsonarekiko **asistentzia eta tratamendua** kontuan eduki behar ditu ezinbesteko elementu gisa mendekotasun arazoei konponbidea emateko bidean.

Edozein eratako dependentzia edo mendekotasunen aurrean (alkohola, botikak, tabakoa, opioa,...), desintoxikazio eta ohitura galtze faseak betetzen ditu tratamenduak. Tratamenduarekin batera, eta horretara dedikatzen diren zentroekin koordinatuz, Udaleko Gizarte Ongizate Arloan atenditu eta bideratzen ditu bergizarteratzearekin zerikusia duten alderdiak (judizialak, prestakuntza eta lan kontuak, alderdi okupazionalak eta gizarte kontuak).

Tratamendu orok arreta berezia eskaintzen die drogazaleen eskubideei:

- Eskura ditzakeen zerbitzuei buruzko informazioa, eta bere tratamenduak planteatzen dituen baldintzak eta eskakizunak.

- Datu guztien konfidentzialtasuna.
- Eredu terapeutikoa libreki aukeratzea E.A.E.an kreditaturik daudenen artean.
- Tratamenduari uko egitea, legez ezarritako kasuetan izan ezik.

Honako tratamendu zentro hauek ditugu gure lurralde historikoan:

- **OSASUN MENTALEKO ZENTROA:** Gure udalerrian dago, eta alkoholismo arazoak nahiz beste toxikomania batzuk dituzten pertsonei eskaintzen die laguntza. Honako zerbitzu hauek eskaintzen ditu: harrera, dexintosikazioa, kontrola eta jarraipena, psikoterapia bakarka eta familian, gizarte eta lanbide laguntzarako programak eta terapia okupazionala. Era berean, mantenu programa bat eskaintzen du

opiazioen aurkakoekin (naltrexona programa).

- **AGIPAD** (Drogen Abusuaren Prebentzio eta Ikerketarako Elkarte Gipuzkoarra).

Honako programa eta zerbitzu hauek eskaintzen ditu elkarte horrek:

- **PREBENTZIO ZERBITZUA:** irakasle, familia, Udal, enpresa eta drogen kontsumoari loturiko arazoak murrizteko interesa duten beste kolektibo batzuei zuzendua dago.

- **DROGAZALEEN TXERTATZE PSIKOSOSIALA LORTZEKO ARRETA ZERBITZUA:** programa honen barnean ambulatorio saioetan egiten da tratamendua eta honako pertsona hauei zuzendua dago: informazioa eta orientazioa nahi duten pertsonak; drogen mende dauden pertsonak; drogen kontsumoari loturiko arazoak dituzten adolezenteak eta gazteak; tratu txarren biktimak eta tratu txar emaeleak; adin txikikoak arriskuan dituzten familiak; eta droga kontsumitzaileak.

- **“HAIZE-GAIN” KOMUNITATE PROGRAMA TERAPEUTIKOA:** hiru fase ditu: harrera-diagnostikoa; egoitza-internatzea; jarraipena-bergizarteratzea.

- **FAMILIAN ESKU HARTZEKO PROGRAMA DROGAZALEAK BERGIZARTERATZEKO:** familia arteko zailtasunak konpontzeko aholkularitza espezializatua behar duten familia edo/eta hurbilekoei zuzendua dago. Diziplina anitzeko profesional talde batek eramaten

du aurrera, familia terapian eta drogamenpekotasunetan adituak guztiak ere.

- DROGEN KONTSUMOARI LOTURIKO ARAZOAK DITUZTEN PRESOEI LAGUNTZA EMATEKO PROGRAMA: bakarkako tratamendua da eta drogamenpekotasun arazoak dituzten Martuteneko preso prebentiboei eta zigorra dutenei zuzendua dago.

- **GIZAKIA HELBURU:** Programa hau Donostian kokatua dago, eta pertsona toxikomanoei arreta eskaintzea du xede programa terapeutiko-edukatibo baten bidez.

Ikuspegi horretatik abiatuta, hiru fasetan banatutako lan-sistema bat jartzen dute martxan: harrera, komunitate terapeutikoa eta bergizarteratzea. Era berean, aipatzekoa da, komunitate terapeutikoan sartu gabe eraman daitekeela programa aurrera talde terapeutikoak horrelakorik erabakitzen duenean. Kasu horietan komunitate terapeutikoaren ordezkari laguntza-taldeak osatzen dira eta horiengana egunero joan behar da.

Osagarri gisa, prebentzio esparruan eta ukituriko familiarrei laguntzeko baliabideak sortzeko esparruan ere garatzen dira proposamenak.

- **BITARTE, TARTEKO HELBURUEN PROGRAMA:** Metadona bidezko mantenu programa da azken aldi honetan bultzada handiena jaso duen programetako bat, hori funtsezko tresna baita opiazeoen mendekotasuna duen kolektiboan prebentzio mailan eta terapeutikoki jarduteko. Programa hau Donostian dago eta 1997ko uztailaz geroztik udalerriko botiketan ematen da metadona gizabanakoak egonkortu ondoren. Jarraipena eta kontrol analitikoa, berriz, Dunboako Lehen Mailako Arreta Zentroan egiten dira.

7.8 ALKOHOLIKO ANONIMOAK, AL-ANON

Alkoholiko Anonimoen elkarteak alkoholarekin arazoak dituzten pertsonak sendatzen laguntzen du. Elkarte honen programa

autolaguntzan oinarritzen da batik bat. Bilera itxiak egiten dira talde-terapia lantzeko eta bilera irekiak ere arazo honetan interesaturik dauden guztiei informazioa emateko.

Jarduera hau aspaldiko urteetan garatzen ari da gure udalerrian eta oso lan positiboa da eta pertsona askori eman zaio laguntza.

Era berean, **Al-Anonen Juncal** taldea ere hortxe dago arazo hori dutenen familiakoei eta lagunei beharreko arreta eskaintzeko. Baliabide komunitarioa da, eta beharreko laguntza eskaintzen die besteren edate konpultsiboaren eragina dutenei..

Talde honen lana oso fazeta garrantzitsua da alkoholaren mende dauden pertsonak sendatzeko, gaixotasun prozesua ulertzen eta familiakoek jokatu behar duten papera argitzen laguntzen baitu.

1978. urtean sortu zen, eta orduz geroztik beren lanarekin jarraitu dute astean bi aldiz bilduta. Bildu egiten dira esperientziak elkarri azaltzeko, elkarri indarra eta itxaropena emateko, dituzten arazo komunei konponbidea bilatzeko. Alkoholikoen seme-alaba helduek, gurasoek, bikoteek, senar-emazteek eta lankideek laguntza aurki dezakete Al-Anonen.

Al-Anon Alkoholiko Anonimoen elkartetik bereiz dagoen ermandade bat da, baina elkarte horren programa bera erabiltzen du familiakoei eta lagunei egokituta.

Irunen, 1988an, **Alateenen Errasa** taldea sortu zen alkoholikoen seme-alaba adoleszentei laguntzeko. Talde horiek sortu ziren familiako gazteenek bi arazori aurre egiteko beharra zutelako, hauxe da, alde batetik, alkoholikoarekiko elkarbizitza, eta bestetik, alkoholikoarekin bizi diren helduen ongieza jaso beharra, heldu horien mende baitago adin txikikoa.

Une honetan, lan, ikasketa eta beste arazo batzuentatik talde hori ez

dago martxan gure udalerrian. Baina gazteren batek informazioa edo/eta laguntza eskatuko balu, taldea berriro ere bilduko litzateke.

7.9 IKASTETXEAK

Ikastetxeetan uste dugu drogamenpekotasunen arazoaren garrantziak eta konplexutasunak heziketa alorra bera gainditzen duela eta baita osasunarena ere, tradizioz osasunarekin lotura estuagoa izan duen arren, eta gizarteko sektore guztiek parte hartu behar dute konponbide eta erantzun egokiak bilatzeko lanean. Horregatik, ikastetxea ezin da bazterrean geratu, eta alor honetan programak eta proiektuak eratu eta martxan jarri behar ditu.

Ikastetxeen egokitasuna bermatzen duten arrazoien artean, honako hauek nabarmenduko genituzke:

- Eskolatzea derrigorrezkoa izatean, komunitatean dauden haur eta adolezente guztiak beren nortasuna garatzeko garairik funtseskoenetako batean atenditzeko aukera ematen du.
- Ikasleak dira bizitzeko estiloa eta portaera positiboaren eskemak eraikitzeak aukera gehien ematen duten adin taldea. Askoz ere errazagoa da ohitura osasuntsuak hartzea, osasuntsuak ez direnak oraindik sendotu ez diren garaian.
- Ikastetxeak lortu nahi duen azken helburua ikasleriaren formazio integrala da, beren gaitasun guztiak garatu, eta gizarte konplexu eta anitz batean integratzeko aukera eman ahal izateko.

Oinarri horietatik abiatuz, LOGSEk Osasunerako Heziketa sartzen du egungo hezkuntza erreformaren curriculum proposamenaren zeharkako gai gisa. Arlo guztietan eta eskola curriculumaren etapa guztietan arian-arian jarraipena eman behar dela planteatzen du.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren gure eguneroko lanean, etengabe, inplizituki eta batzuetan konturatu ere egin gabe, prebentzio lana egiten ari gara. Ekintzak ugari eta askotarikoak izan daitezke. Adibide modura, eta gehiegi zehaztu gabe, honako hauek aipa ditzakegu:

1. Ikasleen prestakuntza integrala.
2. Tutoretza lanaren sustapena.
3. Aniztasunaren tratamendua.
4. Familiekiko harremanak sustatzea.
5. Zentroko planak eratzea, eta plan horietan prebentzio ekintza jasotzea, ikasleei informazioa emateaz gainera, ikasle horiek prebentzioaren alorrean prestatzea, eskola errendimendua eta jarduera intelektuala loturik, horixe da ohitura osasuntsuak eta osasungarriak dituen hezkuntza zentro baten zeregina.
6. Eskolorduz kanpoko ekintzak antolatzea, kultur ekintzak, kirol ekintzak...
7. Ikasleak beren gelako taldean eta eskolan integratzeko ekintzak.

8. Izpiritu kritikoan eta erabakiak hartzeko heztea.
9. Ebaluaketa motibatzailea, ikasleen alderdi positiboak nabarmenduz.
10. Arrisku egoerak hautematea eta orientabideak ematea.
11. Udal Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea familiaren atentzio falta, tratu txarrak, eskola absentismoa.. daudenean. Azkar eta eraginkortasunez jarduteko dauden protokoloak, eta eskura dauden udal baliabideak ezagutzera ematea Hezkuntza zentroei.
12. Dauden prebentzio programak aztertu eta, egokitzat hartzen bada, martxan jartzea.
13. “Curriculum ezkutu” bat dagoela gogoan hartzea, haxe da, inplizituko irakatsi eta ikasten dena: irakasleen eta familien jokabidea eta jarrera, zereginak banatzea, arauak betetzea eta abar.
14. Irakaskuntza-mahaian parte hartzea, Eskola komunitateak hausnarketa lasaia eta ordenatua egiteko espazio gisa. Mahai honetan, prebentzio alorrean heziketa esparrutik egiten denari buruz hausnarketa egiteaz gainera, proposamenak egin ahal izango dira, beste mahai sektorialekin beharrezko diren jarduera guztiak koordinatu ahal izango dira eta organo eskudunei eskariak egin ahal izango zaizkie, baita beste mahaietatik eskariak eta iradokizunak jaso ere.

7.10 IKASLEEN GURASOEN ELKARTEAK

Familiaren barneko lana benetan funtsezkoa da prebentzioan eta osasunean hezteko. Gurasoek funtsezko papera jokatzen dute, izan ere, haurra jaiotzen denetik hainbat balore, jarrera eta ohitura ematen dizkiote bere bizitzan zehar, elkarrekiko inplikazio afektiboaren testuinguru batean.

Hezkuntzaren alorrean ere gurasoek funtsezko lana egiten dute Eskolaren osagarri gisa, bereziki, baina ez soilik, Ikasleen Gurasoen Elkartean eta Guraso Eskolen bidez.

Gure familien legatua, guri aurrera ateratzen laguntzeko egiten duten ahalegina, erreferente garrantzitsua da guretzat, baina horrek ez du esan nahi “guraso izaten ikasteko” etengabe irekiak egon behar ez dugunik.

Irekiak Guraso Eskola bezalako jarduera batean parte hartzeko. Eskola horietan gogoeta egiteko eta gure bizipenak eta kezkek edo zailtasun komunak elkarri azaltzeko espazio bat irekitzen da, ulermena eta barne heldutasuna eskaintzen du, haxe da, gure seme-alabei hobeto laguntzeko aukera ematen du azken batean.

Elkarte horiek prestakuntza hitzaldiak eta jarduerak antolatzen dituzte, eskola komunitate osoari zuzenduak, osasun, ongizate, prebentzio, elkarbizitza... gaiei begira mentalizazioa eta sentsibilizazioa sustatzeko, eta eragin handia lortzen da haurren eta gazteen balio positiboetan.

Prebentzioa eguneroko bizitzan gara daiteke, gurasoak seme-alabekin komunikazio irekia eta argia edukitzeko gai garen heinean, berei entzuteko gai izan behar dugu, dituzten kezkei erantzun eta dituzten beharrei ere modu egokian erantzun behar diegu, garapen osasuntsu eta positiboa izateko oinarriak jartzen ari baikara horrekin.

Era berean, aipatzekoa da, familia eta eskolaren arteko hurbilketak eta inplikazioak, ahalegin partekatua dela jakin arren, oso eragin garrantzitsua duela gure seme-alaben eskola garaiko ibilbidean.

7.11 AUZO ELKARTEAK

Auzoetako elkarte mugimenduaren bidez, hiritarrek beren auzo edo bizitokietako eguneroko bizitzan parte har dezaten bideak jartzea da lortu nahi da. Udalerrian 20 auzo elkarte daude eta bertako auzo guztiak ordezkatzeko dituzte, hauexek dira, herriko auzo guztiek eta kasu batzuetan oraindik auzo bezala eratu ez izan arren hiritar multzo handi bat biltzen duten eremu berriek ere badute elkarte bat.

Hasiera batean Auzo Elkarteak auzoko errebindikazio proposamenak egiteko bidea baziren ere, gaur egun jolas eta prestakuntza eskaintzen inguruan ibiltzen dira beren ekintzak. Hala ere, elkarteek beren errebindikazio kutsua mantentzen jarraitzen dute auzoko arazo orokorrei dagokienean.

Aisialdi eta denbora librearen alorrean eskaintzen diren ekintzak honako hauek izaten dira bereziki: aretoko dantza klaseak, botika-kutxa, hizkuntza klaseak, mantenu gimnasia, yoga, aerobic, liburutegia, kirol jarduerak, ludoteka, jostuntza tailerra, txangoak, eta abar.

Jai ekitaldi tradizionalak dagokienean, badira elkarte batzuk udalizaerako ekitaldi horietan parte hartzen dutenak, hauexek dira, Errege Magoen Kabalgata, Euskal Jira, Santo Tomas eguneko txistorrada eta

abar. Auzo bakoitzeko jaien barnean, Auzo Elkarteek protagonismo handia hartzen dute jaien antolakuntza beren esku egoten delako.

Elkarteek egindako proposamenei dagokienean, elkarte horiek kezkatuta daude gazteek denbora libre erabiltzeko duten moduarekin, substantziak kontsumitzeko joera handiegia dutela azpimarratzen dute, batez ere alkohola kontsumitzeko, denbora libre okupatzeko modu gisa. Horregatik, elkarte batzuek beren ekintzak eta beren instalazioak ere gazteen esku jarri dituzte, beren kezkak bideratzeko topaleku edo toki bat izan dezaten.

7.12 ZERBITZU PASTORALA

“Drogamenpekotasunen alorreko Boluntarioen programa”. Birgaitze prozesuan dauden toxikomanoei eta haien familiei laguntzeko talde bat da. Boluntario taldea da, eta 1994. urteaz geroztik marjinazioaren alorrean ari da lanean, eta arreta berezia eskaintzen die toxikomanoei eta beren ingurukoei.

Eskaintzen den laguntza era askotakoa izan daiteke, zirkunstantzien arabera: Toxikomanoei tratamendu zentroetara laguntzea, eta bisitaldiak zentroan internatuta daudenean; denbora librean laguntzea (irtenaldiak, paseoak, ...) eta etxera bisitaldiak.

Hilean behin topaketak egiten dituzte, eta bilera horietan toxikomaniak dituzten pertsonen familiakoak biltzen dira beren esperientziak partekatu eta elkarri laguntzeko.

Bilera horietan familiek beren egoera, beren jarduteko modua, beren kezkak eta abar azaltzen dituzte. Eta arazoari aurre egiteko modu egokiena zein den aztertzen dute denen artean. Testuinguru honetan, jada birgaitu diren pertsonen familiakoen aholkuak benetan interesgarriak dira ukiturikoen familientzako.

GURUTZE GORRIAREN PROGRAMA TRATAMENDUAN DAUDEN TOXIKOMANOEI LAGUNTZEKO.

Gurutze Gorriaren Batzarra, Udalaren Esku Hartze Komunitariorako Zerbitzuren laguntzaz, eta Zerbitzuen Pastoralarekin koordinatuz, lanean

ari da toxikomanien alorrean, batik bat HIESa fase terminalean duten toxikomanoen kasuetan.

Boluntario talde baten bidez lan egiten da programa horretan, eta honako jarduera hauek eramaten dira aurrera:

- Eguneroko metadona dosia eta botikak etxera eramaten dira.
- Erabiltzaileei gizarte gaien inguruan jarraipena egin eta aholkuak ematen zaizkie horrelakorik behar dutenean.
- Osasun zentroetara laguntzen zaie, eta osasun zentroetara ambulanzietan eramaten dira horrelakorik behar denean.
- Komunitate terapeutikoaren irteeretan laguntzen zaie: denbora libreko jarduerak egiteko laguntza.
- Udalak horretarako kontrataturiko ikuskatzaile batek boluntarioek egindako lana ikuskatzen du aldian behin. Zortzi saiotan egin da eta bi ordu eta erdiko iraupena izan du bakoitzak.

Aipatzekoa da, azken urtean, hau da 2002. urtean, boluntarioen programaren bidez hainbat ekintza eraman direla aurrera: 702 metadona-dosi eman dituzte; 2903 psikofarmako-dosi; 77 laguntza tratamendu zentroetara, eta 136 laguntza denbora librean. Gainera, 14 boluntario jarduera horien inguruko prestakuntza klaseetara joan ziren.

Udalaren Gizarte Ongizate Sailarekin egindako bilera batzuetan, eta sail horrekin lankidetzan, gure erabiltzaileak beste programa batzuetan sartzeko ahaleginak egiten ditugu, Gizakia Helburu Programan sartzeko, esate baterako, beren bizi-kalitatea hobetu dadin.

Horrez gain, gure erabiltzaileen familiakoei eta lagunei laguntza psikosoziala eskaintzen diegu.

Alor horretan interesatuta dauden ikasleek unibertsitate mailan praktikak egiteko aukera sustatzen dugu, gai horretan Euskal Herriko Unibertsitateko zuzendaritzarekin kolaboratuz.

Era berean, hainbat kanpaina egiteko asmoa dugu gizarte kontzientziatorako eta boluntarioak trebatzeko bai toxikomanien alorrean bai gizarte mailako beste gai batzuetan.

**8.DROGAMENPEKOTASUNEN
PLAN LOKALA OSATU ETA
BURUTZEKO PARTAIDETZA
BIDEAK ETA KOORDINAZIO
MAILAKO ESTRATEGIAK.**

Dagoeneko azaldu dugu plangintzaren oinarria. Aztertu dugu Testuinguru komunitarioa, eta horretarako, inguruaren azterketa sozio-demografikoa egin dugu batetik, eta gizarte-kultur ekipamendua kuantifikatu eta kalifikatu dugu bestetik.

Era berean, drogamenpeketasunaren fenomenoari buruzko azterketa burutu dugu, ikuspegi orokor batez aztertu ere; izan ere, *norbanakoa-substantzia-ingurua* hirukotea hartu dugu oinarri gure udalerrian toxikomaniak eta kontsumoak izan duten bilakaera ezagutu ahal izateko. Horrek guztiak aukera eman digu Drogamenpeketasunen Plan Lokala gorpuzten eta elikatzen duten helburu orokor, zehatz eta bideragarriak erredaktatzeko.

Plan baten diseinuan eta osaeran eman beharreko urrats logiko eta zentzuzkoak azaldu ditugu orain arte. Baina plangintzaren prozesua ezin amaitutzat eman daiteke puntu horretan. Behar-beharrezkoa da kudeaketa plan egoki bat egitea, plana aurreikusi bezala garatuko dela ziurtatuko duena, eta plana burura eramateko bitarteko egokiak aukeratzea.

Aurreikusiriko helburuak betetzearren, baliabide egokiak erabili eta beharreko estrategiak planteatu behar ditu kudeaketa planak. Helburuak zehaztea eta jarduerak planifikatzea ez da aski nahi diren helburuak lortzeko. Ezinbestekoa da nola kudeatuko diren eta nola gauzatuko diren aurreikustea.

Baliabideen erabilerak baldintzatzen du, hein handi batean, plan baten garapena. Planaren diseinua eta osaera sustatu eta bultzatzen dituen Toki Administrazioak du, beste elkarte eta instituzio batzuekin batera (gizarte, politika, administrazio mailako erakundeak eta abar) proiektua aurrera eramateko ardura.

Horretarako, behar-beharrezkoa izango da egoki koordinatzea. Lan komunitarioa erraztu eta bultzatuko duten koordinazio estrategiak zehaztu behar dira ezinbestean. Koordinazioa funtsezko gertatuko da, plan komun baten helburu nagusi bihurtu behar baitira erakunde desberdinek dituzten helburuak, nahiz eta batzuetan antzekoak izan. Era berean, garrantzitsua izango da erakunde eta elkarte desberdinak ohikoak ez dituzten lan markoetan biltzea eta berrantolatzea.

Planak, beraz, estrategia mailako neurriak aurreikusi behar ditu, garatzeko orduan sor litezkeen eragozpenak gainditzeko; eta nork osatuko du plana?, nori begira?, zer ondorio ditu?, nola neurtzen du

eginikoa? bezalako alderdiak mugatzeko neurri teknikoak zehaztu behar ditu.

Drogamenpekotasunen plan lokalak, duen izaeragatik, elkarte ugari ukitzen ditu. Eta talde horiek elkarlanean ari ahal izateko, harreman eta lankidetzaren egokia izateko, onartu eta ezagutu egin behar dute “besteak” garatzen duen funtzioaren garrantzia. Gainera, elkarrekiko interesa izan behar dute, eta dauden baliabideak trukatzeko edo elkarri uzteko aukera ere aurreikusi beharko dute.

Sistema bakar batera biltzen ez diren elkarte, talde eta erakundeek multzoak osaturiko testuinguruaz ari gara etengabe. Horrenbestez, beharrezkoa izango da koordinazio-tresna bat zehaztea, plan hau aurrera eramateaz arduratuko den elementua, alegia. Prebentziorako Udal Talde Teknikoa da, hain zuzen ere, elementu hori.

Planaren helburuak lortzeko egiazki lan egingo duten agenteak zein diren bereizi ondoren, eta plana sistema irekitzat harturik, talde desberdinetan elkartuko dira zehaztu diren helburuen, ekintza zuzentzen zaien hiritarren, dauden baliabideen eta lortu diren emaitzen arabera. Halatan, Drogamenpekotasunen Prebentziorako lan-taldeak sortuko dira modu horretan.

Lan-talde horiek eratuko dute beharrezkoa den koordinaziorako elementua, beren jardura esparruan betiere; halaber, Plan Lokala garatzeko eta kudeatzeko komunitatearen partaidetza erraztuko dugu. Tokiko administrazioetik kanpoko erakundeek (irakaskuntzaren sektore desberdinen; gizarte-osasun asistentziaren; kultura eta kirolaren; elkartzeko mugimenduaren... ordezkariak), eta udal arlo desberdinek osatuko dute lan planteamendu hori. Jardura esparru desberdinetan lanean ari diren taldeetan sartzen joango dira udal arlo horiek.

Pertsonak, taldeak eta erakundeak osatuko dituzte lan-talde horiek, eta haien laguntza ezinbestekoa izango da plana burura eramango bada eta haren helburuak beteko badira. Mahai bakoitzaren jarduera esparruak mugatu eta zehaztuko du noiz bilduko diren.

Mahaiak osatu ondoren, plangintzaren helburuak ulertu eta ezagutu behar dira eta ezagutzera emango dira, era berean, mahaiko partaideak dituzten interesak. Ondo asko azaldu behar dira partaideak edo erakundeak proiektua garatzeko izan ditzaketen kostuak eta lortu beharreko etekinak, hauexek da, ongi argitu behar dira truke elementu horiek guztiak. Mahaien eraginkortasuna neurtu beharko da, behar bezala jarduteko zein estrategia mota erabiliko diren (negoiazioa, koalizioa eta abar) zehaztu ahal izateko. Partaide bakoitzak erabakiak hartzeko eta plana prestatzeko orduan izango duen inplikazioa zehaztuko da hurrena. Lan-mahai horiek ez dira itxiak izango, eta elementu berriak sartu ahal izango dira, haietan aztertzen den gaiak hala eskatzen badu.

Lan-taldeak jarduera plan bat itxuratuko dute, eta plan horretan ekintza zehatz bihurtuko dira helburu zehatzak, Plan Lokalaren helburuetara egokituko diren emaitzak lortu ahal izateko arian-arian.

Ekintza edo jarduera guztiak xehe azalduko dira, honako atal hauek zehaztuta:

- Egin beharrekoa, lanaren izaera.
- Lanaren egilea, batez ere lankidetzan egin beharrekoa baldin bada.
 - Lana noiz egin behar den, bereziki etapen kronologia, amaiera epeak.
 - Lana non egin behar den, leku batean, hainbat lekutan.
 - Nola egin behar den, hauexek da, funtzionamendu arauak.

Plangintza burutzeko beharrezkoak diren baliabideak kuantifikatzen eta kalifikatzen laguntzen du jardueren zehaztapenak. Era berean, zehaztu egin beharko da lan-taldearen barnean kide bakoitzak duen erantzukizun eta konpromiso maila.

Lan-talde hauek koordinaziorako eta errealitatea aztertzeko elementu garrantzitsuak dira berez, eta era askotako talde nahiz erakundearen topagune ere badira. Horrez gainera, oinarritzko tresna dira hiritarren partaidetzarako, lehen esan dugun bezala, plan lokala garatzeko eta kudeatzeko orduan.

Plangintza horretan parte hartzeko bidea da lan-taldea, hiritarrak beren gizartearen aldaketa agenteak izan daitezen lankidetzan arduratsu eta antolatuen bidez, arazoak aurreikusteko eta haiei konponbidea emateko partaidetza eraginkorraren bidez eta interes komuneko baliabideak nahiz zerbitzuak egokiro erabiliz. Hiritarren partaidetza, berez, helburua da. Hiritarrek duten eskubidea eta betebeharra da haiek ukitzen dituzten proiektuetan parte hartzea. Jarduera jakin baten emaitzak hobetzeko bidea da (eraginkortasuna), pertsonen berezko trebetasunei, baliabideen iturri gisa ulerturik, esker. Jarduerak antolatzeaz gainera, bizitzaren beste esparru batzuetan parte hartzeko gonbita egiten diete pertsonari, lankidetzan-izpiritua sortuz, eta lortu egiten da, azken batean, pertsonak beren arazoei aurre egiteko eta konponbide bat aurkitzeko gai izatea.

Baina partaidetza prozesua ez da soilik plan lokalaren garapenean eta kudeaketan aurreikusi behar, plan hori behin idatzi ondoan, baizik eta partaidetza prozesu hori bera ziurtatu behar da aipaturiko plangintzaren osakeran eta diseinuan ere. Komunitatearen partaidetza kontuan hartu da planaren diseinu eta prestatze faseak hasita. Horretarako, honako irizpide hauek hartu ziren kontuan solaskideak aukeratzeko garaian: eraginkortasunez lan egiteko gaitasuna, ekintzaren bidez planaren interesari eusteko gaitasuna, eta kanpotik gizarte laguntza nahikoa garatu, mobilizatu eta baliatzeko gaitasuna (gidaritzan).

Aurreko plana prestatu zenean egin zen bezalaxe, partaidetza ziurtatzeko hainbat bilera egin dira udal arlo desberdinekin (hirigintza, hezkuntza, kultura, gazteria eta kirola, oinarritzko gizarte zerbitzuak, interbentzio komunitarioarako zerbitzua, euskara, kontsumoa, langileria eta abar), gizarte agenteekin, hezkuntza eta osasun erakundeekin, era guztietako elkarteekin (auzo elkarteak, ikasleen gurasoen elkarteak, aisialdirako elkarteak eta abar), Bidasoa Bizirik erakundearekin, gizarte boluntarioekin eta abarrekin. Talde edo arlo bakoitzari azaldu zaio egungo planaren planteamendu orokorra, eta plan hori diseinatzeko ekarpenak egin ditzatela eskatu zaie, arazo honi buruz ahalik eta iritzi gehien bildu eta egungo DROGAMENDEKOTASUNEN PLAN LOKALEAN islatu ahal izateko.

9. METODOLOGIA ETA EBALUAZIO TRESNAK

9. METODOLOGIA ETA EBALUAZIO TRESNAK

Zientzia literaturaren arabera ebaluazioaren lehen funtzioa aurrez zehazturiko helburu batzuen lorpen maila edo balioa zehaztea da. Beste modu batera esanda, ebaluazioa prozesu bat da, irizpide eta arau batzuk ezartzen eta aplikatzen dituen, eta epaiketa bat egiteko asmoa duena programaren osagaiez (bai programaren sorreran bertan, bai eta burutzen ari den bitartean ere), eta balorazio bat, baita plangintza prozesuaren etapena ere. Azken batean, ebaluatzea neurtzea da.

Plan hau lau helburu orokor handik egituratzen dute, eta helburu horiek, aldi berean, euren helburu espezifikoak dituzte. Horien inguruan, hain zuzen ere, diseinatzen eta gauzatzen da jarduketa-programa, eta helburu honekin egin ere: haien egokitasuna eta eraginkortasun maila neurtzeko aukera emango duen ebaluazio plan bat izango duten aurrez zehaztutako emaitzak lortzea.

Ez dago plan edo programa bat ebaluatzeko era txarrik edo onik, jendeak ideia desberdinak baititu programa batean garrantzizkoena izan behar lukeenaz. Esate baterako, gauza bat da xede-populazioaren partaideen asebetetzea ebaluatzea, eta beste bat ebaluazioa kostua/onura (eraginkortasuna/errentagarritasuna) ikuspegitik egitea.

Kontua litzateke programa horren inguruan behar den informazio klaserako ebaluazio egokia diseinatzea. Ebaluazioa kualitatiboki edo kuantitatiboki begiratuta egin liteke. Ikuspegi kualitatiboak zehaztu nahi duena zera da, zein zentzu izan duen eta nola bizi izan duten esperientzia programan parte hartu dutenek alegia, eta, era berean, behatutako ondorioak interpretatzea. Metodo kuantitatiboak, ordea, programan sorturiko aldaketak neurtzen eta puntuatzen saiatzen dira. Horrela, partaide bakoitzaren neurketa sistematikoak egiteko bidea ematen dute, aurrez zehaztutako tresnak erabiliz.

Helburu orokorrak eta espezifikoak xede-populazioarengan eragin nahi diren aldaketak direnez, programaren ondorioen ebaluazioak horri begiratu behar dio batez ere, ea horrelako aldaketarik badagoen ala ez. Programaren **inpaktuaren ebaluazioa** programaren hasierako efektuari dagokiona da. Bestela esanda, bete al dira programan markatutako helburuak? **Emaitzen ebaluazioak** ondorengo efektuekin edota epe luzerakoekin du zerikusia. Eta **prozesuaren ebaluazioak** programaren aktibitateak ebaluatzen ditu, bai eta horiek nola garatu diren ere.

Prebentzio alorrean ebaluazio lana beste arlo batzuetan baino zailagoa izanagatik, egin egin behar da, eta gainera partekatuta, egiteko

unean. Tokiko administrazioaren kasuan, ebaluazio hau hurbilago dago ebaluazio kuantitatibotik kualitatibotik baino; hala ere, ahal den neurrian, azken hori ere egin liteke.

Horregatik , tokiko administraziotik, epe motzean, esku-hartzetik-*prozesuaren ebaluazioa*- hurbilago dauden ebaluazio-lanak egin daitezke, eta giza baliabide eta material gehiago dituzten erakundeentzat utzi (Droga Gaietako Zuzendaritza, Behatokia....) epe luzeragoko efektuak-*emaitzen ebaluazioa*- ; izan ere, udalaz gaineko izaera baitute, eta horrela eginez gero, ikuspegi globalago batetik ebaluatu ahal dira gertatzen diren aldaketak.

Administrazioen arteko lankidetzak edo ebaluazio lanaren banaketa honek programen ebaluazioek dituzten bi arazo handi saihestu nahi ditu:

- 1.- Beharrezko daturik ez izatea programaren eraginkortasunari buruz balorazio bat egiteko.
- 2.- Programa bat behar baino lehen ebaluatzea, hau da, ondo funtzionatzen eta bere ondorioak izaten hasterako.

Prozesuaren ebaluaziotik, hara zer egin lezakeen tokiko administrazioak:

- a- Programa xede-populazioarengana iristen den jakin.
- b- Programaren funtzionamendua behatu, egoki garatzen ari ote den jakiteko.
- c- Programako partaideen asebetetzea baloratu.
- d- Programaren kalitatea baloratu.
- e- Programaren efektuen aurretiko balorazioa egin.

Era berean, eta ebaluazio kuantitatiboarekin lotuago, Planak bere garapena eta kudeaketa neurtu beharko ditu, bere oinarritzko elementu diren lan-taldearen kontrolaren bidez honako hauek neurtzeko :

- Zenbat bilera egin diren.
- Zenbat partaide izan diren.
- Zenbat proposamen egin diren.
- Zenbat jarduera eta proposamen bete diren.

Datu-bilketa honek esango digu Plana zenbateraino bete den, eta era berean Plana hobetzeko

